

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-02-07
ASTELEHENA
308. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Tenisean onenak, Arrasatekoak

VNRC txapelketa irabazi dute | 25



Santamasetako sariduna. | J.A.

Futbol zelaietan erretzeko debekuz denetariko iritziak dituzte klubek | 4



Antzuolarrek oso balorazio ona egiten dute aterpeaz | 11



Errepide erdian ipiniko dute Euskadi etorbideko bidegorria Oñatin | 18

Santa Ageda neska-mutilak, ieup!



Aste bukaera osoan kantuan eta dantzan ibili dira aurtengo kintoak | 13

Aretxabaletako kintoek lehenengo dantzaldia egin zuten zapatuan. Eskoriatzan, bestalde, lehenengo Kintto Eguna ospatu zuten. | JOSETXO ARANTZABAL

Oraingo langabezia mailan geratzeko arriskua dauka Debagoienak

Langabezia handitu egin da abendutik: 3.000 langaberen bueltan gaude. Oñati txukun dabil, eta Eskoriatzan hobetu egin da egoera, baina krisi aurretiko langabe kopurua bikoiztu egin dugu. Jarraera berriak asmatzean edo lehengoak biziberritzean egon daiteke irteera bat. | 2

Kaxa gorriak musikariak eta ikusleak batu zituen

Denetariko jendea erakarri zuen Ain_1 taldearen saioak | 29



Ikusleen eskaerak, kaxan. | J.A.

Azken bost segundoek erabaki zuten derbia

Saskibaloi lehia gogor borrokatu zuten MUK eta Sustrai Aloñak | 24

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

FIDELTASUN SARIA

**HOME
CINEMA**

► Otsailaren 14an, Home Cinema bat zozketatuko dugu bazkide izaten jarraitzeko erabakia hartu duzuenon artean.

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

Garaileen gisara, bere burua birrasmatu behar du ibarrak

- Krisia zerbait baretu da, baina ez da amaitu
- Gogoeta sakonagoak, planteamendu aldaketak edo jarduera berriak izan daitezke etorkizuneko gakoak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Krisiaren txarrena joanda ote da Debagoienean? Gauzak hobetzen hasi ote dira guretako? Itxaropen izpi batzuk piztu dira azkenaldian, eta 2008-2009 biurteko beldurgarria gainditu da; baina, beste alde batetik, geldialdi baten, ez hobera, ez txarrera sartuta geratzeko arriskua ageri da, eta beharbada etorkizuneko ereduakin pentsatzeko garaia etorri da.

Oñati, 'Informe Semanal'-en
Albiste onekin hasiko gara. Hala, 2010. urtea aurrekoa baino hobea izan zen enplegu aldetik. Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuen arabera, 2010. urtean langabezia nabarmen murriztu zen Debagoienean, 2008 eta 2009 latz batzuen ondoren. Hala, 3.500 langabetik 3.000 ingurura jaistera lortu zuen Debagoienak, eta Gipuzkoarekiko betidanik izan duen aldea berreskuratzea lortu zuen.
Oñatik dauka bailarako langabezia maila txikiena (Leintz Gatzagaren kasu berezia kontuan izan gabe), eta baita Hego Euskal Herriko eta Espainiako langabezia tasa txikienetarikoa bat ere. Bere kasuak hedabide handi batzuen atentzioa merezi izan du, eta Television Españolako *Informe Semanal* saioan eta, berriki, *Tiempo de Hoy* aldizkarian erreportajeak egin dituzte Oña-

tiren inguruan. *Herri-miraria* deitu izan diote, eta gogora ekarri dituzte bere langabezia datuak: 10.700 biztanle ingurutik bakarrik 365 zeuden langabezian joan den abenduan; populazio osoaren %3,3, edo, bestela esanda, populazio aktiboaren edo aktiboa izan daitekeenaren %6,75; bailarako batez bestekoa %9,44 izan zen.

Autoenplegua bultzatu
Lourdes Idoiaga alkateak gogoratzten du 2008ko martxoan 440 langabe zeudela Oñatin (%8,14). Orduan, Udalak Enplegu Plan bat egin zuen, eta neurrietako bat zen Udalaren kontratazio zuzena: hala, herri-altzariak garbitzeko lanak egiteko 45 lagun enplegatu zituen, langabeen %10. Enplegua sortzeko eta bultzatzeko beste neurri batzuk hartu ditu Udalak: "Neurri garrantzitsuena Formazio Plana da. Autoenplegua asko lantzen dugu: langabeen profilari dagokion formazioa ematen diegu, ea lan-merkatuen euren nitxoak topatzen duten", azaltzen du Lourdes Idoiaga alkateak.
Aurrera begira, herrian sektore ez hain landuak indartu gura ditu Udalak: "Ikerketa bat egin genuen eta, horren arabera, lehenengo sektorean aukerak badaude: nekazaritza ekologikoan, frutaren arloan... Eta dagoeneko ekintzaile pare bat badaude, bat

abeltzaintzan eta bestea nekazaritzan".
Oñatiko enpresak eta kooperatibak beste faktore bat dira. Idoiagak azpimarratzen duenez, "industria enpleguen %60 kooperatibetan daude", eta horietan langileak birkokatzea, aurreerretiratzeak bultzatzea... erabiltzen dira kaleratzeen partez. Bestetik, herriko enpresen portaera ere nabarmentzen du: "Garay eta Natra Zahor bikain kudeatuta daude eta internazionalizatu eta berrikuntzan sartuta daude, eta era berean, ez dute deslokalizazioa bilatu".
Hezkuntzatik, Zuazola-Larraña Institutuko zuzendari Kepa Altubek hau dio: "Gure Lanbide Heziketa ikasleetatik praktikak egiten dituztenen %20 enpresan lanean geratzen dira, eta beste %80ek ikasten jarraitzen dute. Gure helburua bada ikasleok lanera bideratzea, baina baita espezializatu daitezen eta maila har dezaten".
Oro har, kualifikazio handi hori igarri egin da: "Oñatin, orain arte, langabezia teknikoak izan da; jendeak izan ditu beste aukera batzuk. Gero, beharakada ez da hainbeste izan langile kopuruan, baizik eta produkzioan". Eta gaineratzen du: "Nik esango nuke Oñatira krisia beranduago ailegatu dela, eta enpresek denbora handiagoa izan dutela presartzeko".



Pertsona bat Lanbideren bulego aurrean. Langabezia zertxobait handitu da abendutik urtera.

"Ez da bere onera etorri"
Eta albiste txarrak hauek dira: krisian jarraitzen dugula. Hijos de Juan de Garay enpresako Jose Creixell-ek hauxe dio: "Egoera oso delikatuak da oraindik. Hemen kooperatibismoaren enplegua oso garrantzitsua da, eta goiari eutsi diote aparteko ordainsariak kenduta eta bestelako zuzenketa-neurri oso gogorrekin. Baina horietan ere, Euskaditik kanpo, estruktura zati handi bat kendu egin dute, eta sozietate anonimook ere bai. Horregatik, beharbada, langabezia tasa hemen konparatiboki txikiegoa da, baina ez egoera primerakoa delako".
Egoera orokorraz, hauxe dio: "Egia da, bai, aktibitate handiagoa dagoela. Automobilgintzan, lana sartu da. Eraikuntzak oso ondo ordainduta egoten jarraitzen du, baina saltzea oso zaila da, eta prezioak hondoratuz lortzen da hori. 2009arekin alderatuta zertxobait hobera egin dugu, baina ekonomia ez da bere onera etorri".

Alkateak berak ere onartzen du Oñatiren datuak ez duela "triumfalismorik" sortu behar: "365 langabe daude, eta beste horrenbeste familia langabezia sufitzen dutenak".

"Zenbaki hotzak dira"
Eskoriatza izan da iaz portaera onena izan zuen Gipuzkoako herria. 2010 hasi zuen %11ko langabezia tasarekin, eta goia jo zuen martxoan (%11,16); hortik aurrera, ia etengabe hobera egin du, eta urtea hasi du %9,86ko tasarekin (205 langabe). Debagoienean langabeziak gogorren jotako herriarendako albiste onak, eta Pedro Lasagabaster alkateak osoko bilkura baten ere azpimarratutakoa. Baina "kontuz! Zenbaki hotzak dira eta, batzuen egoera hobetu egin den arren, badakigu oraindik jende asko oso larri dagoela. Beraz, ondo dago, zenbakiak hobekatu dira, baina ezin dugu esan primerako emaitzak direla". Udalarendako "neurgailu onena" da zenbat jende joaten den Gizarte Zerbitzuetara laguntza eske.



Indusketen bigarren fasea aa. | IÑAKI SAGREDO

LANGABEZIA TASA AZKEN URTEOTAN

	ANTZUOLA	ARETXABALETA	ARRASATE	BERGARA	ELGETA	ESKORIATZA	GATZAGA	OÑATI	DEBAGOIENA	GIPUZKOA	EUSKADI
2008ko 1. hiruhilekoa	5,09	7,14	7,58	6,36	3,11	7,39	4,58	4,44	6,5	7,64	8,35
2009ko 1. hiruhilekoa	9,33	10,67	14,20	9,9	8,51	12,76	10,53	8,60	11,40	10,87	12
2010eko 1. hiruhilekoa	8,91	10	12,88	10,29	5,32	10,51	8,21	7,91	10,61	11,67	12,80

*Datu guztiak %-etan.


ITURRIA: GARAPEN EKONOMIKORAKO ESKUALDE AGENTZIA



Urtarrilera. | JOSETXO ARANTZABAL

Dena dela, beste irakurketa bat egiten du Lasagabasterrek: "Sakoneko arazoa ez da konpondu, eta garapen iraunkorra ez da lortuko oraingo bidetik. Oraingo krisia konponduko da, baina lehengora bueltatzen bagara, beste burbuila bat sortuko da, beste krisialdi bat etorriko da... Dena berriz

planteatu beharra dago". Eta gaineratzen du: "Hazkundera ez da iraunkorra, lurra mugatua delako. Etorkizunean, ekonomia-aktibitate guztiek ingurumen ikuspegia izan beharko dute arrakasta izateko. Modu batera edo bestera, guztia birplanteatu behar diogu gure buruari".



KOLDO AZKOITIA
GARAPEN TEKNIKARIA

"Beldur naiz bailara ez ote den oraingo langabezia mailan estankatuta geratuko"

Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Agentziako teknikaria da Koldo Azkoitia. Azken hilabeteko langabezia datua "ez da ona", diosku berak.

Zelan interpretatzen dituzu urtarileko langabezia datuak?

Irakurketa zuzena egiteko, epe luzeagoa begiratu behar da. 2008ko azken hiruhilekoa eta 2009ko lehen hilak izan ziren latzenak. Langabezia asko handitu zen, eta Gipuzkoako tasa gaingitu genuen. 2010ean, lehen bezala, Gipuzkoako tasaren azpitik jarri eta aldea handitu dugu: 3.500 langabetik 3.000 ingurura pasa gara.

Baina...?

Baina krisiaren aurretik, 1.500 langabe inguru genituen, eta orain, bikoiztu egin dugu kopuru hori. Urtarrilean langabezia handitu egin da, eta azken hilabeteotako txikitzerako joera eten egin da. Ez da albiste ona.

Zelan joan daiteke urtea, zure iritziz?

Urtarrila, eta urteko lehen hilabeteak ez dira onak izaten. Aurten, jarraitu beharko genuke hoberako joera hori. Hala ere —eta hau nire iritzia soila da—, urte baten edo urte eta erdian, ez dut ikusten gorabehera handirik egongo denik. Eta gainera, beldur naiz ez ote garen estankatuta, geldituta geratuko eta orain bezala ez ote diren geratuko gauzak.

Sektoreka, zelan joan da enplegua?

Industriak garrantzi handia dauka gure bailaran, eta eragin handia du enplegu datuetan. Automobilgintza eta autoetako osagarrien industriak indartsuago dabilta, eta horiek konpentsatu egin dituzte okerrago zeuden industriren emaitzak.

Bestalde, kooperatibismoak dauzka bailarako enplegu industrialen %65, eta kooperatiben artean bi aurpegi egon dira, bi egoera mota.

Enpresa txikiei dagokienez, euren merkatua da merkatu nazionala, eta hori oso txarto dago.

Hortaz, niretako, ondorioak dira enpresa txikiendako lerro berriak irekitzea oso zaila dela; bestalde, zerbitzuen sektorean, joera ez dela izan ez onerako, ez txarrerako; eta eraikuntza Debagoienean oso sektore txikia zela eta zegoen gutxia krisiak jan duela.



LOURDES IDOIAGA
OÑATIKO ALKATEA

"Oñatin, lehenengo sektoreak ekonomian aukerak badituela konturatu gara"

Udal Enplegu eta Formazio planaren emaitzak aipatzen ditu Oñatiko alkateak. Lehen sektorea promozionatu gura dute orain hurrengo.

Oñatik langabezia tasa txikienetarikoa bat dauka, guretik kanpo ere...

Oso langabezia txikia daukagu, bai: %6,75 zen abenduan, 365 langabe. Gipuzkoan, %7 ingurukoa izaten da tasa; EAEn, %10ekoa.

Pozik egongo zarete, bada...

Bai. Dena dela, ez da triumfalismorako datu bat, izan ere, oraindik hainbat herritarrek eta euren familiek sufritzen dutelako langabezian egon beharra.

Zeintzuk dira Oñatiren egoera onaren gakoak?

2009ko martxoan, langabezia %8,14koa zen. Udalak Enplegu Plan bat egin zuen. Alde batetik, kontratazio zuzena bultzatu zen. Baina gakoetako bat da Formazio Plana. Iaz, inkesta bat egin genien langabe guztiei, eta euren egoeraz, gura zuten formazioaz... galdetu genien. Urtero jarraituko dugu euren egoera. Erantzunen arabera, langabeei euren profilaren arabera formazioa eskaintzen diegu: fiskalitatea, kudeaketa, bideragarritasun irakurketak... ea lan merkatuan euren nitxo topatzea samurrago duten. Autoenplegua lantzen dugu eurekin, eta sortu dira ekintza batzuk. Ekintzaile izatea bultzatzeko dirulaguntza bat ematen diegu.

Bestalde, kooperatibetan birko-katzea eta aurre-erretiroa bezalako neurriak hartzen dira, eta ez kaleratzeak; eta herriko enpresa handiak bikain kudeatuta egon dira eta berrikuntzan erabat sartuta daude. Enpresa txikiei dagokienez, askok oso gaizki pasatu dute, baina irizpide komertziala aldatzen doaz. Enpresaburuen indarra, egokitze gaitasuna eta konpromisoa gakoak izan dira gure enplegu egoerarako.

Ze beste asmo dituzue etorkizunerako?

Iaz, ikerketa bat egin genuen, eta ikusi dugu lehen sektorean badaudela aukerak. Bada, sektore horretarako dirulaguntza hirukoiztu egin dugu aurten: 3.000 eurokoa da. Badago hori nitxo bat, dela nekazaritza ekologikoan, dela frutaren ekoizpenean... Hori lantzen ibili gara. Eta dagoeneko badaude ekintzaile pare bat hori lan egiteko gertu: bat abeltzaintzan eta bestea nekazaritzan.



PEDRO LASAGABASTER
ESKORIATZAKO ALKATEA

"Gizarte laguntzak jende askok eskatzen ditu, eta guretako, hori da esanguratsuena"

Pedro Lasagabaster alkateak ondo hartzen du Eskoriatzako langabezia datu berrienak, baina "arazo sakona" ez dela konpondu ohartarazten du.

Eskoriatzak dezente hobera egin zuen 2010ean. Urtea %11,01eko langabezia tasarekin hasi zuen, eta orain %9,86an dago...

Bai; albiste ona da eta osoko bilkuran ere aipatu nuen eta horixe esan nuen. Baina kontuz hartu behar da. Zenbaki hotzak dira, eta, herritar batzuen egoerak hobera egin duen arren, jakin badakigu jende asko oso larri dabilen. Beraz, ondo dago, zenbakiak hobeak dira, baina ezin dugu esan emaitzak oso onak direla.

Udal Gizarte Zerbitzuetara jende askok jotzen du oraindik?

Bai. Izan ere, 2008. urteaz geroztik asko handitu da gizarte laguntzak eskatzera doazen kopurua. Eta asko, gainera, oso kasu gogorak dira. Eta guretako, egoera neurtzeko tresna onena gizarte laguntzak dira, hain zuzen ere, eta laguntzok zenbat jendek eskatzen dituen.

Aldatu da laguntza eske etortzen den jende mota?

Bai. Krisiaren aurretik profil batekoak etortzen ziren, batik bat. Orain, ikusten ditugu lehen lanean zebiltzan eskatzaile asko; hipotekak direla, kredituak direla... itota dagoen jende asko. Eta jende asko ere etortzen zaigu lan bila, baina Udalak ezin du askorik egin. Ahal duguna egiten dugu. Oro har, guretako errealitate hori guztia esanguratsuagoa da bestelako datuak baino.

Udalak kontratazio zuzenik egiten du?

Bai, egin izan dugu; beste leku batzuetatik dirua kendu eta horra bideratu izan dugu. Dena dela, hori aldi baterako laguntza besterik ez da. Udalon ahalmena mugatua da, eta gurea, udal txiki bat izanda, are mugatuagoa. Guk egin dezakegun baino gehiago behar da.

Zer egin daiteke, bada?

Arazo sakona ez da konpondu. Garapen iraunkorra ez da lortuko gaur egun gabiltzan moduan jarraituta. Hemen adreiluaren kultura jarraitu da. Eta ahaztu egin dugu hazkundera ez dela iraunkorra; ezin daiteke izan, ezin dugulako eten barik hazi, lurra mugatua delako. Etorkizunean, ekonomia-jarduera guztiek ingurumena kontuan hartu behar dute. Guztia berriz planteatu behar dugu, hortaz.

UDAk eta Aloña Mendik egunotan jardungo dute erretzeko debekuaz

Jaurlaritzak atea irekitzen dio futbol zelaietan erretzea legez kanporatzeari

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Oraingo astean bertan landuko dute UDAk eta Aloña Mendik Euskadiko tabakoaren aurkako legearen egokitzapenak ekarri duen albistea: futbol zelaietan ere erretzeko debekua. Oraindik ez da ezarri debeku hori, baina Legebiltzarraren testuak horren aukera irekitzen du.

Klubek jakin-minez hartu dute berria, eta denetariko iritziak dituzte: batzuek uste dute Debagoieneko futbol zelaietan ez duela endredu handirik sortuko, eta beste batzuek uste dute txarre-rako dela.

Zelaietan ezin izango da erre delako kirol ekitaldia adin txiki-koendako denean. Helduendako denean zer egin dago zalantzan.

Kontzientziazioa

Aloña Mendiko futboleko presidente Jabi Azpiatzuk ondo hartu zuen lege orokorra, eta esaten du "kirolean ere, kontzientziatu egin behar" dela jendea "erretzea kaltegarria" dela; bere iritziz, kontzientziazio hori indartu behar da, "debeku gogorrik" eman barik. Era berean, uste du ezin dela konparatu bailarako zelaietan izan dezakeen eragina eta Anoetan edo

San Mamesen izango duena. Mondrako Patxi de Andresek ere esan du bailaran ez dela hainbeste erretzen partiduetan, baina "erretzaileendako leku bat gorde badaiteke, hobe", esaten du. Legeak horretarako aukera ere aipatzen du.

UDAk Eduardo Altubek esan digu bihar direla lantzekoak gai hori Zuzendaritza Batzordean. "Inguruko klubekin ere harremanetan jarriko gara", esan du.

"Haserretu egingo dira"

Bergarako Pedro Rico presidentek legearen kontraesanak azpimarratzen ditu: "Norbere autoan

ESANAK

"Jendea kontzientziatzea da modua, eta ez debekua"

JABI AZPIATZU | ALOÑA MENDIKO PRESIDENTEA

"Norbere autoan erretzen uzten badute, zergatik futbol zelaian ez?"

PEDRO RICO | BERGARAKO PRESIDENTEA

erretzen utzi dute, elkarte gastronomikoetan ere bai, baina aire zabaleko futbol zelai baten debekatu egin nahi dute. Bada, hori

ez zait ondo iruditzen. Bergaran, jendeak zelai inguruan erretzen du, baina ez harmailetan. Eta kea ez da bertan geratzen".

Ricok dioenez, "bailarako klubek ekonomiarendako ez da bideragarria" erretzaileendako gune bereziak antolatzea futbol zelaiotan.

Antzuolako Tomas Agirre presidenteak esaten duenez, Udalak, jabea denez gero, erabaki beharko du Antzuolako Eztala zelaian zer egiten den. Honako iritzia eman digu: "Erabakitzen bada ezin dela erre, ez dut uste eraginik izango duenik, eta jendeak berdin-berdin jarraituko du etortzen. Erretzailea ez dator futbolera erretzera, futbola ikustera baizik". Hala ere, bere ustez, "haserrea" eragingo du neurriak, azkean aurrera egiten badu. Era berean, kritikatu egin du debeku bolada: "Hurrengoan, beharbada mendian erretzea ere debekatu egingo dute", esaten du.

Zabaletak eredutzat ipini du Mondragon lana eta osasuna bateratzen duen talde gisa

Lan arriskuen prebentzioaren gaineko jardunaldian izan zen, Garaia gunean



Hizlarien mahaia, jardunaldian; erdian, Gemma Zabaleta. | J.L.

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Gemma Zabaleta Lan eta Gizarte Politika sailburuak Mondragon Taldea eredutzat jarri du enplegu egonkorra eta kalitatezkoa,

baina baita osasuna zaintzen duena ematen duen talde gisa. Hori egin zuen egubakoitzean lan arriskuen prebentziorako sentsibilizazioari buruzko jar-

dunaldi baten, Garaian, Mondragoneko Osarten kooperatiba elkarteak antolatuta.

Iaz, lan istripu gutxiago

Sailburuak emandako datuen arabera, 88.500 lan istripu izan ziren iaz Euskal Autonomia Erkidegoan, 2009an baino %7 gutxiago; hildakoak 58 izan ziren, aurreko urtean baino %9 gutxiago. Dena dela, istripurik gabeko egoerara iristeko prebentzioan lanean jarraitu beharra nabarmendu zuen Zabaletak, prebentzioaren garrantzia behar beste errotuta ez dagoelako oraindik.

Arauak betetzeari dagokionez, esan zuen Jaurlaritzak lan ikuskaritzaren eskumena bere egingo duela laster, eta tresna garrantzitsua izango dela hori.

Hauteskunde bulegoa irekiko du Kale Zaharrean Oñatiko Ezker Abertzaleak

Herri Programa lantzen hasi ziren zapatuan, eta herritarren proposamenak jaso gura dituzte

L.K. | OÑATI

Oñatiko Ezker Abertzalea Herri Programa lantzen hasi da. Herritar guztiak landu gura dute, eta horretarako, inkestak bidali dituzte Oñatiko postontzi guztietara, buzoiak jarriko dituzte herriko hainbat lekutan, eta Interneten orri bat irekiko dute. Horrez guztiaz gain, Kale Zaharrean hauteskunde bulegoa irekiko dute eta harreman pertsonal zuzenak ere irekiko dituzte herritarrekin. "Abertzale, ezkertiar eta independentistek parte hartzeko deia" egiten diete.

Garapen iraunkorra, helburu

Zapatuan herri tailerra egin zuten institutuan, eta herritar asko batu ziren bertan. Hiri-

gintza, ingurumena, auzoak, sozioekonomia, politika soziala, emakumea, euskara, kultura hezkuntza, gaztedia eta kirola: horiek dira landu zituzten arloak, betiere Oñati eremu gisa hartuta. Helburua izan zen komunikazio plangintza bat denon artean antolatzea.

Garapen iraunkorra, helburu

Herri Programa 2011 delako ekintzaren barruan egon zen zapatuko saioa. Arduradunen esanetan, "herritar partaidetza bultzatu" gura dute "planeamendu herritar eta ezkertiarra egiteko. Hiri-planeamendua antolatzen dugunean garapen iraunkorra ipiniko dugu helburu". Informazio gehiago: www.herriprograma2011.net.



Tailerrean, irudiez lagundutako hausnarketa. | IOSU LIZARRALDE



JOSETXO ARANTZABAL

Hauek ere Korrika egingo dute

Aurten, lehenengo aldiz, Angiozartik pasatuko da Korrika, eta hango auzotarrek hori jakin eta segituan erabaki zuen auzoko Guraso Elkarteak batzordea sortzeko ahalegina egitea. Pentsatu eta egin: joan den egubakoitz ilunkaran egin zuten lehenengo batzarra, eta auzoko saloian elkartu ziren hainbat guraso eta ume. Euren zeregina izango da Korrika ailegatzeko denerako auzoa girotzea. Animo!

Feminismoaren gaineko ikastaroa 15ean hasiko da

L.K. | ARRASATE

Euskal Herriko mugimendu feministaren historia eta teoriara hurbiltzeko ikastaroa antolatu du Arrasateko Emakume Txokoak, eta izena ematera animatzen du, hilaren 15ean hasten da-eta. Otsailaren 15ean, 22an eta martxoaren 1ean izango dira jardunaldiak (17:30-20:30). Mugimendu feminista hobeto ezagutzea eta, batez ere, Euskal Herrian izan duen historia eta garapena ezagutzea; feminismoa ulertzeko modu eta jarrera desberdinak; eta feminismoak ekarri duena, horiek dira landuko dituzten alderdiak.

Erakusketa eta bideo emanaldia Sahararen alde

Erakusketa hilaren 28ra arte egongo da zabalik; 'El problema' dokumentala hilaren 22an eskainiko da

MIREN ARREGI | ARETXABALETA
Iesbaa elkarteak eta Aretxabale-
tako kultura etxeak antolatuta,
Saharako herriaren aldeko ekimen
bi izango dira herrian otsailen:
batetik, *Hodeien seme-alabak* dela-
ko erakusketa dago ikusgai Arku-
pen, hilaren 28ra arte; gainera,
Iesbaa antolatuta, otsailaren
22an, *El problema* izenburua duen
dokumentwala eskainiko da.
Ekimen biek ala biek herritar-
ren sentsibilizazioa dute helbu-
ru, eta, hala, herrialdean bizi
izaten ari diren egoera gogorra
agerian ipintzen saiatuko dira,
Iesbaatik adierazi digutenez. Era-
kusetaren eta bideo emanaldia-
ren bitartez erakutsiko dute Saha-

rako egoera politikoki zer-nolakoa
den, eta baita giza eskubideei
dagokienez ere.
Hodeien seme-alabak erakus-
keta Afaprebesarekin, Saharako
Preso eta Desagertuen Senitarte-
koen Elkartearekin eta Euskal
Fondoarekin elkarlanean antola-
tu dute. Saharako lurralde osoan,
giza eskubideak nola urratzen
diren azaltzen dute panelen bitar-
tez, baina ez hori bakarrik, gataz-
karen sorrera eta testuinguru
politikoa ere azaltzen baitira.
Otsailaren 28ra arte dago zaba-
lik erakusketa: 11:00etatik 13:00e-
tara eta 18:00etatik 20:00etara,
astelehenetik egubakoitzera; eta
goizez, zapatuetan.

Mahai-ingurua
Otsailaren 22an, esan bezala,
Arkupeko Zاراia aretoan, 19:00e-
tan, *El problema* dokumentala
eskainiko dute. Pablo Vidal gali-
ziarrak eta Jordi Ferrer katala-
nak ekoiztutako dokumentala
da eta Saharako egoera azaltzen
dute bertan, giza eskubideen
ikuspegitik. Aurreikuspen guz-
tien arabera, dokumentalaren
zuzendariak Aretxabaletan izan-
go dira hilaren 22an, baita
nazioarteko zuzenbidean aditua
Juan Soroeta EHUko irakaslea
ere. Bideo emanaldiaren ostean,
gonbidatuekin eta hara joaten
diren herritarrekin mahai-ingu-
rua egongo da.



Panel bati begiratzen Arkupeko erakusketan. | JOSETXO ARANTZABAL

Enpresendako laguntza programa ezagutarazteko saioa dago asteon Eibarren

Krisiaren aurkako 2011ko planean jasotzen diren laguntzen berri emango da jardunaldi horretan

M.B. | BERGARA
Gipuzkoako Diputazioak hiru
saio informatibo antolatu ditu
datozen egunotarako, krisiaren
aurkako 2011ko planean jasotzen
diren laguntza programak enpre-
sei ezagutarazteko. Debagoien-
darrek egubakoitzean, otsailak
11, Eibarren, Debegesan, egingo
den jardunaldian parte hartzeko
aukera izango dute.
Diputaziotik jakinarazi dute
komeni dela asistentzia berrestea.

Horretarako bi bide daude: 943
11 23 42 edo 943 11 29 17 telefono
zenbakira deituta, bata; e-postaz,
krisiarenplana@gipuzkoa.net
helbidera idatzita, bestea.
Hizlari asko
Saioak bi ordu eta erdi inguru
iraungo du, eta denbora tarte
horretan hainbat hizlarik hartu-
ko dute parte. Jardunaldia 09:30ean
hasiko da Gipuzkoako diputatu
nagusi Markel Olanok egingo

duen krisiaren aurkako 2011ko
planaren aurkezpenarekin;
jarraian, Gipuzkoako fiskalita-
tearen analisisiaz eta bilakaeraz
jardungo du Ogasuneko foru dipu-
tatu Pello Gonzalezek. 10:00etan,
Ignazio Iragarrik, Gizarteratze
eta Enplegu Zerbitzuko buruak,
kolektibo behartsuak lan esparruan
sartzearen gainean egingo du berba;
horren ostean, diputa-
tu nagusiaren kabineteko buru
Ander Artzelusek enpresen balioez
eta hausnarketa prozesuez hitz
egingo du.
Azkenik, 10:45ean, berrikun-
tza, gazte kualifikatuen kontra-
tazioa eta internalizazioa azter-
tuko dute parte-hartzaileek,
Berrikuntzaren eta Jakintzaren
Sustapeneko zerbitzuburu Jose-
ba Amondarainen eskutik. Saioa
amaitu aurretik, eskariak eta
galderak egiteko tarte zabaldu-
ko da.

Alberto Pradilla | 'El judío errado' liburuaren egilea

"Israelgo gizartea nolakoa den azaltzen saiatu naiz, dituen kontraesanekin"

Alberto Pradillak liburua aurkezteko hitzaldia egingo du bihar Kulturaten, 19:00etan

MIRIAN BITERI | BERGARA
Bihar, martitzena, *El judío erra-
do* liburuaren aurkezpena izan-
go da Arrasateko Kulturaten,
19:00etan. *Gara*-ko kazetari
Martxelo Diazekin batera, libu-
ru horren idazle eta *freelance*
kazetari Alberto Pradilla izan-
go da ekitaldian.
**Zer kontatzen duzu *El judío erra-
do* liburuan?**

Israelgo gizartearen errealitatea
jasotzen saiatu naiz, lehenengo
pertsona kronika bat eginda.
Palestina eta Israel arteko gataz-
kaz berba egiten dugunean, beti
palestinarrengan arreta jartze-
ko joera dugu; hain justu ere,
kolpatutako aldea. Ez dugu
gatazka sortu zuen Israeli buruz
hitz egiteko joerarik. Hortaz,
gizarte hori nolakoa den azaltzen
saiatzen naiz, dituen kontrae-
sanekin.
**Horretarako, israeldarrak ezagu-
tu beharko dira...**
Hala da. Azken bi urteotan,
hamar hilabetez egon naiz han
bizi izaten, eta gatazkaren berri
eman dut hainbat hedabidetan,
hala nola *Gara*-n, Noticias tal-
dean eta Euskadi Irratian.
Ramalan eta Jerusalem bizi
izan naiz eta *El judío errado*
esperientzia horren ondorioa
da; kaleko errealitatea ezagu-
tarazten dut, askotariko herri-
tarrei hitza emanda.
Nolakoa da hango gizartea?
Oso konplexua; zatituta dago,
guztiz. Oso ezberdinak diren
herrialdeetako immigrazio-bo-
ladekin osatu den gizartea da.
Egun, Palestinarekin duten
gatazka da gizarte hori batzen
duen arrazoi bakarra; hori eta



Liburuaren idazlea. | ALBERTO PRADILLA

gaur egun Israel deitzen dugu-
na eta herrialde okupatuak Israel
handia osatzen duten sinesme-
na.
Irudi modernoak saltzen saia-
tzen dira, baina erlijioak izu-
garrizko pisua dauka. Gizarte
arrazista da, eta, esan bezala,
kontraesanez beteta dago.
**Horretaz guztiaz hitz egingo duzu
biharko hitzaldian?**
Bai, hala da. Liburuan azaltzen
diren hainbat pertsonaiaren
adibideak jarriko ditut gizarte
horri buruzko azalpenak ema-
teko. Horrez gain, Martxelo
Diaz izango dut ondoan. Euskal
Herria Palestina Sareaz hitz
egingo digu Diazek. Azken
finean, helarazi nahi dugun
mezua da kanpotik Israeli boi-
kota egin behar zaiola.
**"Helarazi nahi
dugun mezua da
Israeli boikota egin
behar zaiola"**

Korrika 17 antolatzeko batzordeak lanean dabiltza Debagoienean

M.B. | ANTZUOLA
Korrika 17rako prestakuntzek
aurrera dihardute. Antzuolan
bihar, martitzena, Torresoroan
izango da bigarren batzarra,
19:00etan. Besteak beste, kilo-
metro salmentaren nondik
norakoez, ekintzez, parte-har-
tzeaz eta egitarauaz jardungo
dute. Antolatzailiek gogora-
razi dute herriko elkarte guz-
tiak, lantegiak, Udala eta nahi
duen norbanako guztiak gon-
bidatuta daudela.
Egun eta ordu berean,
batzordea osatzeko batzarra
egingo dute Eskoriatzako kul-
tura etxean. Korrikari buruz-
ko azalpenak emango dizkie-
te joaten direnei, eta Korrika

Kulturalaz berba egiteko eta
egin beharreko hainbat lantxo
banatzeko aprobetxatuko
dute.
Bestalde, Oñatin bigarren
batzarra egingo dute hilaren
16an, kultura etxean, 18:30ean.
Korrika Kulturala eta Korri-
ka Txikia landuko dituzte
bilkura horretan. Lehenen-
goaren harira, herriko kultu-
ra taldeei batzarretan parte
hartzeko dei berezia egin die-
te. Korrika txikiari dagokio-
nez, eguna eta ordua adostu
zituzten lehengo batzarrean
batutakoek. Apirilaren 13an,
14:30etik 16:30ra egingo da.
Gai horri jarraipena egingo
diote.

Bidezko merkataritzaren gaineko 'on line' ikastaroa antolatu dute

- Otsailaren 14tik 25era eman daiteke izena doakoa den ikastaroan
- Euskaraz egingo dute eta ariketa dinamikoz osatuta egongo da

MIRIAN BITERI | BERGARA

Gipuzkoako Caritasek, Kitzin dendarekin eta Emausekin elkar-lanean, bidezko merkataritzari buruzko prestakuntza *on line* jasotzeko ikastaroa antolatu du. Matrikulazio epea otsailaren 14an zabalduko da eta hilaren 25era arte iraungo du. Interesatuak 943 44 07 44 telefono zenbakira deitu beharko dute, edo iezeiza@caritasgi.org helbidera idatzi. Ikastaroa martxoaren 7an hasiko da, eta apirilaren 16an amaitu. Bestalde, doakoa da, eta euskaraz.

Bertan, bidezko merkataritzaren jatorri, ibilbide eta funtsezko oinarriak buruzko ikuspegi eskainiko dute. Antolatzaileen esanetan, prestakuntzaren bidez bidezko merkataritzaren gainean hausnarketa gunea sortu nahi dute.

Ikus-entzunezkoa eta Internet

Ikastaroa Internet bidez izango da eta ariketa dinamikoak egingo dira, ikasleek kontzeptuak erraz barnera ditzaten. Esaterako, hainbat ikus-entzunezko eskainiko dituzte, foroan Mexikoko komunitate bateko emakume batekin hitz egiteko aukera izango dute eta bidezko merkataritzarekin lotuta dauden webgune ezberdinak bisitatuko dituzte.



Arrasateko Harreman dendan krisia igarri badute ere, betiko produktuak ondo saltzen dira. | MIRIAN BITERI

Parte-hartzaileek ordenagailua, Interneteko sarbidea, Interneten oinarriak ezagutzea eta helbide elektronikoa izan behar dituztela jakinarazi dute antolatzaileek. Bestalde, lau gai nagusi jorratuko dituzte 20 orduko iraupena duen

ikastaroan: lehenik eta behin, bidezko merkataritzaren definizio eta ibilbideaz jardungo dute; bigarrenik, gaur egungo erakunde eta sareak eta gai horren gainean dauden ziurtagiriak aztertuko dituzte; hirugarrenik, elikadura

subiranotasunaz, kontsumo arduratsuz eta bidezko merkataritzaz egingo dute berba; eta azkenik, ekonomia solidarioa, generoa eta bidezko merkataritza ekonomia-aren tresna bezala erabiltzeaz jardungo dute.

Tailerrak eta denda

Aipatutako ikastaroa, esan bezala, Internet bidezkoa da. Bada, Debagoiengan ere horren gaineko ikastaroak egiten ditu Harreman dendak; bailarako gobernu kanpoko bederatzi erakunde osatzen dute hori. Umeendako tailerrak ematen dituzte bailarako ikastetxeetan; gehienetan, Bigarren Hezkuntza neska-mutikoei. Modu samurrean azaltzen diete bidezko merkataritzaren kontzeptua, umeendako erakargarriak diren produktuak erabilita.

Horrekin batera, Harreman bidezko merkataritzako denda dute Arrasaten, Musakolako Hiper Eroskin. Hango langile Luzma Rojasek jakinarazi digu krisiak eragina izan duela salmentetan. Horren harira, aipatu du behera egin dutela oparien salmentek: "Kopuru aldetik, bezeroak mantentzen ditugu eta baita salmentak ere. Betiko produktuak oso ondo saldu ziren joan den urtean; salmentak igo egin zirela ere esan dezakegu; bada, igarri dugu jendeak orain ez duela oparietan horrenbeste gastatzen. Artisautza asko saltzen zen lehen; orain, jakiak oparitzen dira gehiago". Rojasek, dena dela, gaineratu du krisia ez dela joan den urteko kontua, eta 2009an hasi zirela hori igartzen.

Txokolatea, azukrea eta kafea

Gehien saltzen diren produktuei dagokienez, Rojasek esan digu txokolateek, azukre beltzak, askotariko kafeek, pastak eta eztiak oso harrera ona dutela. Erosleen harira, azaldu du denetarik sartzen dela Musakolako merkataritzaguneko dendan: "Bikote gazteak, emakumeak eta baita erretiratuta dauden gizon asko ere. Alde horretatik, ez dago inongo berezitasunik".

Debagoieneko enpresak martxoko Ferroforma azokan

Azbe, Goizper, Osintxu Mecanizados, Tesa eta Union Cerrajerak eman dute izena, besteak beste

M.B. | BERGARA

Martxoaren 23tik 25ra bitartean, burdinaria arloko nazioarteko Ferroforma-Bricofoma 2011 azoka egingo dute Barakaldon, Bilbao Exhibition Centerren (BEC). Ohikoa den moduan, Debagoieneko hainbat enpresaren eskaintza ikusteko aukera egongo da. Dagoeneko, besteak beste, Azbe, Goizper, Osintxu Mecanizados, Tesa, Jaz eta Union Cerrajera enpresek eman dute izena.

Azokak burdinazko erremin-ten eta brikolajearen alorreko eskaintza osatuena eskainiko du lau egunez; burdinaria-ekoizpe-naren negozio-aukera guztiak eta informazio, hornikuntza eta zerbitzu behar guztiak topatuko dituzte hara joaten direnek. Parte-hartzaile asko ingurukoak badira ere, Ferroformara, dena

den, munduko lau bazterretatik doaz herritarrak: ekoizleak, banatzaileak, saltzaileak eta baita erabiltzaileak ere.

Jardunaldiak

Espainiako burdindegia handienak batuko dira han, eta nobedade eta negozio aukera berriak eskainiko dituzte. Horrez gain, logistika eta burdinaria zein eragin-kortasun falta eta sektore arteko komunikazio aurrezpenen gaineko jardunaldiak egingo dituzte egun horietan.

Tailer eta lehiaketa bi ere izango dira: ibilgailuak konpontzeko tailerrentzako burdinaria tresnei eta bestelako produktuei buruzkoa, bata; eta instalazioko profesionalentzako burdinaria tresnen eta bestelako produktuen gainekoa, bestea.

Aurtengoa ere ekitaldi zaila izango dela diote Kutxan

Erakundeak 2011. urterako kudeaketa plana aurkeztu du Kutxako 400 ordezkariaren aurrean

M.B. | BERGARA

Kutxak 2011. urterako kudeaketa plana aurkeztu zuen joan den astean. Aurtengoa aurreko ekitaldiak bezain zail datorrela aurreratu zuen Fernando Martinez-Jorcana zuzendari nagusiak, eta zailtasunetako batzuk larriagotu egingo direla gaineratu zuen.

Kutxa finkatuta dagoen erkidegoetatik etorritako 400 bat zuzendariren aurrean egin zituen zuzendari nagusiak esandako adierazpenak.

Horren harira, erakundeko presidente Xabier Iturbek gogotatu bat egin zuen: sinplifikazioa, eraginkortasuna, saneatzea, zuhurtzia, arriskuaren kontrola eta emaitza errepikariak ziurtatuz, "krisialdia bakarrik igarotzea lortu" dutela esan

zuen. Dena dela, aipatu zuen ikusi egin beharko dela "ea aurtun baldintzak" ematen diren euskal kutxen arteko bategiterako.

Bi motatako mezuak

Horri lotuta, bi motatako mezuak eman zituen presidenteak. Bate-tik, Kutxa "bakarrik" dagoela berretsi zuen: "Ez gaude inoren mendean; geuk erabakiko dugu", esan zuen. Baina, aldi berean, honakoa ere nabarmendu nahi izan zuen: "Gu apustu bat egiteko gertu gaude".

Kutxak urte honetarako duen helburuari dagokionez, "kaudimen, likidezia eta irabazietan kutxa hobea lortzea" dela esan zuen. Horren harira, azpimarratu zuen nortasun ezaugarri horiei eutsi beharra dagoela.

Ingurumen araudia duen webgunea

M.B. | BERGARA

Adegik ingurumenari buruzko legedian sarbide samurra ahalbideratzen duen webgunea jarri du martxan. Adegiren webguneko (www.adei.es) *Ingurumena* atalean dute enpresa interesatuak gai horren gaineko informazioa. Arloko dago egituratuta, eta Gipuzkoako industria arlo esanguratsuenen ingurumen aspektuen identifikazioa du. Arlo horretan legeak eskatzen dituen baldintzen gaineko fitxak ere baditu.

Bestalde, enpresen errealitatea ezagutarazten duen Berindu programak Gipuzkoako 100 irakasle eta 50 ikasle inguru izan zituen joan den urtean. Mondragon Taldeko Eroski eta Danobat enpresek hartu zuten parte, besteak beste, ekimenean.



Jesus Maria Mongelos Debagoieneko Ospitalaren atarian. | LANDER MUÑAGORRI

Jesus Maria Mongelos | Debagoieneko Ospitaleko mediku zuzendaria

"Minbiziari aurre egiteko promozioa eta prebentzioa da eraginkorra"

- Medikuntza garatzen ari bada ere, analisiak egitea aholkatzen du Mongelosek
- EAEn minbizia era goiztiarrean antzemateko kanpainak aspalditik egiten dira

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

Egubakoitzean minbiziaren aurkako nazioarteko eguna ospatu zen. Egunarekin batera, minbiziaren aurkako hainbat elkarte gaixotasun hau estigma bihur ez dadin kanpaina bat gizarteratu zuten. Askotan minbiziari izaera negatiboa ematen omen zaio, kontuan izan gabe gaixoen erdiak inguru sendatu egiten direla. Minbiziari eta gizartean duen eraginari buruz hitz egin digu Jesus Maria Mongelos Debagoieneko Ospitaleko mediku zuzendaria. Bere ustez, antzemate goiztiarrean dago minbiziari aurre egiteko giltza.

Minbiziaren aurkako nazioarteko eguna ospatzeak zertarako balio dezake?

Era honetako egunen helburua gizarteari arazo baten gainean kontzientzia sorraraztea da. Aipatu behar da minbizia dela heriotza gehien eragiten dituen gaixotasuna gizonezkoen artean, eta bigarren mailan legoke emakumezkoen kasuan. Hori guztia kontuan izanda, kontzientziazioa garrantzitsua da oso. Hori dela eta, Euskal Autonomi Erkidegoan Osasun sailak minbiziaren inguruan hainbat ekintza puntu dauzka. Horien artean punturik garrantzitsuenak preben-

tzioa eta promozioa dira. Minbizia eragiten duten arrazoi nagusien artean, argi dago kanpoko arrazoiek zeresan garrantzitsua daukatela, eta hori saihesteko lan handia egin beharra daukagu.

Eta nola egin daiteke lan minbiziaren aurka?

Esan bezala, minbiziari aurre egiteko modu eraginkorra promozioa eta prebentzioa da. Guri promozio mailan lan egitea tokatzen zaigu. Hala nola, bizitzeko modu osasungarriak bultzatzea, eta horrekin zuzenean lotuta dago elikadura, tabakoa, bizitza osasungarria... Gainerako patologietan bezala, puntu hauek zeriku-

"Minbizia da heriotza gehien eragiten dituen gaixotasuna"

"2009az geroztik egiten dira antzemate goiztiarrak gurean"

si handia daukate gaixotasunarekin. Horretaz gain, antzemate goiztiarrean ere lan egin behar da, eta horretarako hainbat erakundek kanpainak egiten dituzte EAEn.

Antzemate goiztiar horiek nola egiten dira?

Osasuntsu dagoen biztanleriaren zatiari hainbat froga egiteko gomendioa luzatzen zaie, eta analitikak egitea proposatu. Bahe honetatik igarotzen direnetatik batzuetan, tumore jaioberri bat topa daiteke, eta horrek erraztu egiten du sendatze prozesua. Hori litzateke gaixotasuna prebenitzeko era on bat.

Gure bailaran halakorik ba al dago?

Bai, Debagoiena izan da azkena era honetako antzemate goiztiarrean parte hartzen. 2009. urtean hasi ginen Oñati eta inguruko herrietan era honetako kanpainak bultzatzen, eta etorkizuneko helburua litzateke bailara osora ere zabaltzea.

Eta hori ezinbestekoa izango da, ala?

Bai, minbizia garatuta dagoenean antzematen baldin bada, batzuetan beranduegi ere izan daiteke. Askotan tratamendua zailagoa eta agresiboagoa ere izan daiteke.

Eta jendearen aldetik zer nolako erantzuna jasotzen dute era honetako kanpainak?

Ona. Bularreko minbizia aurretik antzemateko garaian, emakumeen %80-90 ingurua etortzen dira analisiak egitera. Heste lodiarenak egitera ere jende ugari etortzen da. Azken hau gainera askoz ere errazagoa da egiteko, odolaren analisi bat besterik ez baita. Positiboa ateraz gero, kolonos kopia egiten zaio.

Aurtengo minbiziaren aurkako nazioarteko egunerako aurkeztu duten kanpaina, minbizia gaixotasun bat gehiago dela kontzientziatu nahi dute gizartea. Egokia iruditzen zaizu?

"Norbanakoak ekidin dezake minbizia hilkorra izatea"

"Bularreko minbizia antzemateko, emakumeen %90 etortzen dira"

Gizartea kontzientziatzeko balio baldin badu ongi dago. Gainera garrantzitsua da erakustea minbizia aurrez antzeman daitekeela. Norbanakoak ekidin dezake gaixotasun hau hilkorra izatea. Esaterako, tabakoaren aurkako kanpainak hein horretan zerikusi zuzena daukate.

Ez al zaizu iruditzen batzuetan minbizia estigma bezala tratatzen dela?

Ez, minbizian ez. Nik uste errespetu handia eduki dakiokela, baina estigma ez. Estigmatikoagoak diren gaixotasunak badaudela iruditzen zait. Egia da minbizia gaixotasun larria izan daitekeela, baina aurrez antzematea da garrantzitsua. Gure aldetik, antzemateari bakarrik ez diogu ematen garrantzia, minbiziak hor egoten jarraituko baitu, eta sendatzeko aukerak ere egongo dira.

Ez zaizu iruditzen askotan zentzu negatiboa ematen zaiola? Esaterako RAEk minbizia defintzerakoan konnotazio oso negatiboa ematen dio...

Minbizia, hasteko eta behin, ez da gauza xamurra. Zerbait negatiboa bezala ikusten da, eta orduan normala iruditzen zait bizitzako gainerako aspektuetan gauza txarren sinonimo bezala erabiltzea.

ZABALIK



OSKAR ELIZBURU
'http://goiena.net/iritzia/'

Euskara libre!

Euskararen Aholku Batzordea bildu zan egunian Lopezek esandakuak entzungo zenduzen. Aho bete hortz geratzeko modukuak; dana dala, euskaria eta indarkerixia lotzeko ahalegin barrixa besterik ez zan izan.

Euskaltzaleok lerro samarrak garen sentsaziñua eukitzen dot batzuetan; gauzak pentsatu eta sentitzen dittugun moduan esateko bildur garala emoten dau. Beste batzuek, ostera, argi eta garbi esaten dabez, iñungo erreparo barik; harrotasunez, esango neuke. Eta guk geuk sentitzen doguna plazaratzeko ordua be izango da ba!

Diñue Euskaria politikatik etara behar dala, danona izan behar dala, askatasunian erabaki behar dala ikastia eta erabiltzia, bakoitzaren esku... Irakurketia zelakua egitten dan arabera!

Euskaria politikatik etaratzia? Euskaria politikatik etara baiño, euskeriandako politikia beharko genduke: hizkuntz politika eraginkor bat. Euskaltzalia dan edonork egin behar leuke horren alde; hau da, politika egitterakuan euskaria normalizatzia helburu nagusien artian ipiñi. Pentsatzen dozue, benetan, horren alde argi eta garbi iñork egiten dabela? Lehentasun osoz norbaitek jarri dabela bere programan, gero eraginkortasunez betetzeko?

Euskaria politikara ekarriko balitz, daukan garrantzia emon ezker, gizarte kohesiñorako baldintza izango litzake. Ikasteko eskubidia benetakua balitz, biztanle guztixok benetako ikasteko baldintzak eta aukera euki ezker – erderak bezala eta eskubide dalako –, libreki aukeratzeko eskubidia eukiko genduke.

Orain arteko hizkuntz politikek ez dabe gutxieneko baldintza hori bermatu: ez dabe mailla berian ipiñi euskaria, beti azpizan jardun dau, bigarren maillako.

Hortaz, bere lekuan ipiñi beharko genduke euskaria; politikaren erdigunian.

Egingo al dogu?

"Guk geuk sentitzen doguna plazaratzeko ordua be izango da ba!"

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | 'lzeberio@goiena.com'

Masifikazioa sagardotegietan

Hernani. Zapatua. Sagardotegia topera dago. Mahai punta baten daude sei lagun, nahiko estu. Bandeja bi ekarri dizkiete, bata bakailao tortillarekin eta bestea bakailao prijiuarekin. Jan eta upeletara joan dira txotx egitera. Itzuleran mahai gainean dute txuleta. Ederra. Berriz joan dira txotx egitera eta itzuleran, inork ezer esan gabe, mahai gainean dute postrea. Intxaurrak, menbrilloa eta gazta. "Nik okela gehiago janen nuke", aipatu du batek. Ez dute eskatu; formekin nahiko erreta daude eta ez da sagardotegi batean gertatzen zaien lehenengo aldia. Prezioa ere kontuan hartzekoa: 31 euro bakoitzak. Dudarik ez. Ondo aukeratu behar da sagardotegia.

KALE INKESTA

Hasi zara Aratusteetarako mozorroa prestatzen?



MILA
MADINABEITIA
OÑATI

"Ez dakit mozorrotuko naizen ere; aurren langabezia nago eta ez dut jantzirik erosi. Norbaitek uzten badit, agian mozorrotuko naiz".



ANDER
GARTZIA
OÑATI

"Azkeneko momentuan prestatzen dit mozorroa amak. Asko gustatzen zait egun hori eta koadrilakoekin batera irteten dut".



LOURDES
GRAÑA
OÑATI

"Ez naiz mozorrotuko. Alabak hartu zidan lekukoa eta egun horretako giroa ikusteko gustatu arren, ez dut gogorik janzteko".



AINHOA
MUGARTZA
OÑATI

"Beharbada pirata mozorrotuko naiz aita eta amarekin batera. Ikastolan ere mozorrotzen gara eta oso pozik ibiltzen naiz egun horretan".

HANDIK ETA HEMENDIK

laz disko asko... eta erdaraz

Gorka Bereziartua
http://argia.com/boligrafo-gorria/

Ezetz, ez dagoela krisirik diskogintzan, zenbat aldiz errepikatu behar dugu? Titulu pila argitaratzen da Euskal Herrian, sarean zabaltzen ari den GUREANDO!NU dokumentuak erakusten duen moduan. *Harrobia Lantzen*-ek eta *Entzun!*-ek elkarlanean osatu duten zerrendaren arabera, 300 diskotik gora kaleratu ziren 2010ean, 16 diskoetxeren bitartez, baina, batez ere, autoekoizpena ardatz hartuta. Pozteko datuak, baina... ez. Inaxio Esnaola kazetariak editorialean dioen legez, iazko urteak erdaraz kantatu baitzuen gehienbat.

Asko zabaltzen ari den joera. Eta bereziki kezagarria iruditzen zait hainbat taldek ingelesez kantatzeko egin duten hautua, baita erabili dituzten argudioak ere (ikus duela gutxi *Argia*-n publikatutako hiru elkarrizketak). Zenbait estilok ingelesez hobeto ematen dutela belarrira, hori da gehienetan errepikatzen dena. Baina joera orokortzen hasia denean,itsu

beharko genuke aukera estetikoak bakarrik ikusiko bagenu. Eta gor, fenomeno sozial zabalagoen oihartzuna ez bagenu entzungo.

Esango nuke faktore ugari ekarri gaituztela egoera honetara eta horien artean ez dela txikiena 1990eko hamarkadan ezker abertzalearen inguruan egituratu zen kontrakultura musikalak behera egin izana. Negu Gorriak buru zuen belaunaldiak asmatu zuen jatorri aniztasuna eta euskaltasuna elkartzen, militantzia uztarri. Mundu osoko musika estiloak nahastuz eta euskaraz kantatuz hainbat taldek lortu zuten, 1980ko urteetatik zetorren "punk vs. gizartea" eta "euskal herritar vs. espainiar" dikotomieie eustea; baina baita, Jacqueline Urla antropologoak dioen moduan, "euskara vs. estatuko hizkuntzak" dikotomia sortzea ere, eta oposizio sinboliko horren bidez munduko beste hainbat askapen borrokarekin zubi-lana egitea (Negu Gorriak-ek James Brownen "*say it loud, I'm black and I'm proud*" ezaguna "euskalduna naiz eta harro nago" bihurtzea izan liteke estrategia kultural horren erakusgarri nagusia).

[...] Adi, hala ere, euskara-estatuko hizkuntzak dikotomia planteatzen baitu Urlak, hau da, "euskara vs. espainola" eta "euskara vs. frantsesa"; eta azpimarratzen du Negu Gorriaken diskoak ez direla elebakarrak; ingelesak, besteak beste, leku garrantzitsua duela. Hau da: mezu politiko jakin baten inguruan artikulatu daitezkeen hizkuntzak erabili zituzten Abregok, Arkarazok, Kazalisek eta Muguruza anaiek.

[...] Musika jarduera garrantzitsua da, besteak beste, kantak entzunez osatzen dugulako pertsonok gure imaginarioa; eta ingurukoekin gure gustuak partekatuz ere eraikitzen da gizarte baten iruditeria amankomuna. Bestelako jarduera publikoetan bezala, euskaraz egote hutsak hizkuntza prestigiatzen du, posible dela erakusten du, ez dela ezinezkoa eskandinaviar kutsuko rock&rolla euskaraz egitea, ezta hip-hop, dub-a, grindcorea edo indie-a ere. Ingelesez eginda berriz, euskarak ematen du ez-gai, problema, izatekotan, hiztunena denean. Ez al gara kapaz gauza batzuk euskaraz egiteko? Saiatzen al gara?



KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Leire Kortabarria
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Zorritza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 1697-3542
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala




Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala




Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRTIZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako initzien erantzukizunik.

2011n atera etekina txartelari!

AQUARIUM Donostia, 943 440 099 Bi erosi eta bat ordaindu. (sarrera garestiena ordainduko da) 	AVIA MECA GASOLINDEGIA Arrasate, 943 791 339 -%2 erregaian. -%2 dendan. 	AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA Eskoriatza, 943 714 566 -%8 asteburuko egonaldietan. Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, txakolin botila bat opari (Mendraga). -%10 jatetxeko kartan. 	BARCELÓ BIDAIAK Arrasate, 943 797 011 Bergara, 943 760 843 1.000 eurotik gorako erosketekin "B Plana" OPARI (kontratatuaren arabera: asteburuko egonaldiak, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...) 
BEGIONDO OPTIKA Aretxabaleta, 943 799 821 -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan. 	GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA Eskoriatza, 943 714 341 -%50 lehenengo kontsultan. 	ESKO SPORT KIROL DENDA Eskoriatza, 943 715 296 -%10 produktu eta zerbitzu guztietan 	GAES ENTZUMEN ZENTROA Arrasate, 943 712 793 Bergara, 943 769 455 %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin) 
CLÍNICA DENTAL BERGARA Bergara 943 760 577 -%10 zerbitzu guztietan -%15 inplanteetan Aho-garbiketa doan, 120 eurotik gorako tratamenduetan. Bazkidearentzat eta familiako batentzat. 	IKER SUKALDEAK Arrasate, 943 790 043 Oñati, 943 533 548 Sukalde osoa erosit, mikrouhin-labea opari. 	LILURA EDERTZE INSTITUTUA Bergara, 943 763 171 -%15 laser depilazioan: hanka osoa+izterondoak (besapekoak opari). -%20 elikagai-intolerantzia proban. -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak -%10 fototerapia bidezko aknearentzako. Bazkidearentzat eta lagunarentzat 	MULTIOPTICAS Arrasate, 943 792 995 Bergara, 943 761 575 %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin) 
NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA Aretxabaleta, 943 082 189 -%15 zerbitzu guztietan 	RENAULT AUTOBERRI Arrasate, 943 712 472 -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa. -%25 pneumatikoetan Ordezkapeneko autoa, 20 euro. Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu. 	TXIKI ZOO Aretxabaleta, 943 795 115 -Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan. -%50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte) 	TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA Donostia, 943 464 400 Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia) -%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia) -%10 zubi eta oporraldietan. 
ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA Donostia, 943 012 478 %10 deskontua 	► Astelehenetan eta ostiraletan Goiena papera buzoian. ► Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan. ► Zozketa eta promozio berezietan parte hartzeko aukera. Eta klubeko kide zarenez, <i>Home Cinema</i> bat irabazteko aukera izango duzu otsailean!		

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Jabier Errasti | Eskoriatzako alkatea (1976-1979)

- Diktadura osteko lehen alkatea izan zen
- 1979tik 1983ra bitartean zinegotzi jardun zuen
- 30 urte egin barik zituela hartu zuen alkate kargua

"Ilusio handiko garaiak izan ziren, aldaketa etorriko zela uste zelako; aberasgarria izan zen"

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Diktadura ondorengo lehen alkatea izan zen Jabier Errasti, 1976tik 1979ra. Hurrengo agintaldian, 1979tik 1983ra bitartekoa, zinegotzi jardun zuen. Zazpi urte haietan bizi izandakoa gogorazi du eskoriatzarrak ondorengo lerrootan.

Nolatan Eskoriatzako alkate?

Franco hil ondoren, alkate izateko aukera egon zen. Eskoriatzan, Udal inguruan lehendik ere lanean ibilitako ezkerreko talde bat zegoen eta aukera hori aprobetxatu zen. Udalean zeuden zinegotziek aukeratzen zuten aurkeztutako alkategaien artean. Taldea aurkeztu zen eta niri egokitu zitzaidan. Baiezkoa eman nuen. Garai hartan alkate izan ahal izateko hautesleen %10 edo %15en sinadurak behar ziren; herritarren babesa jaso nuen.

Diktadura ondorengo lehen alkatea. Ez ziren garai onak izango...

Hala da. Ez ziren garai samurrak, eta, gainera, nik ez neukan inolako esperientziarik; 30 urte egin barik zituen mutikote bat nintzen. Dena berria zen eta kosta egiten zen. Dena dela, ez nuen inolako arazorik izan gainerako zinegotziekin, eta bailarako beste alkateen laguntasuna izan nuen. Apurka ikasten joan nintzen,

garai on eta txarrekin. Egoera oso ezberdina zen.

Nolako zen garaiko Eskoriatza?

Oraingo moduko herri txiki bat zen. Biztanle kopuruari dagokionez, antzera samar ibiliko zen; 3.600 biztanle inguru izango zituen. Baina baliabide aldetik oso ezberdina zen. Alkate sartu nintzenean, aurrekontua lau milioi pezeta zen; kargua utzi nuenean, uste dut 12 milioi inguru zela, eta zinegotzi moduan amaitzean, 50 milioi. Hor igartzen da diferentzia. Baliabide gehiago zeuden, eta, hortaz, proiektu gehiago garatzeko aukera. Garai latzak bizi izan genituen. Uholdeak egon ziren eta arazoak egon ziren errekarrekin. Konpon-

du egin genuen; gainera, lortu genuen gure moduko herri baten dako konponketa egin beharrean herri handietarako izango balitz bezala egitea.

Zeintzuk ziren behar nagusiak?

Dena zegoen egin barik, baina planeamendu aldetik gauza asko zegoen egiteke.

Zein izan zen martxan jarritako proiektu esanguratsuena?

San Pedro auzoa lotzeko bide bat egin zen. Lehen, kiroldegia zegoen tokitik igo beharra zegoen auzora. Bestetik, Aretxabaletara doan pasealekua dago; Eskoriatzarako oso ona izan dena eta arrakasta handia izan duena. Trenbidearen lurak erosi eta Eskoriatzatik



Jabier Errasti, udaletxe parean. | M.B.

Aretxabaletako mugaraino oinezkoendako paseoa egin genuen. Batzuek uste zuten horrelako zerbait luxua zela diru asko zelako, baina denborak erakutsi du erabilera handia izan duela.

Nola gogoratzen dituzu Udalean pasatako urte haiek?

Ilusio handiko garaiak izan ziren, gauzak aldatzeko gogo eta aldaketa etorriko zela uste zelako. Ez genekien zer-nolako aldaketa etorriko zen, baina hori bultzatzen egin genuen lan. Garai hartan ere Bergarako alkateen taldea sortu zen eta hor ere egon ginen.

Nola ikusten duzu gaur egungo Eskoriatza?

Egoera eta pertsonak ere oso ezberdinak dira. Baliabide gehiago daude, baina uste dut nik izan nuen babesa gaur egun ez dagoe-la. Gu ikastolatik gentozen, guraso talde bat ginen, eta garai hartan ezinbestekoa zen inplikazioa. Gaur egun hori galdu egin dela iruditzen zait, jendeak paso egiten du. Gogoratzen naiz alkate nintzela kultura etxea botatzeko plan bat egon zela; egun baten botatzera etorri ziren eta geratu egin zen herritarrek kalera irten zirelako. Egundak bakar samar dabilzala uste dut.



Zenegotzia zela pilotaleku estalia inaguratu zen, 1981n. | ESKORIATZAKO UDAL ARTXIBOA

"Aurrekontua lau milioi pezeta zen alkate sartu nintzenean"

"Aretxabaletako mugaraino pasealekua egin genuen"

MAGAZINEA

GOIENA TELEBISTA | GOIENA MAGAZINEA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 19:45 | ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA



HERRIAK

ANTZUOLA

Eskolako jolaslekuan aterpea hartuta, euriak gutxiago kezkatzen ditu orain herritarrak

Duela bi hilabete inauguratu zuten ikastetxeko patioa aterpea eta oso pozik daude

GOIATZ ARANA | ANTZUOLA
Antzuolarrek lehen baino gutxiago begiratzen dute orain zerura eta egun bustiek ez dituzte lehen adina kezkatzen. Horrek badu azalpena: eskolako jolaslekua estali egin dutela. Azaroaren 26an inauguratu zuten aterpea eta ordutik hona askotariko erabilerara eman diote. Umeek erabiltzen dute, gehienbat, futboleko egiteko, eskubaloian, saskibaloian... edo, beste barik, jolasteko; orduak ematen dituzte bertan. Lehen, euria egiten zuen egunetan, frontoira joaten ziren, baina eskolatik irtendakoan jende asko batzen zen bertan eta ez zen pilotarekin ibiltzeko lekurik aproposena; horregatik, gozatu egiten dute orain eskolako patioan.

Haurrek ez ezik, helduek ere jotzen dute bertara iluntzeetan, partiduren bat edo beste jokatzera, eta bestelako ekintzetarako ere primeran dator: abenduaren 24an euria egin zuen eta bertan ospatu zuten Olentzero eta Mari Domingiren etorrera; 24 orduko areto futbol txapelketa antolatuz gero, bertan egingo litzateke; eskola kirolerako ere aukera berriak zabaltzen ditu; hileta zibilak egiteko toki moduan onartuta dago... Patxi Olabarria Kultura zinegotziak balorazio positiboa egin du: "Frontoia oso itxia geratzen da; aldiz, eskolako jolaslekua irekia eta estalia da aldi berean. Jendea gustura sumatu dugu". Eta ildo beretik mintzatu da Andoni Azkargorta Kirol zinegotzia ere: "Gabezia bat bazegoen herrian eta irtenbide ona eman diogu. Ordu-ro dago norbait".



Mutil koadrila hori futbol partidua jokatzen harrapatu genuen eguazten arratsaldean; frontoian baloiarekin ibiltzea debekatuta geratu da. | G.A.

Erabilera arautua

Asko erabiltzen dela ikusirik, eta arazoak ebitatzeko, araudi bat prestatu dute: 19:00ak arte 12 urtetik beherakoek izango dute lehentasuna eta 19:00etatik aurrera erabilera librea izango da, erreserbak egiteko aukerarekin. Erabilera ez da kirolera mugatuko, ordea; litekeena da erretiratuen

bazkariak eta kultura ikuskizunak bertan egitea aurrerantzean. Kirolerako batzordeak prestatu du erabileraren gaineko araudia, eta Kultura Saileko eta ikastetxeko ordezkariak ere esku hartu dute bileretan. Eguazten honetan, otsailak 9, 18:00etan, egingo den osoko bilkuran onartuko dute araudia.

Herri eskolan, erosoago

Balorazio oso ona egin du herri eskolako zuzendari Pantxike Arinek: "Orain arte estalitako oso eremu txikia genuen, eta honek eskolaren behar guztiak asetzen ditu: aisialdirako —atseden orduetan— eta heziketa fisikorako —frontoira joan beharrik ez—. Guztiz itxia izatea baino hobeto dago horrela; pena bakarra, ilun samarra dela".



ELENE BAZTARRIKA

"Gustura gaude aterpe berriarekin; euria egiten duenean, futboleko jokatzera etortzen gara. Lehen, frontoira joaten ginen, baina ez zegoen horretarako prestatuta, jende gehiegi batzen zen... Hemen hotz egiten du, baina ondo jantzi eta kito".



ANE CABRERA

"Frontoian baino lasaiago jokatzen dugu futboleko eskolako jolastokian, eta aterpearekin oso ondo geratu da. Lehen, egun bustietan, non egonik ia ez-eta, nahi baino lehenago erretiratzen ginen maiz: orain, ordu gehiago ematen ditugu kalean".



IZAR URTEAGA

"Orduak ematen ditugu hemen eta orain ere bertan gaude, semea futboleko dabil lagunekin eta... baina aterpean gaudenez, gustura; gogoan ditut etxera blai eginda bueltatu diren egunak. Umeei zein helduei, aukera asko ematen dizkigu jolasleku estaliak. ".



MIKEL GARTZIA

"Neskak futbolerako entrenatzen nabil; normalean, Estalan egiten dugu saioa, baina gaur, jende asko zegoenez, hona etorri gara. Erosoa da guretzat: futbol zelaia han goian dago eta irekia da; hau berriz, herrigunean dago eta aterpea du".



XABIER SANSEBASTIAN

"Bazegoen beharra eta jende asko ibiltzen da, baina hotz galanta egiten du hor barruan eta oso iluna da; neguan argiak pizten dituzte 17:30 ingururako. Akats hori du, nire ustez; askoz hobeto legoke sabaitik argi naturala sartzeko aukerarekin".

goienakluba

Abantailaz betetako kluba!

URTARRILEKO IRABAZLEAK

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

IRABAZLEA

**LIBURU
SORTA BAT**
Pamiela etxearen
liburu sorta bat



**Joxe Mari
Muxika
Arrieta**
Arrasate

IRABAZLEA

**UMEENTZAKO
PUZZLEA**
Umeentzako
puzlea



**Karmele
Korta
Mendiguren**
Arrasate

IRABAZLEA

**REALEKO
MATERIALA**
Realeko motxila eta
bufanda bat



**Izar
Ijorra
Goñi**
Arrasate

IRABAZLEA

**ERREMEIXUAK
DVD-A**
Erremeixuen
DVD-a.



**Aitziber
Astola
Elortza**
Arrasate

IRABAZLEA

**EUSKAL SELEKZIOKO
ZIRA**
Euskal Selekzioko
zira



**Josune
Lopez
de Bergara**
Arrasate

AZAROA-URTARRILA SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATU DA

26 HAZBETEKO TELEBISTA

**Eusebio
Errasti
Amozarrain**
Arrasate



Erguingo gazte txokoa bildu ziren gazteak, Arrillaga eta Zelaieta bertsolariei entzuten. | TXATXILIPURDI

ARRASATE

Adar-jotzeak nagusi Erguingo gazte txokoko bertso afarian

Bertso afari arrunta ez izan arren, ederki moldatu ziren bi bertsolariak

USOA AGIRRE | ARRASATE

Bertso afari berezia egin zuten joan den zapatuan Erguingo gazte txokoa: alkoholik gabeko bertso afaria. Bertsoak gustuko dituzten 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoei egin zieten afarirako deia eta 25 lagun elkartu ziren mahaiaren bueltan.

Mikel Arrillaga eta Felipe Zelaieta eibartarrak izan ziren

bertsotan. Hasieran arduratuta zeuden horrelako entzuleen aurrean bertsotan ez zeudelako ohituta, baina bertaratutako guztiak poltsikoratu zituzten.

Aratusteetarako mozorroa

Gazte txokoetako hezitzaileak izan ziren gaiak jartzen. Gai baterako, bakoitzari hiru objektu banatu zizkieten. Arrillagari

ileorde bat, zilarrezko papera eta azukrea eman zizkieten; Zelaietari, berriz, kasko bat, zelaia eta ketchup. Objektu horiekin mozorroak egin behar izan zituzten eta barre-algara handiak eragin zituzten.

Aulkitik jaiki eta *segidilla*n bertsotan ere aritu ziren, afari-ko guztiei adarra jotzen. Ez zuten inor laga txisterik egin gabe.



BERGARA

USOA AGIRRE

Dantza eta musikarekin, agur San Blasei

Atzo, domeka, jende ugari hurbildu zen Murinondo auzora San Blas jaien azken txanpako ekitaldiak ikustera. Meza egon zen goizean eta ondoren ikuskizuna eskaini zuten Moises Azpiazu dantza taldeko 20 neska-mutikok: fandangoa eta arin-arina, Lantzeko inauteria, kontradantza eta aureskua egin zituzten. Ederki egin zuten dantza gaztetxoek, euren gurasoak argazki- eta bideo-kamerekin irudiak hartzen zituzten bitartean. Bertaratutako denei salda eskaini zieten auzotarrek, eta trikitilariak lagun, giro aparta egon zen. Jaiei bukaera emateko Saralegi eta Etxeberria harri-jasotzaileek erakustaldia egin zuten.

ESKORIATZA

Adin askotako kintoak elkartu ziren

I. Kintto Eguna ospatu eta herria girotzeko

Aurtengo kintoez gain, beste urteetakoak ere aritu ziren zapatuan herria girotzen

USOA AGIRRE | ARRASATE

Aurtengo Santa Agedako ospakizunetan izan da berrikuntza bat: Kintto Eguna. Santa Ageda egunaren bueltan kintoek elkartzeko eta batera afaltzeko ohitura izan dute urtetan eta, aurtengoa, herria girotzea erabaki dute. Zapatua izan zen horretarako eguna. Hala, eguerdian adin askotako kintoak elkartu ziren plazan Kintto Egunari hasiera emateko. 1993an jaiotakoak dira aurtengo kintoak eta horiek izan ziren gazteenak; zaharrenak, berriz, 1983an jaiotakoak ikusi genituen, baina seguru zaharragorik ere elkartuko zitzaieala beranduago. Eguerdiko 12:30ean zuten hitzordua egin plazan, baina 13:00ak aldera hasi ziren adin ezberdinetako kintoak agertzen. Batzuk beraien jaiotze-urtea jartzen zuen zapi zuria lepoan jarrita, beste batzuk koardorun zapiarekin eta beste asko zapiarik gabe; baina guztiak festarako gogoz. Han ziren aurtengo kintoak ere, zuri eta gorri zintzita. Trikitilariak lagun, tabernaz taberna poteoa egin zuten herria eta barruak berotzeko asmoz.

Aurtengo kintoak kantuan ere entzun genituen. Egubakoitzean egun osoa pasa zuten auzoz auzo eta baserriz baserri kantuan, eta zapatu goizean herrigunean aritu ziren, kalez kale eta etxez etxe. Beste adinetako kintoekin elkartzeko plazara iritsi zirenean

Santa Ageda bezperako kanta abestu zuten, ezarri urratuarekin. Izan ere, hainbeste orduz kantuan ibili eta gero ez da erraza ezarria ondo izatea. Abestu eta gero, ohikoa den moduan, dirua batzeko txapela pasa zuten plazan bilduta zegoen jendearen artean. Nagore Beloki aurtengo kintoetako batek esan zigunez, diru asko batu zuten bi egunetan.

Bazkaria kintoekin

Aspaldiko urteetan ohitura da herrian Santa Ageda inguruko zapatuan afaria egitea norberaren kintoekin batera. Aurtengoan, baina, gazteek bazkaria egiteko dei egin zuten. Triki-poteoarekin herria girotu ondoren bakaltzera joan ziren adin askotako kintoak, bakoitza bere aldetik.

Bazkalostean ere ez zen girorik falta izan Eskoriatzan. Eguerditik kalean zebiltzan kintoei beste adin batzuetako kintoak elkartu zitzaizkien eta festa handitu egin zen. Eguraldia lagun, jende ugari bildu zen aurtengo kintoek plazan egin zuten dantzaldia ikustera eta eguna boro-biltzeko, afariak egin zituzten lagunartean.

Orain urte asko ez dela kinto askoren burukomina zen soldaduskara joan beharra. Gaur egun, zorionez, ez dago horrelakorik, baina burukomina seguru izango zutela askok, biharamunean.



Adin askotariko kintoak plazan, triki-poteoarekin hasi aurretik. | JOSETXO ARANTZABAL



NAGORE BELOKI
2011KO KINTOA

"Bi egun daramagu kantuan eta ezarria urratuta daukagu, baina oso ondo pasa dugu. Diru asko lortu dugu, eta bazkariak eta afariak ordainduko ditugu. Kintada ezberdinak batuta giro ona sortu herrian".



NEREA HERNANDEZ
2004KO KINTOA

"Geroz eta jende gutxiago daude kintadetan eta geroz eta gazteagoak dira, gu zahartzen ari gara-eta! Hala ere ez da asko aldatu, guk egiten genuen gauza bera egiten dute: festa eta festa".



ASIER GABILONDO
1992KO KINTOA

"Gure kintadako oroitzapen oso ona daukat. Gaur egun iruditzen zait ez dutela euren partetik asko jartzen. Dirua eskatzea ondo dago, baina kanta deztela ondo, herrian giroa jarri eta ezer ez apurtu".

ARETXABALETA

Plaza jendez beteta zela egin zuten urteko lehen dantzaldia kintoek

U.A. | ARETXABALETA

Ohitura denez, Santa Ageda bezperan hasi zituzten kintoek ospakizunak. 1992an jaiotako 60 bat aretxabaletar egubakoitzean auzoetan ibili ziren koplak abestu eta eskean, eta zapatuan kalean

egin zuten erronda. Zapatu ilun-keran, dantza saioa egin zuten plazan, herritarren aurrean.

Ikusmina

Urtero moduan, ikusmin handia piztu zuen Santa Ageda neska-

mutilen dantza saioak eta plaza jendez beteta zela egin behar izan zuten dantza. Familiartekoak, lagunak eta herritarrek begira-begira zituztela egin zituzten desafioa, soka-dantza eta aurrekua. Bukaerako fandango eta arin-arina dantzatzeko ikusleen laguntza izan zuten kintoek.

Datozen domeka guztietan egingo dute dantzaldia plazan, Aratuste-domekara bitartean.



LEIRE ZUBILLAGA
ARETXABALETA

"Oso ondo egin dute dantza Santa Ageda neska-mutilek eta oso polita izan da. 13 urte ditut eta bost urte barru egin beharko dut nik ere dantza. Gustura egingo nuke dantza plazan, gainerako kintoekin batera".



EIDER LUENGO
ARETXABALETA

"Gustatu zait dantza, baina mutilek ez dute oso ondo egin dantza. Beti etortzen naiz ikustera eta urteroko moduan egin dute. Aurreko urtekoekin parekatuta ez da alde handirik egon".



ALAITZ ELORTZA
ARETXABALETA

"Aspaldiko partez dantza oso ondo egin dute eta abesten ere ganoraz ibili dira goizean. Beti dago ezagunen bat kintoen artean eta ikusmin handia sortzen du dantza-saioak herrian".



Santa Ageda neska bat soka-dantzako une batean. | JOSETXO ARANTZABAL

Apraitz (EAJ) ez eta Etxeberria (Aralar) eta Lamarain (PP) bai

- Alderdi politikoak hasi dira hauteskundeetarako zerrendak osatzen
- Gehienek, baina, oraindik ez dituzte erabaki edo jakinarazi hautagaiak

UBANE MADERA | ARRASATE

Hauteskunde usaina hasi da apurka-apurka inguruan barreiatzen, batez ere alderdi politikoak hasi direlako datorren maiatzaren 22ari begira lanean.

Esaterako, apirilaren 18ra arteko epea dute euren hautagaiak aurkezteko. Baina alderdi batzuk hasi dira hautagai batzuk izendatzen, eta alderdi politiko guztiek dituzte abiarazita zerrendak osatzeko prozesuak.

Arrasaten, hiru izen seguru

Arrasateren kasuan ere lanean dihardute, baina, oraingoz, hiru izen daude ziurtatuta: Joxe Etxeberria (Aralar) eta Itziar Lamarain (PP) alkate izateko hautagaiak izango direla nork bere alderdiarekin eta Luis Mari Apraitzek (EAJ), berriz, ez duela bere burua aurkeztuko.

Ezker abertzalea: programa

Alderdi alderdi errepasoa eginez, Arrasateko Udalean duten orde-

karitzaren arabera, honako hauxe aurreratu diote GOIENari herriko alderdi politikoetako ordezkariak:

Enrike Letona (ezker abertzalea): "Diagnostikoa aurkeztu berri dugu, 60 bat lagun aurrean aurkeztu genuen. Ekarpenak jaso genituen eta taldeka landu. Hurrengo urratsa programa zehaztea izango da, eta zerrendak aurkezte. Asmoa da programa martxo bukaerarako amaituta izatea. Bestalde, oraingo astean inkesta bat banatu behar dugu etxez etxe, nazio mailako inkesta izango da, baina Arrasaten ere banatuko dugu etxe guztietan, eta haren emaitzak jasotzeko postontziak jarriko ditugu herriko hainbat puntutan (jakinaraziko dugu non izango diren); webgunea ere abiarazi behar dugu".

Alderdi sozialista: otsailak 15

Haritz Arrieta (PSE-EE): "Datorren otsailaren 15ean aurkeztu behar dugu zein izango den Arrasateko

alkate izateko hautagaia. Kulturaren egingo dugu prentsaurrekoa horretarako, eta gure alderdiko ordezkariak parte hartuko dute. Baliteke ni izatea alkategaia, baina baliteke baita ere sorpresaren bat izatea".

EAJ: kontaktuak egiten

Luis Mari Apraitz (EAJ): "Zerrendak osatzeko kontaktuak egiten dabilta, baina oraindik itxi barik daude. Esan nezakeena da neu ez naizela alkategai izango, beste etapa bat hasiko delako nire kasuan".

Alternatiba-Zutik: lan komuna

Ander Rodriguez (Alternatiba-Zutik): "Oraindik goizegi da. Oraingoz, gure lana oinarritzen da gorputz politikoa eta proiektua osatzen. Edo, hobe esanda, berriro ere osatzen; izan ere, Arrasaten badugu Zutik-ekin orain arte egindako lana komunean, eta lan horrek etorkizunerako bokazioa dauka".

EA: zerrendak osatzen

Pello Urizar (EA): "Zerrendak osatzeko prozesua zabalik dago, baina Arrasateko batzarretik pasa barik dago oraindik. Dena den, jendearekin berbetan gabilta, zerrendak osatzeko. Hori bai, zailena beti izaten da jendea topatzea. Bestalde, ezker abertzalearen prozesua aurrera doa. Estatutuak orain aurkeztuko dira, eta horrek, berez, balio beharko luke zerbait argitzeko. Gure borondatea da ilusiozko zerbait lortzea, baina, jakina, ez dago gure esku. Ondorioz, hobe nork bere lana egitea, gero errazagoa izango da eta azkeneko erabakia hartzea".

Aralar: aurkeztuko dira

Joxe Etxeberria (Aralar): "Oraingoz, erabakita daukaguna da aurkeztu egingo garela, eta neu izango naizela zerrendaburu. Hortik aurrera, zerrendak osatzeko lanean gabilta, eta programa eztabaidatzen ere bai. Pro-

HAUTESKUNDE EGUTEGIA

Martxoak 1-6

Udalerrietako zerrendak argitaratu, GAOn

Martxoak 29

Hauteskundeak deitu, BOEn

Apirilak 13-18 Hautagaien aurkezpena.

Apirilak 23-27 Mahaiak eratuko dituzte, herriz herri

Apirilak 28-Maiatzak 2

Hautagaien zerrendak errekurrizko epea.

Maiatzak 17-21

Hauteskunde kanpaina.

Ekainak 11 Korporazio berriak eratu.

grama orokorrarekin hasi gara eta Arrasaterako falta egiten duena ere zehaztuko dugu".

Zerrendak errekurritzea

Behin alderdiek zerrendak aurkeztuta, baina, oraindik ere ez dira behin betikoak izango; izan ere, zerrenda horiek errekurrizko aukera ematen du legeak. Hain zuzen ere, eta hauteskundeetako egutegiaren arabera, Auzitegi Konstituzionalak aukera du zerrenda horiek errekurrizko apirilaren 28tik maiatzaren 2ra bitartean.

Diputazioak eraiki duen heliportu berria gertu dago, Markuleten, larrialdietarako

Osakidetzak erabiliko du, orain arte erabiltzen zuen Eroski ondoko Arruena parkearen orde

U.M. | ARRASATE

Gertu eta erabilgarri dago Arrasateko heliportu berria. Markuleten eraiki dute, mendebaldeko saihesbidearen ondoan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hala gomendatuta; besteak beste, kontuan hartu dute inguru hartan zein den haizearen eragina helikopteroak arriskurik izan ez dezan. Eta kontuan hartu dute, baita ere, Arrasateko saihesbidea ondo-ondoan dagoela, anbulantziei bidea errazteko.

Larrialdi kasuetarako

Osakidetzaren larrialdi kontuetarako erabiliko da, batik bat, heliportu hori; larri dagoen gaitoren bat ospitale egokiago batera eramateko, alegia.

Orain arte, halako kasuren baterako helikopteroa erabili behar izan denean, Eroski hipermerkatuaren ondoko Arruena parkean lur hartu behar izan du; eta Arruena okupatuta izan denean, berriz, Mojategiko futbol eta errugbi zelaia erabili izan dute. Orain, beraz, herriaren beste aldean lur hartuko du helikopteroak.



Heliportua Markulete industrialdearen ondoan dago, Garaia Berrikuntza Gunearen parean, hain justu. | U.M.

15.000-20.000 euro arteko aurrekontua izan du heliportua egokitzeko obrak eta Diputazioaren obra izan da. Heliportua eraikitzeke, baina, Arrasateko Udalak eman dio lursaila.

Inguruko bakarra

Heliportu horrek, gainera, gure bailara osoari emango dio zerbitzu, Debagoienean dagoen bakarra da eta. Beraz, gure inguruko herrietan ere helikopteroa eska-

tzen duen larrialdiren bat gertatuz gero, Arrasatera ekarri beharko dituzte gaixoak, gero hemen-dik behar den beste edozein lekutara bideratzeko. Lehenago ere egin izan dute halakorik.

Eraikuntzako profesionalei zuzendutako hitzaldia

U.M. | ARRASATE

Eraikuntzaren gaineko hitzaldia antolatu du Arizmendi ikastolak. Oraingo asteke egunean, otsailaren 10ean, izango da hitzaldia, 11:30ean, Ferixalekuan (Otalora Lizenziaduna kalean); baina parte hartu gura duenak aldeztu aurretik eman beharra dauka izena: otsailaren 8a baino lehen, helbide honetan: lan-bide@arizmendi.ikastola.net. Bestela, telefonoz ere eman daiteke izena: 943 79 00 27 edo 943 71 20 25 telefonora deituta. Izena emateko, izen-abizenak, enpresa eta helbide elektronikoa adierazi behar dira.

Bestalde, izena ematera koan adi ibiltzea komeni da, 50 pertsonarendako leku mugatua dago eta.

Porfesionalei zuzenduta

Eraikuntzako profesionalei eta enpresei dago zuzenduta hitzaldia. Hizlaria Fernando Bojo Martinez de Murgia arkitektoa eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea izango da.

Egonezina herriko tabernarien artean, tabakoaren kontrako legea dela-eta

- Diote, oraingoz, kontsumoa jaitsi egin dela zenbait kasutan, baina goizegi dela balorazioetarako
- Elkarte gastronomikoetan orain dira batzar nagusiak, baina baten baten jaso dute debeku eskaera

UBANE MADERA | ARRASATE
Tabakoaren kontrako legea atzera ere berbagai da. Batetik, onartu berri dutelako Euskadin aplikatu behar duten legea; eta bestetik, oraintsu hilabete izan delako lege hori indarrean sartu zena.

Bada, legearen gainean galdetu diegu Arrasateko hiru tabernariri eta elkarte gastronomikoen ordezkariari. Kritikak adierazi dituzte, batik bat, baina onurak ere aitortu dizkiote legeari.

Iamai taberna konforme
Taberna mota desberdinak bisitatu guran, Iamai kafe-antzikoko jabe Alberto Matillari galdetu diogu. Konforme dago hura, lege berria "ona" dela dio, eta langileendako "hobe" dela ke bako leku baten lan egitea. Matillaren ustez, bezero mota ez da askorik aldatu, "eta aldatu bada, apurka-apurka normaltzen joango da". Hori bai, kontsumoan jaitziera igarri duela dio, baina optimista da: "Normaltzen joango da, halako zerbait egin duten gainerako lekue-tan moduan. Ez dut beldurrik.

Basati taberna: kritiko
Gazteek gustuko duten Basati tabernako Bittor Arriaran, berriz, kritikoago azaldu da. Arratsaldeetan igarri dute kontsumo jaitziera: "Gazteek euren lokalak dituzte eta akaso hara joan dira, baina azterketak ere izan dira... Realeko partidueta, adibidez, ikusten da lehen jende gehiago egoten zela. Baina ez dakigu horregatik izango den. Goizegi da". Dena den, ez du uste legea tabernetan aplikatu beharko litza-tekeenik: "Etxean ez duzuna egi-

ten, tabernan egiten duzu. Ospitale edo autobusena ulertzen dut, baina tabernak horretarako dira: edateko, erretzeko, partidak jolas-teko... Umeak sartzeko legea ipintzea... horretarako ludotekak daude". Aitortu du, hori bai, osasun aldetik hoberako izango dela, baina negozioa negozio dela: "Hoberako izango da, baina ni ez nator osasuna zaintzera, horretarako bainuetxera noa, ni nator familia dudalako eta lan egin behar dudalako. "

Monte taberna: hutsuneak
Jokozale eta Realzale heldu askok, berriz, Monte taberna aukeratu izan dute kartetan jokatzeko edo partiduak ikusteko. Bada, bertako ugazaba Juan Carlos Davilak dio batzuek partidetara joateari utzi izan arren, gehienek joaten segitzen dutela eta "formal" onartu dutela lege berria, nahiz eta partidetan deskantsuak egin eta futbol partiduen deskantsuetan kanpora atera erretzera. Hori bai, dio legea ez dagoela "oso ondo eginda" eta "hutsuneak"

dituela: "Adibidez, parkingean ezin da erre, eta autoek sekulako poluzioa eragiten dute. Egin dute errazena: ezin da erre eta kito. Baina legea ondo egin nahi izanez gero batzarrak egin beharko lirateke tabernari eta eragile sozialekin. Adibidez, Mondra ikustera joanez gero eta zelaian ume txikiak badaude, ezin da erre, eta Anoetan, berriz, bai. Edo ikastolatik 10 metrora ezin da erre, eta nik ikastola daukat etxetik 5 metrora; hortaz, bal-koian ezin dut erre?". Bestalde, kalean mahaiak ipintzeko laguntza eskatu dio Udalari: "Krisiarekin, lege honekin eta BEZ handiagoarekin... azkenean zer egingo dugu, denok etxean eta tabernak itxita?".

Txokoetan hasi dira eskaerak
Baina, tabernei ez ezik, elkarte gastronomikoei ere eragin diezai-ke legeak, bazkideek eskatuta. Elkar-teak batzen dituen SUDC elkartekoe-k diotenez, oraingoz ez dute elkarte gastronomikoetan erretzerik debekatu. Hori batzar bidez egin behar da eta batzar gehienak datozen asteotan izango dira. Baina eskaerak jasotzen hasi direla esan du Juan Luis Arkau-zek, SUDC elkarteko presidentea: "Irantxube elkar-teak (San Andres auzoa) egin du batzar nagusia, eta batzuek esan zuten debekatu egin behar dela. Orain, sinadurak batu beharko dituzte bozkatzeko, ezohiko batzarrean. 41 sinadura batu behar dituzte. 110-115 bazki-de dira; beraz, bazkideen herena-edo behar dute".

ESANAK		
"Normaltzen joango da kontua, halako zerbait egin duten gainerako lekuetan moduan"	"Ni ez nator osasuna zaintzera, horretarako bainuetxera noa; ni nator lana egin behar dudalako"	"Krisiarekin, lege honekin eta BEZ handiagoarekin... azkenean zer egingo dugu, denok etxean eta tabernak itxita?"
ALBERTO MATILLA IAMAI TABERNA	BITTOR ARRIARAN BASATI TABERNA	JUAN CARLOS DAVILA MONTE TABERNA

Koplek eta kantuek alaitu zituzten herriko baserri eta auzoak Santa Ageda bezperan

"Santa Ageda bezpera dugu...": ume zein nagusi, kantari ibili ziren herriko kaleetan zehar



Musakolako kaleetan txistua jotzen. | A.M.



Santa Agedako korua udaletxean abesten. | ANDER MONEDERO



Eguneko lehenengo kantuek San Juan Bataiatzailearen parrokan. | UBANE MADERA

ANDER MONEDERO | ARRASATE
Urtero lege, Santa Ageda bezperan makila hartu, baserritar jantzi eta auzoz auzo kantatzen ditu koruak santuaren omenez Santa Agedako abestiak. Eguna goiz hasi zuten, goizeko zortzietan meza izan zuten San Juan Bataiatzailearen parro-kian. Elizkizuna bukatu ondoren, eliza barruan eguneko lehenengo kantua eskaini zuten eta Horazio Argarate abadearen bedeinkape-na jaso zuten. Ondoren, bi taldetan banatu zen Santa Agedako korua, Arrasateko auzo guztietara iristeko asmoarekin; horrela, koruaren zati bat Musakolara joan zen eta bestea Bedoñara. Goiza kantuan eman ondoren, arratsaldeko ordu bietan udaletxe azpian bi taldeak elkartu, eta batera abestu zieten udal ordezkari, langile eta bertaratuko herritarrei. Kantaldi haren ostean, Santa Ageda korukoek baba-jana izan zuten. Bazkalostean, eskoletako umeekin elkartu eta Herriko Plazan kantuan izan ziren. Horrela jarraitu zuten afalordura arte, herriko kaleak kantuekin alaituta. Egun osoa kantuan ibili ostean, ondo merezitako afaria eginda bukatu zuten Santa Ageda bezperako eguna.

Batutako dirua, Caritasentzat
Urtero bezala, santa-eskean batutako diru guztia Caritas elkar-tearentzat izango da.



Ikasgelek itxura berria hartu dute Uned-eko egoitzan. | LANDER MUÑAGORRI



Teilatupean espazio berria berreskuratu dute. | L.M.

Uned-eko eraikinean egiteko lanak ia amaitu dituzte

Ganbaran orain arte erabilgarri ez zegoen espazio zabala berreskuratu dute

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

Uned-ek Bergarako Seminarioan duen egoitzan, udan hasi zituzten lanak kasik osotasunean amaitu dituzte dagoeneko. Oraindik lan txikiren bat egiteko dago, baina Iñaki Esparza zuzendariak ez digu zehaztu nahi izan zertan datzan lan hori, "eztabaidatzen ari baikara". Hala ere, orain arte egindakoarekin gustura agertu da "eraikinen duintasuna berreskuratu egin delako" bere hitzetan.

Horretarako, kanpoko elementuak berriro egin dituzte, hala nola, fatxada, teilatua eta leihoak. Lan hauek aprobetxatuz, ikasgelak eta gainerako zerbitzuak ere berriro dituzte Uned-ek Bergaran duen eraikinean.

Esparzak dioenaren arabera, irisgarritasunean eta itxuran asko irabazi du eraikinak. Ezinduek Uned-era iristeko zailtasunak zeuzkaten orain arte, baina hemendik gutxira ez da halako

arazorik egongo. Izan ere, igo-gailua jartzeko azpiegitura egin da dago, nahiz eta oraindik igo-gailua bera jartzea falta den. Horretaz gain, barnealdetik itxura berriro edukiko du aurrerantzean eraikinak, pasilloak pintatu egin baitituzte, eta ikasgelak behar diren baliabideekin hornitu. Baina Seminarioan egin diren lanetan azpimarragarriena teilatupean atera duten espazio berria da.

Ganbaran guztiz eraberritua

Orain arte ganbara ez zegoen erabiltzeko moduan, baina etorkizunari begira bertan zerbitzu ezberdinak emateko azpiegitura prest utzi dute eraikinean egin dituzten lanetan. Metro karratu ugari dauzka, eta egurrarekin estali dute lekuari argitasun nabarmena emanez.

Berreskuratu berri den espazio honetan zer egingo duten ez dago zehaztuta oraindik, etorkizunean Seminarioa eta Arrizuriaga eraikinen arteko trukea zertan den ez baitago garbi.

Eraikinen trukea

Iñaki Esparza Uned-eko zuzendariak dioenaren arabera, eraikinen trukearen auzian une honetan oraindik erabakia har-

tzeko dago. Hala ere, urte honen amaierarako gai honen inguruko ebazpena eman ahal izango dela uste du. "Nik uste denontzako interesgarria dela jakitea behin betiko erabakia zein den, horren arabera egin behar duguna planifikatu baitaiteke" dio Esparzak.

Pasilloa ere eztabaidagai

Seminarioko sarreran dagoen pasilloan ere hainbat alde interesak daukate. "Daukan potentzialitatea agortu ez duen espazioa da sarrera hau", Esparzaren hitzetan. Horretarako, interesa daukaten erakunde ezberdinak bateratze prozesu batean sartuta daude bakoitzak dauzkan helburuak bateragarriak diren edo ez aztertzeko.



MIREN ERRASTI

Migel Altunako ikasleak, enpresa simulatuen azokan

Pasa den urtarrilaren 26an, Migel Altunako Administrazio eta Finantzetako 2. kurtsoko ikasleak Donostiako Kursaaan izan ziren. Bertan, enpresa simulatuen azokan parte hartu zuten, eta gainerako ikastetxeetako enpresekin

harremanak izateaz gain, beraien enpresa aurkeztu (katalogoak, promozioak...) eta salerosketak egiteko aukera izan zuten. Ikasleek adierazitakoaren arabera, oso esperientzia positiboa eta aberasgarria izan zen.

Aste honetan, Bergaran zine eskaintza zabala

L.M. | BERGARA

Aste honetarako, zine eskaintza zabala eskainiko da Bergarako areto ezberdinetan. Eguaztenean, 20:30etan, Cohen anaien film bat eskainiko dute Zine-klubaren baitan. Zabalotegi aretoan, *Un tipo serio* emango dute. Areto bereberean, baina domekan, *Fantástico Sr. Fox* filma eskainiko dute 17:00etatik aurrera. Hau amaitu ostean, 19:30etan, Borja Cobeagaren *Pagafantas* pelikula eskainiko dute.

Gaztetxean ere filmak eskaintzen ari dira atzo hasi zuten zine zikloaren baitan. Musika dokumentalak ematen ari dira, eta datorren domekan *American hardcore* dokumentala eskainiko dute 18:00etatik aurrera.



Jarduneko dantza ikastaroan ibilitako neska taldea larrain-dantza egiten. | GOIENA

Euskal dantzak ikasteko aukera dute gaztetxoek Jardunekin

6 eta 16 urte arteko hiru talde daude; 9-11 urte arteko taldean oraindik ere izena emateko lekua dagoela dio euskara elkarteak

M.B. | BERGARA
Jardun euskara elkarteak taldeko euskal dantzak ikasteko ume eta gaztetxoendako eskolak ere antolatzen ditu. Hiru taldek dihardute aurten: 6 eta 8 urte arteko umeen talde bat dago; 9 eta 11 urteko beste bat; eta hirugarrena 15-16 urteko gazteek osatzen dute.
Bada, 9 eta 11 urte arteko taldean izena emateko aukera dagoela aurreratu dute Jardunetik. Talde horrek martitzenetan egiten ditu entseguak, 17:30etik 18:30era, Seminarioan, eta, esko-

la-egutegiak bezala, ekainean amaituko da. Irakasleei dago-kienez, bik dihardute hiru taldeekin: Naiara Aginagaldek eta Maite Bengoak, hain justu ere.
Izena emateko azken eguna otsailaren 18a da eta horretarako Jarduneko bulegora jo daiteke, edo 943 76 36 61 telefono zenbakira deitu. Ikastaroaren hileko kuota 12 euro da.
Fandango eta arin-arina
Nagusiendako fandango eta arin-arin ikastaroak ere antolatu ditu Jardunek. Aurreko astean hasi

ziren eskolak, baina, hala ere, interesa izanez gero, oraindik izena eman daitekeela aurreratu dute euskara elkartetik.
Eskolak eguaztenetan dira, 19:30etik 21:00etara, Errege Seminarioan, eta irakasleak dira Juan-txo Urbieta eta haren taldea, Abarka.
Izen eman daiteke Jardun elkartearen bulegoan edo 943 76 36 61 telefono zenbakian. Ikastaroaren prezioa 13 euro da hilean Jarduneko bazkideendako eta 15 euro hilean gainontzekoendako.

Bihar bukatuko da Aratusteetako kartel lehiaketan parte hartzeko epea

M.B. | BERGARA
Lehiaketan parte har dezake Bergaran bizi edo erroldatutako edozeinek. Diseinuen kartelak kolore eta teknika librean egin ahal izango dira eta 40x60 zentimetroko kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu beharko dira. Bestalde, derrigorrezko honako testua ere eroan beharko dute

diseinuek: *Aratusteak 2011, Bergara*. Irabazleak 350 euro eskuratuko ditu, nahiz eta saria eman gabe ere gera daitekeen, epaimahaiko kideek gutxieneko kalitaterik ez dagoela uste badute. Bestalde, Udalak egoki ikusiz gero, aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa antolatu ahal izango du.

Kartelak kultura etxeko behe solairuan (Errotalde jauregia) aurkeztu beharko dira eta horretarako azkeneko eguna otsailaren 8a da (martitzena), 13:00ak baino lehen.
Epaimahaia nortzuek osatu duten epaia aditzera ematen den egunean jakinaraziko da. Bestalde, epaimahaiko kideek hartutako erabakia aldaezina izango da. Saritutako lanez Udala jabetuko da eta argitaratzeko, aldatzeko, eraldatzeko, zabaltzeko... eskubidea izango du.

Jendaurrean nola berba egin irakatsiko dute hilaren 28tik aurrera

Ikastaroak lau saio izango ditu eta interesatuek Bizikasin eman dezakete izena

M.B. | BERGARA
Jendaurrean nola berba egin erakutsiko dute, otsailaren 28an eta martxoaren 2an, 7an eta 9an, astelehen eta eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara, Miguel Altunan. Ikastaroaren prezioa 15 euro da eta interesatuek izena eman dezakete Bizikasin 943 76 93 94 telefono zenbakira deituta edo info@bizikasi.com helbidera idatzita.
Kudeaketa ekonomiko egokia
Bestalde, etxeko kudeaketa ekonomiko egokia nola egin ere irakatsiko dute beste ikastaro baten. Bihar, otsailaren

8an, hasiko da eta maiatzaren 17ra arte izango dira eskolak, martitzen eta eguenetan, 14:30etik 16:30era, Miguel Altuna institutuan.
Ikastaroaren prezioa 10 euro da, eta, edonork parte hartzeko aukera izango duen arren, bergarrek lehentasuna izango dute. Izena emateko eta informazio gehiago lortzeko, Udalako Gizarte Zerbitzuetara jo behar da.
Bestetik, Bizikasik eta Gureak Taldeak antolatutako ogitarteko eta sandwichak egiteko ikastaroa ere bihar, martitzena, hasiko da, 10:00etatik 12:00etara, Gurea Langunean.

Udalak 5.000 litroko zisterna-gordailua eskualdatzeko baldintzak kaleratu ditu

Baja eman nahi diola-eta 500 eurotan jarriko du salgai; hankaduna eta presio-multzoduna da

M.B. | BERGARA
Udalak botatzeko duen "zisterna-gordailua (hankaduna eta presio-multzoduna)" eskualdatzeko baldintzak kaleratu ditu. 5.000 litroko bolumena du, zuntzekoa da eta 500 eurotan saldu nahi du Udalak.
Edozeinek eskura dezake, adinez nagusi izanda, eta otsailaren 17a baino lehen egin beharko da eskaera. Hala ere, derrigorrezkoa da Bergarako Udalarekin zorrik ez izatea.
Bestalde, erosleak hiru bete-behar hauek bete beharko ditu: bere kontura eraman beharko du gordeta dagoen lekutik, 15 eguneko epean erretiratu beharko du eta eskainitako prezioa ordaindu beharko du erretiratu aurretik.
Interesatuek 500 euroko prezioa hobe dezakete, edo pre-

zio altuagoa eskaini. Dena den, interesa dutenen artean, proposamen ekonomiko altuena egiten duenari egingo zaio adjudikazioa. Inork ez badu eskaintza ekonomikorik egingo, interesa azaldu duten guztien artean zozketa egingo da otsailaren 18an, 12.00etan, udaletxean.
Astelehenean osoko bilkura
Astelehenean ezohiko osoko bilkura egongo da, 18:00etan. Zortzi gaiez osatutako gai-zerrenda landuko du udalbatzak; besteak beste, 2011ko aurrekontua aztertuko dute, eta baita langileen soldatak jaisteko Udalak iazko azaroan hartutako erabakiaren aurka LABek aurkeztutako auzi errekurtsioan Udala ez azaltzeko proposamena bozkatu ere.

OHARRAK

MAPA TOPONIMIKOIA UDALEAN IKUS DAITEKE
Udala herriko mapa toponimikoa argitaratzekoa da eta lehenengo bertsioa onartuta dago –urtarrilaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen– eta ikusgai, interesa duten herritar guztiendako, Gobernu batzordeko batzar gelaren ondoan. Ekarpena egiteko epea 30 egunekoa da; otsailaren 12ra artekoa, hain justu ere

'MUGITUKO DA' DVD-AREN 2. EDIZIOA ESKURAGARRI DAGO
Bolintxo, Konde Panaderokua eta Mizpildi okindegieta dago eskuragarri ikus-entzunezko hori. Bideoak 5 euro balio du, eta 2010ean Bergaran Jose Luis Elkorro alkate ohia libre lagatzeko egin ziren ekintzak jasotzen ditu. 36 minutu irauten duen bideo muntaian, Jose Luis Elkorro kartzelan sartu baino egun bat lehenago egin zituen adierazpenak

ere jasotzen dira, baita ekimenean parte hartu zuten beste herritar batzuen adierazpenak ere, eta irudi historikoak.
PAKISTANI BURUZKO HITZALDIA EGUAZTENEAN
Euskadi eta Baltistan: mendian ere lagun delako hitzaldia egongo da hilaren 9an, 18:00etan, osoko bilkuren aretoan. Felix Baltistan Fundazioak eta Udalak antolatu dute.

MAGALIREN ALDEKO TXARTELAK SALGAI
Magali Muruamendiaratz neskatari laguntzeko txartel gehiago jarri dituzte salgai bihar, euro baten. Honako lekuetan egongo dira salgai: Imprespal, Barcelo eta Ecuador bidaiak, Bule, Ariznoa, Ganbara, Egon, Agorrosin eta Cafe Bergara tabernak, kultura etxea eta Bolintxo okindegia. Burmuinean jaiotzatik kalteak ditu eta abuztua ezkerro Foltra

izeneko osasun etxean (Galizia) tratamendua jasotzen ari da.
ARTISAU FERIA EGUNETIK HASITA SAN MARTIN PLAZAN
Zaporeen eta artisautza feria irekiko dute egunean San Martin plazan. Domekara arte iraungo du, goiz eta arratsalde egongo da zabalik eta askotariko jaki postuak egongo dira; baita artisauak ere. Iaz lehenengoz egin zen azoka hori.



Errekaldeko bidegorria errepide erdian jarriko dute. | MIREIA BIKUÑA

Errepide erdian ipiniko dute Euskadi etorbideko bidegorria

Autoen abiadura murrizteko zoru berezia ipiniko dute, 1,80ko zabalerarekin

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Herriko bidegorri sareak tramu berria izango du laster. Euskadi etorbideko zatia egokitzeko lanak hastear daude. Zati horretan, errepide erdian egokituko dute bidegorria. Materialaren zain daude. Lanok egiteko aurrekontua 16.000 euro da.

Zoru berezia

Euskadi etorbidean jarriko duten bidegorria mistoa izango da; hau da, bizikletak eta autoak toki beretik ibiliko dira. Bidegorria errepidearen erdian egokituko dute, eta lehentasuna izango dute bizikletek. Hori horrela, abiadura moteldu beharko dute autoek. Horretarako, Frantzian eta Holandan erabiltzen duten sistema

ipiniko dute. Autoaren zabalera berean, alegia, 1,80 metrotan, abiadura moteltzeko zoru berezia ipiniko dute. Zoru bereziak, bada, autoaren abiadura murriztuko du Eta autobusak, zabalagoak direnez, ez dute arazorik izango.

Errepidearen alboetan dauden aparkalekuak mantendu egingo dituzte. "Hasierako proiektuan Lazarragako moduko bidegorria egitea aurreikusten genuen, baina aparkaleku asko kendu behar genituen. Horregatik guztiagatik egin dugu bidegorri mistoaren aldeko apustua", diote udal arduradunek. Horien ondoan jarriko dituzte edukiontziak. Gainera, seinaleztapen berriak ipiniko dituzte errepidean.

Zazpi kilometro eta bi ardatz

Udal arduradunek zazpi kilometroko bidegorri sarea egiten dihardute. Dagoeneko erabilgarri daude Lazarragako zatia, postetxe aurrekoa, San Martinera doana, Ugarkaldekoa, hilerrira doana eta Errekaldekoa. Zatika egiten dihardute.

Oñatiko bidegorri sareak bi ardatz izango ditu: lehena Urrutxun hasi, eta Unibertsitate etorbidetik, Portu kaletik, Santa Marinatik, Euskadi etorbidetik eta Lazarragatik pasa ondoren, Ugarkalden bukatuko da; bigarrena Kurtzekuan hasi eta Berezaon amaituko da. Zati horrek bat egingo du Diputazioak Eloregeri eta Oñati lotzeko egingo duen bidegorriarekin.

Doako hastapen saioak egingo dituzte kiroldegian, bihartik

Zubikoa kiroldegian doako hastapen ikastaroak egingo dituzte aurrerantzean. Gaur hasita, eta egun eta ordutegi ezberdinetan, areto-bizikleta, pilatesa, gimnasia harmonikoa eta *bosu* tonifikazioaren gaineko hastapen eskolak egingo dituzte. Interesatuak kiroldegian bertan eska dezakete eskaintzaren gaineko informazioa.

OHARRAK

TAILERRA

Etxeko lanen gaineko tailerra egingo du Joxe Amiamak hilaren 9an, 18:30ean. Elkar Heziko Lehen Hezkuntzako areto nagusian izango da.

HITZALDIA

Euskararen eguneroko erabileraren eta ahozkotetasuna aztergai eta berbagai izango ditu Andoni Egañak hilaren 10ean. Hitzaldia egingo du Zuazola institutuan, 18:00etan, gurasoendako.

OSASUNAZ

Elkar Hezik antolatuta, *Oinarrizko ohitura osasuntsuak* tailerra egingo du Izar Mendia psikologoak hilaren 10ean, 18:30ean; hain zuzen, 2-6 urte arteko neska-mutikoen gurasoendako da.

IZENEMATEA

Hilaren 23ra arte zabalik dago I. areto-bizikleta maratoirako izenematea. Zubikoa kiroldegian egin daiteke matrikula.

Azken hamarkadan biztanleriak gora egin du: iaz, mende hasieran baino 240 pertsona gehiago zeuden

10.957 pertsona zeuden erroldatuta 2010eko urtarrilaren 1ean eta 2000. urtean, 10.717

M.B. | OÑATI

Oñatiko biztanleriak gora egin du azken hamarkadan: 2010eko urtarrilaren 1ean 10.957 pertsona zeuden erroldatuta (5.466 gizon-ek eta 5.491 emakumezkoak), 2000. urtean baino 240 pertsona gehiago –hamarkada hasieran 10.717 herritar zeuden erroldatuta Udalean.

Urtetik urtera hazten joan da biztanleria. Atzerapauso nabarmenena 2002tik 2005era izan zen: hiru urtean 69 herritar galdu zituen Oñatik. Dena den, 2006rako 32 berreskuratu zituen.

Umeak eta etorkinak

Biztanleriaren goranzko bilakaeraren arrazoiak hiru dira, Lourdes Idoiaga alkatearen esanetan: jaiotako ume kopurua, etorkinak eta babes ofizialeko etxeetan bizi diren bikote gazteak. "Lau urtean babes ofizialeko 300 etxe banatu ditugu eta bikote gazte asko etorri da gurera. Bestalde, azken urteotan ume asko jaio dira: 2009an 160 ume. Bost urte lehenago, 2004an, 80 bakarrik. Hego Amerikatik etorritako etorkinen kopuruak ere gora egin du nabarmen".



MIREIA BIKUÑA

Egindako lanagatik esker ona jaso zuten

Noticias de Gipuzkoa aldizkariak Bertan sariak banatu zituen egunean, hilaren 3an, Oñatin. Urte askoan egindako lanagatik omendu zituzten: Aloña Mendi espeleologia taldea, Juanitosa, Beart margolari taldea, Debagoieneko jardunaldi gastronomikoak, Dualia, Abantail eta Jesus Irizar *Txutxin*. Ganbara Gazte abesbatzak eta Oñatz dantza taldeak jarri zuten kolorea. Iñaki de Muxika kazetariak aurkeztu zuen ekitaldia Santa Ana antzokian.

BIZTANLERIA AZKEN HAMARKADAN

URTEA	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
2000ko urtarrilak 1	10.717	5.367	5.350
2001eko urtarrilak 1	10.757	5.373	5.384
2002ko urtarrilak 1	10.780	5.390	5.390
2003ko urtarrilak 1	10.750	5.372	5.376
2004ko urtarrilak 1	10.729	5.353	5.376
2005eko urtarrilak 1	10.711	5.342	5.369
2006ko urtarrilak 1	10.743	5.350	5.393
2007ko urtarrilak 1	10.756	5.344	5.412
2008ko urtarrilak 1	10.816	5.377	5.439
2009ko urtarrilak 1	10.896	5.403	5.493
2010eko urtarrilak 1	10.957	5.466	5.491

*Iturria: Oñatiko Udala

ESKORIATZA

Zabaldute bidegorria, hilerri azpiko lanak bukatu ondoren

la hiru hilabete egin ditu itxita eta herritarrak noiz zabalduko zain zeuden

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Urrian itxi zuten Eskoriatzako bidegorria –Olazarko zubipetik Intxaurtuetakozubiraino doan tarte–, eta derrigorrez errepide gaineko zubitik pasatu beharra egon da azken hilabeteotan. Dagoneko zabaldute tarte hori, bukatu dituztelako Eskoriatza eta hilerria arteko lanak. Hala bada, Aingeru Guardaraino joateko aukera dago berriro.

Uste baino luzeago

Aretxabaleta eta Eskoriatza bitartean lagun asko ibiltzen da joan-etorrian, takarradan eta bizikletan, eta bidegorria noiz zabalduko zain egon dira guztiak. Joan den egubakoitz eguerdian, otsailak 4, topatu zuten zabalik horiek, nahiz eta tarte horretako hainbat bazter oraindik txukuntzeko egon.

Herriko iparraldeko eta hegoaldeko bidegorriak lotu dituen zatiaren lanek eragin zuten mozketak, Sorautzeko tunela zabaltzeko obrek hain zuzen. Gura baino luzeago jo dute lan horiek guztiek, urtebete, eta uste baino traba gehiago izan dituzte Sorautzen;



Herritarrak itxita egon den bidegorri tarteetan joan-etorrian. | M.A.

hiru egunerako itxiko zutela esan eta hiru hilabete iraun dute.

Eskoriatza-hilerria tarteak 300 metroko luzera du, eta horietatik 200 metro hilerriaren azpi-

tik doaz, sasoi baten trenbidearen tunela izandako leku beretik hain zuzen. Mariezcurrena enpresak egin ditu lanok eta 797.572 euroko kostua izan dute.

ARETXABALETA

Ume eta heldu, Santa Agedari kantuan

Leizarra musika eskolako ikasle txiki eta gazteek eta Aretxabaleta abesbatzako kideek elkarrekin gogoratu zuten Santa Ageda egubakoitz ilunkeran. Eztarriak ondo babestu, makilak eskuan hartu eta hotzari aurre eginez, kalean gora eta behera jardun zuten Santa Agedaren bizitza jasotzen duten koplak kantatuta.



M.A.

ARETXABALETA

125 lagunek eman dute odola gurean hiru egunean

M.A. | ARETXABALETA

Neguko odol ateratzeak egin dituzte bi asteotan Arabako Odol Bankuko kideek gurean, eta hiru egunean izan dira osasun etxean. Guztira, 125 lagunek eman dute odola, eta horietatik zazpi lehenengoz etorri ziren.

20 lagunek ezin eman

Osasun etxera odola emateko asmoarekin joandakoak gehiago izan ziren; 145, guztira. Hona hemen hiru egunotako emaitzak:

urtarrilaren 24an, 60 lagun joandakoak eta horietatik 54 odola emandakoak –bi berriak–; urtarilaren 31n, 43 joandakoak eta 36 emandakoak –hiru berriak–; otsailaren 1ean, 42 joandakoak eta 35 emandakoak –bi berriak.

Iaz udazkenean jasotako emaitzak hobeak izan ziren, 140 bat lagunek eman zuten-eta odola. Hori horrela, Aretxabaletako odol emaileen ordezkari Ramon Erañak jakinarazi du emaitzak gazi-gozaok direla: "Kopurua ona da, baina

joandakoen artetik 20 lagunek ezin eman izanak penatu egiten gaitu. Era berean, emandakoen artetik zazpi lehengoz egitea pozgarria da gero". Izan ere, jarraipena eman eta kopuruak gora egin dezan odol emaille berriak ezinbestekoak dira.

Urtean hiru odol ateratze saio egiten dituzte Arabako Odol Bankuko kideek gurean. Udaberri inguruan izango dira hurrengoak, baina data zehatzik ez daukate ezarrita oraindik.

ARETXABALETA

Sukaldaritza begetariano ikastaroa egingo du Amuskak, eguenean hasita, hilak 10

Jende askok agertu du interesa eta udaberri inguruan berriro egiteko asmoa daukate

M.A. | ESKORIATZA

Eguenean hasi eta martxoaren 17a bitartean (18:00-20:00) sukaldaritza begetarianoaren gaineko ikastaroa egingo dute, Amuska emakume elkarteak eta Bizikasik antolatuta.

Sabrina Pato dietista eta elikadura ekologikoan adituak egingo ditu gidari lanak, eta sukaldaritza begetarianoaren gaineko argibideen, sekretuen eta onuren berri emango diete elkartutakoei. Ikastaroak interes handia piztu du eta askok eman dute izena. Erretiratuen etxeko sukaldeak, baina, txikia da eta behar bezala lan egiteko hamar lagun bakarrik onartu dituzte. Hori horrela, Amuska kideek jakinarazi dute udaberri inguruan berriro egingo dutela ikastaro hori.

Jende beharra antzerkirako

Beste ikastaro batzuk ere bada-bil egiten Amuska: pintura, eskulanak, ehoziri-lanak edo bolilloak, patchworka eta antzerkia. Batzuk beteta daude, baina beste batzuetan sartzeko aukera dago.

Antzerki tailerrean, esaterako, gustura hartuko lituzkete lagun gehiago, taldea murriztu egin delako. Gainera, martxoaren 8ra begira antzezlanak gertatu gurako lukete, eta horretarako jendea behar dutela esan dute emakume elkarte kideek.

Amuskak antolatutako ikastaroak edonori daude zabalik, baina emakumeek lehentasuna izango dute. Argibide gehiago gura duenak dei egin dezala zenbaki honetara: 699 78 66 84.

ESKORIATZA

Bertso afaria egingo du Loramendi elkarteak Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdirekin

Otsailaren 25ean, egubakoitza, izango da Loramendi kalean dagoen Hibai Gain elkarte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Loramendi elkarteak bertso afaria egingo du otsailaren 25ean (21:00) eta Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi bertsolari gazteak gonbidatu ditu bertara. Loramendi kalean –Deba ibaia-aren alboan– dagoen Hibai Gain gastronomi elkarte izango da, eta txartelak dagoeneko salgai dituzte Loramendin –Durana 11, 16:00-20:00–: euskara elkarte bazkideek 15 euro eta gainerakoek, 18 euro.

Hori baino lehen, datorren egubakoitzean, txakolin eta ardo dastatze ekitaldia egingo dute. Pagaldaixena taberna izandako lokalean izango da (18:30).

Literatura lehiaketa abian

Herriko ikastetxeetako gazte txoek, osterak, Loramendi Literatura Lehiaketa gertatzen dabilta. Hirugarren eta seigarren maila arteko Lehen Hezkuntzako ikasleek bertsoak eta ipuinak egingo dituzte eta DBHko ikasleek gorrotzko gutunak, bertsoak, komikiak eta umorezko film laburrak dituzte aukeran.

Lan horiek aurkezteko azken eguna otsailaren 18a da, egubakoitza, eta Loramendira eroan behar dituzte. Sari banaketa, osterak, martxoaren 11n egingo dute euskara elkarte kideek, Arkupen.

ARETXABALETA

Ludotekarako lagun bat behar du Loramendi elkarteak

Loramendi elkarteak kudeatzen duen Aretxabaletako ludotekarako lagun bat behar dute. Arratsalde izango du lan jarduna (16:00-20:00).

Interesatuak curriculumak bidali behar dituzte Loramendira: loramendielkartea@gmail.com. Eskatu dute lehenbailehen bidaltzeko curriculumak. Argibide gehiago gura duenak bertara dei egin dezala: 943 77 09 70.

Murrukixoko kideak eskiatzera joango dira otsailaren 19an

Murrukixoko Mendizale Elkar- teak eski irteera antolatu du otsailaren 19 eta 20rako, eta Luz Saint-Sauveur aldera joango dira. Izena emateko Murrukixoko egoitzatik pasatzeko eskatu dute –martitzet- netan, 19:00-20:00–, edo mezu bat bidaltzeko: murrukixo@euskalerrria.org. Elkarte bazkideek 115 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 120.



Korrika15 Elgetan . | ARTXIBOA

ELGETA

Otsailaren 15erako deitu dute hurrengo Korrika Batzordea

Duela bi urteko Korrika ez zen Elgetatik pasatu; aurten, apirilaren 14an, goizaldean, iritsiko da herrira, Elorrio aldetik

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aurreko astean, eguaztenean, egin zuten lehenengo Korrika Batzordea herrian. "Lagun gutxi egon ginela-eta, hurrengo batzorde ireki bat deitzeko asmoa daukagu", adierazi dute Korrikako arduradunek. Datorren martitzenerako, hilaren 15erako, egin dute deialdia. Kultura etxean elkartuko dira, 19:00etan. "Herri-tar guztien parte-hartzea da Korrika17k behar duena eta hori dugu helburu hurrengo batzordera begira", esan dute arduradunek.

Elgetan apirilaren 14an

Korrika17 apirilaren 14an izango dugu Elgetan. Elorriotik sartuko da Debagoienean, eta, aurreikusitako ordutegiak betetzen badira, 04:40 aldera iritsiko da gure-ra.

Azken Korrika, 2009. urtean egindakoa, ez zen Elgetatik igaro eta inguruko herrietara jaitsi behar izan genuen elgetarrok lasterketan parte hartzera. Lau urte dira, beraz, euskararen aldeko lasterketa gure herritik pasatzen ez dena.

Duela lau urte Bergara aldetik igo zen Korrikaren lekukoa Elgetara eta elurra zen bide bazterretan. Orduan kilometroak erosi zituzten taldeak honakoak izan ziren: Guraso Elkarte, Tabernari Elkarte, gaztetxea, Goibeko kultura elkarte-Espaloia, Ozkarbi elkarte, Intxorta elkarte, Udala, EAJ-PNV, Aralar, Sisteko eta Talde Alternatiboa (Auzolanian, LAB, Euskal Herrian Euskaraz).

Duela lau urte 08:30ean iritsi zen Korrika Elgetara eta Eibar aldera egin zuen. Aurretik eta

ondoren ekitaldi sorta izan zen herrian: txokolate-jana, umeendako tailerrak, karaokea...

Egiteko ugari

Korrika berriz ere Elgetatik igaroko den honetan, egiteko ugari dago aurretik: ibilbidea zehaztu, kilometroak eta Korrikako materiala saldu, Korrika Lagunak egin, Korrika Txikia antolatu... hemendik eta apirilaren 14ra bitartean badago zer egin.

Aurreko astean egindako deialdiak lehenengo hartu-emanak egitea zuen helburu. Bigarren deialdi horrekin, arduradunek laguntzeko prest dauden herritarrek elkartu nahi dituzte. Beraz, Elgetako Korrika Batzordean parte hartu nahi izanez gero, hemen dago hurrengo hitzordua: otsailaren 15ean, 19:00etan, kultura etxean.

06:30etik 08:30era bitartean. Bilketa, berriz, 08:30ean hasiko da.

Orain, bileretan herritarrek egindako proposamenak aztertuko dira, eta hilaren 21ean egingo da batzarraren erabaki guztiak azaltzeko.

Usurbilera bisita

Atez ateko sistema ezagutzeko, Udalak Usurbilera bisita antolatu du. Bisita otsailaren 12an izango da eta herritar guztiek dute joateko aukera. Irteera 08:00etan izango da eta itzulera, berriz, 13:00etan. Informazio bulegoan eman behar da izena; gaur, otsailak 7, da azken eguna. 19:00ak arte egongo da bulegoa zabalik.

ARAMAIO

Goi mailako saskibaloia, familian gozatzeko otsail eta martxorako eskaintza

Caja Laboral ikusteko bi irteera antolatu ditu Udalak; martxorako izenematea zabalik dago

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udalaren eskutik, haur eta gurasoendako aisialdi eskaintzak ez du etenik izango. 2010ean, besteak beste, honako txoko hauek bisi-tatu zituzten, urritik abendura artean: Tolosako Txotxongiloen Museoa, Donostiako Kutxaespacio gunea eta Mungiako Olen-tzeroren etxea -Izenaduba basoa-. Beste irteera aipagarri bat izan zen Araba hegoaldeko Izki parke naturalera egindakoa -beheko argazkian.

Bada, otsailean eta martxoan goi mailako saskibaloia izango da protagonista. Caja Laboral Baskoniaren bi partidu ikusteko aukera eskainiko du Udalak, oso prezio merkean. Otsailaren 20an Caja Laboral eta Granadaren

arteko partidua ikusteko ez dago lekurik, eta jende asko geratu da kanpoan. Beraz, martxorako beste irteera bat antolatu dute; lehentasuna izango dute otsailean kanpoan geratu direnak.

Ordainagiria, udaletxera

Martxoaren 20an Caja Solen aurka jokatu du Baskoniak. Izena emateko azken eguna martxoaren 2a da. 1996 eta 2006. urte artean jaiotakoek bost euro ordaindu beharko dituzte eta 1995a baino lehenagokoek, 7,5 euro. 10 urtetik beherakoek heldu batekin joan beharko dute. Izena emateko, ordainketa hemen: 2097 0224 98 0102679817. Ordainagiria udaletxera eraman behar da.



Iaz, esaterako, Izki (Araba) parke naturalera irteera egin zuten. | UDALA

LEINTZ GATZAGA

Ur deposituaren lanak Erga enpresak egingo ditu

Oraintsu eraberritu duten pilotalekua otsailaren 19an inauguratuko dute (12:00)

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Aldundiaren Etorlur enpresak egubakoitzean esleitu zituen Gatzagaingo ur deposituaren lanak. Donostian egoitza duen Erga SL enpresak egingo ditu, eta 455.940 eurotan ezarri dute gastua. Bost hilabete izango dituzte lanok egiteko.

Landagipuzkoa egitasmoari esker egingo dituzte ur deposituaren lan horiek, eta Arlabango plan berezia egin ahal izateko behar-beharrezkoa da. Arlaban inguruan ur arazoak izaten dituzte, batez ere uda sasoiaren, eta Gatzagaingo inguruan egingo duten depositu berriak arazo hori konpontzeko du. Behin depositua eginda, herriko ur depositutik eroango dute ura bertara. Lanok, gainera, saneamendu hodiak jartzeko aprobetxatuko dituzte.

Pilotalekuarekin pozik

Iaz beste proiektu bat bideratu zuten Landagipuzkoari esker: pilotalekuaren eraberritze lanak. Bada, otsailaren 19an, zapatuan, inauguratuko dute (12:00). Ekitaldi horren nondik norakoak oraindik zehazteko dauzkate, baina Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariak izango dira bertan.

Izan ere, pilotalekuaren egoera ez zen batere ona: estalkia egoera eskasean, itoginak sabaitik eta euria eta hotza barruan. Hala, bada, estalkia berriro diote eta pilotaleku guztia itxi kristalezko hormarekin. Herritarrek pozik daude egindako lanekin, umeen jolaslekua izateaz gain, kirol eta ospakizunetarako gunea eta herritarren topalekua da-eta.

ANTZUOLA

Atez atekoaren bilerak bukatuta, erabakiak zehaztuko dituzte orain

Herritarrek egindako proposamenak aztertuko dira, eta hilaren 21ean emango dute erabakien berri

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Atez atekoaren ezagutzeko eta oraingoz dauden funtzionamendu proposamenak azaltzeko lau bilera egin ziren joan den astean; 450 bat herritarrek hartu zuten parte. Bileran, eskola praktikoko bat egin zuten, lehenengo, atez atekoarekin hondakinak nola sailkatuko diren azaltzeko. Ondoren,

lantaldetan banatu eta lau puntu hauek landu zituzten: hondakinak ateratzeko ordutegia eta egutegia; zintzilikarioak; autokonposta egiteko aukera eta beherapena tasetan; eta larriguneak. Puntu horien artean ordutegia izan zen kezka handien sortu zuen gaia. Proposamenaren arabera, goizez atera beharko dira hondakinak,

Debagoieneko emakumeak izan eta ekin

Atzoko eta gaurko emakumeen bizimodua azgazkietan

Ekin
Emakumeak • AED



Erakusketa

Kulturate-ko klaustroan

Otsailaren 11tik 25era

Asteartetik igandera 17:30etik

20:30era

Irekiera ekitaldia

Otsailaren 10ean 19:00etan

Bailarako hiru alkate emakumeen
parte hartzearekin.



Laguntzaileak: Arrasateko Udala, Auzo Lagun, Emun, Goiena, Ikerlan, Joma, Kutxa, Lagun Aro EPSV

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Gol barik bukatu zen Bergararen eta UDAREN arteko lehia

- Oso parekatua izan zen derbia
- Gol aukeretan ez ziren fin ibili ez bata ez bestea
- Epaileak zazpi txartel hori atera zituen denera

EMAITZA

BERGARA

0-0

UDA

FITXA TEKNIKOAK

Bergara: Asier, Mikel, Arruti (Aitor, 70 min.), Iker, Nafarrate, Julen, Eloy (Azpiazu, 75 min.), Unai, Martin (Iriarte, 66 min.), Markel (Jokin, 70 min.), Cabanillas (Beñat, 60 min.).

UDA: Agirregabiria, Raul, Igor, Beñat, Amutxastegi, Aitor (Orueta, 46 min.), Julen, Haritz, Mikel (Ulezia, 75 min.), Pastrí (Etxeberria, 70 min.), Iñaki (Orobengoa 85 min.).

Epaileak: Javier Merino izan zen epailea eta Martin Delgado eta Ander Irizabal izan zituen laguntzaile.

TXOMIN MADINA | BERGARA

Ikusmin handia piztu zuen zapa-tuan Bergarak eta UDak jokatu zuten derbiak; horren adierazle da Agorrosinen bildu zen ikusle kopurua ikusita. Azkenean, baina, hasi bezala bukatu zen norgehiagoka: markagailua hutsean.

Lehia gogorra

Partidua hasi eta lehen minutuetan Bergara izan zen nagusi: estu hartu zituzten aretxabaletarrak,

eta nahiz eta golik egitea ez lortu, behin baino gehiagotan izan zuten baloia sarean sartzeko aukera. Norgehiagokak aurrera egin ahala UDakoak partiduan



Martin, Bergarako aurrelaria, baloiaren jabe egin eta aretxabaletarrendandik ihes egin guran. | JOSETXO ARANTZABAL

sartzen joan ziren, eta hala, eurek ere izan zuten gol-aukerarik.

Bigarren zatian, bi taldeek trukatu egin zituzten paperak: aretxabaletarrak gogor hasi ziren

erasoan, eta bergararrei kosta egin zitzaion berriz ere neurria hartzea. Aukera bikaina izan zuten etxekoek UDakoan atea hutsik geratu zen momentu

batean, baina ez ziren baloira garaiz heldu. Golik egon ez arren, partidua gogorra izan zen. Hala, epaileak zazpi txartel hori atera zituen denera: bi etxekoentzat

ANDONI AMUTXASTEGI | UDAKO JOKALARIA

"Askokostatu zaigu partiduan sartzea baina, gutxika, intentsitatez igo dugu"

Aretxabaletako taldeak bigarren berdinketa lortu zuen jarraian zapa-tuan. Ez zuten Bergarakoekiko duten aldera handituz lortu, baina gustura agertu ziren eskuratutako puntuarekin.

Nola ikusi duzu gaurko lehia?

Gogorra izan da. Eurei

ez bezala, guri asko kostatu zaigu partiduan sartzea. Gutxika-gutxika baina, intentsitatea sartzen hasi gara eta pixka bat orekatu egin da norgehiagoka. Jakinda Bergarakoek, gainera, bolada ona zutela, gogorrak direla, euren zelaian izan dela partidua eta belarrezko zelaia bustita zegoela, uste dut berdinketa nahiko emaitza ona izan dela.



Andoni Amutxastegi.

Aukera onazengaurkoak bergararrekin zenuten alde handitzeko, baina azkenean, ezin.

Horretara gentozen. Gainera, joan den astean ere berdinketa lortu ostean, gure helburua zen gaurkoa irabaztea. Aste honetan puntu bat lortzea positiboa izan da.

Bigarren berdinketa lortu duzue segidan. Nola planteatzen duzue hurrengo partidua, Tolosaren kontra jokatuko duzue?

Partidua etxean izango dela kontutan hartuta, partidua guztietan moduan irabaztera irtengo gara gu. Gero ikusi egin beharko da nola joango diren gauzak, baina gure helburua irabaztea izango da.

ANDONI NAFARRATE | BERGARAKO JOKALARIA

"Baliteke puntu bat baino gehiago merezi izana, baina gol barik, ez dago irabazterik"

Etxean jokatu arren, ez zuten Aretxabaletaren kontra puntu bat baino gehiago ateratzerik lortu. Zazpigarren postuan daude sailkapenean, jardunaldi honetan areio izan duten taldeetako puntu bakar batera.

Etxean jokatu duzue, baina ezin garaipena lortu.

Normalean derbiak partidua gogorrak izaten dira. Gu geu saiatu gara, aukerak izan ditugu, baina ez dugu gola sartzerik izan.

Askok hurbildu zarete Aretxabaletaren areara, aukerak ere izan dituzue, baina ezin.

Akaso guk izango dugu aukera gehiago eta baliteke puntutxo bat baino gehiago merezi izana. Baina azkenean



Andoni Nafarrate.

futboleko, golik egin ezean, ez dago irabazterik.

Joan den astean galdu egin zenuten, honetan berdindu. Berriz ere bide onari ekin diozue?

Egia esan behar bada, ez zigen asko eragin joan den astean jokatutako partidua galdu izanak,

taldea ondo ibili zen eta. Gaur ere ondo ibili gara, eta ea martxa horri jarraitzerik diogun.

UDA oraindik puntu bakarrera duzue. Aurrera begira, zein da helburua?

Esan bezala, martxa berean jarraitzea da helburua, eta lehenbailehen jaitziera ekiditeko behar beste puntu lortzea. Gero, ahalik eta goren geratu, hobeto.



Bi taldeak nor baino nor ibili ziren uneoro. | J.A.

HERRI KIROLAK | Migeltxo Saralegi eta Idoia Etxeberria, bikain Bergaran | 26

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñak puntu bat lortu du asteburuan, eta Mondra esku hutsik geratu da

Aloñak aurre egin zion Anaitasunari; Real Unionek bere menpe hartu zituen arrasatearrak

EMAITZA

MONDRA

1-2

REAL UNION

EMAITZA

ALOÑA MENDI

2-2

ANAITASUNA

Real Unionen bi goleak zapuztu egin zituzten asmoak: lehen gola 40. minutuan izan zen eta bigarrena, atsedenalitik itzuli eta hamar minutura. Azken minutuetan arrasatearrek erreakzionatu egin zuten eta, lehia bukatzeko bost-hamar minuturen faltan, Garik etxekoendako gola sartu zuen. Ordurako beranduegi zen eta hiru puntuak Irunera joan ziren. Iban Rodriguez Mondraren entrenatzailearen hitzetan, ondo ikusi zituen jokalaria, baina akatsek "pikutara" bota zituzten egindako ahaleginak.

Azkoagainen, berdinketa
Oñatiarrek azken jardunaldietako bide onari jarraitu zioten atzo jendez bete zen Azkoagainen, eta puntu bat lortu zuten.

Hamargarren minutuan Anaitasunak egin zuen lehen gola, baina gero oñatiarrek aurrea hartzea lortu zuten: Josu Juaristik hogeitamargarren minutuan gola egin zuen, eta bigarren zatia hasi eta hamar minutura, Idigorasek. Azkenean azkoitiarrek euren bigarren gola sartu zuten, eta berdinketarekin bukatu zen partidua. Aitor Orueta oñatiarren entrenatzailea pozik zegoen; bere esanetan, taldeak erakutsi zuelako "partiduen bila joaten" direla.

T.M. | ARRASATE
Mondrak eta Aloñak, biek ala biek sailkapeneko goiko postuetan dabiltzan taldeen bisita jaso dute asteburuan: arrasatearrek Real Unionen kontra jokatu zuten zapatuan, eta oñatiarrek Anaitasunaren kontra.

Hiru puntuak, Irunera
Partiduaren lehen zatian irundarrei bere zelaian itxarotea zen Mondraren asmoa, eta bigarren zatiko azken txanpan golaren bila joatea.



Mondrako mutilek ezin izan zuten punturik eskuratu. | JAL



Aloñak aurkari gogorraren aurka berdinketa lortu zuen. | J.A.

IGOERA FASEA



Mondrako neskek erraz irabazi zuten norgehiagoka. | J.A.

Arrasatearrek ez zuten gupidarik izan Mojategin

Jon Zuloagaren taldeak 9-0 hartu zituen mendean Hondarribiako neskek

TXOMIN MADINA | ARRASATE
Mondrako neskek euren errekorra hautsi zuten atzo Mojategin jokaturako partiduan: bederatzi gol egin zizkioten Hondarribiako taldeari, arrasatearrek inoiz lortutako markarik onena.

Azken emaitza ikusita pentsa daitekeena baino gehiago kosta zitzaien arrasatearrei lehen gola egitea. Partidua hasi eta hamar minutura heldu zen etxekoen lehen sareratzea eta Eider Zeziga izan zen beronen egilea.

Hamar minutu beranduago Zeziga bera izan zen bigarrena markatu zuena.

Gol festa
Lehenengo zatia bukatu aurretik, beste bost gol egin zituzten Jon Zuloagaren neskek, eta bigarren zatian, bi gehiago. Maitane Roak denera bost gol sartu zituen eta Tania Diazek eta Lide Zubiagak bana. Atzoko garaipenarekin Bigarren dira arrasatearrak, lider den zarautzekin puntutan Zarautzekin berdinduta.



eta beste bost kanpokoentzat. Sailkapenari dagokionez, orpo-orpo jarraitzen dute bi taldeek: UDAk 34 puntu ditu, eta Bergarak, 33.





Azken momentura arte ez zen debagoiendarren arteko lehia erabaki. | JOSETXO ARANTZABAL

ESANAK

"Bagenekien partidua oso estua izango zela; badirudi irabazteko beldurra dugula"

GORKA KINTANA | MU-KO JOKALARIA

"Gaztetasunagatik eurak biziagoak izan arren, esperientzia izan da gaur gakoa"

ANDER MALLABIABARRENA | ALOÑAKO

JOKALARIA

SASKIBALOIA

Puntu bakarreko aldeagatik, garaipena oñatiarrentzat

- Berdintasuna izan zen nagusi debagoiendarren arteko lehia
- Azken bost segunduetan erabaki zen norgehiagoka

EMAITZA

MU

86-87

SUSTRAI ALOÑA

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Zapatuan Arrasateko Iturripera hurbildu zenak tentsio, intentsitate eta joko handiko saskibaloia partidua ikusi zuen. Ibarreko bi talde zeuden aurrez aurre, MU eta Sustrai Aloña, eta bi taldeetako jarraitzaile asko bildu ziren harmailetan.

Kantxan, berdintasuna izan zen nagusi eta hori agerian gertatu zen da azken emaitzari begiratuz gero: puntu bakarragatik irabazi zuten oñatiarrek. Epaileak partidu amaiera adierazi zuenerako, baina, bi taldeek behin baino gehiagotan hartua zioten elkarri aurrea markagailuan.

Bukaera, borrokatua

Lehen bi laurdenak oñatiarrentzat izan baziren ere, aldeak ez ziren oso handiak izan: lehenengo laurdena 17-18 amaitu zen; bigarrena, aldiz, 35-40.

Hirugarren laurdenean, baina, arrasatearrek buelta eman zioten partiduari eta zenbait momentu-

tan, markagailua berdinduta egon zen. Azkenean, 60-56 amaitu zen laurdena. Laugarren laurdenean etxekoek aldea handitzea lortu zuten, eta zenbait unetan bederratzitzi puntuko aldea atera zieten oñatiarrei: 67-58 eta 74-63. Laurdenaren azken minutuetan, giroa berotu egin zen, bai harmailetan eta baita kantxan ere.

Xabier Igartuaren mutilek, baina, kontra zuten markagailuaren aurrean erreakzionatzen jakin zuten: burua hotz eta ezer galdutzat eman gabe, aldea murriztea lortu zuten. Lehia bukatzeko bi minuturen faltan, 78 puntura zeuden berdinduta bi taldeak. Azkenean, besteak beste Jakobak sartutako bi hirukori eta bost segundoren faltan Iñigo Biainek egindako saskiratzeari esker, garaipena Oñatira joan zen.

Ibarrekoen arteko lehia, baina, kantxan geratu zen: kiroltasunaren adierazle, bi taldeetakoak batera joan ziren afltzerara.



ESKUBALOIA

JOSETXO ARANTZABAL

ESKUBALOIA

Soraluce BKEk garaipena eskuratu zuen Hondarribian

T.M. | ARRASATE

Hasieran, behintzat, gogorra zirudien atzo bergarrek Hondarribiaren kontra jokatutako norgehiagokak, Bidasoaldekoak sailkapeneko goiko postuetan dabiltza-eta. Baina lehenengo momentutik bergarrek aurrea hartu zieten aurkariei, eta aurreratzeari etekina atera zioten. Hala, defentsan egindako lan onari eta erasoan fin ibili izanari esker, atsedenaldira zazpi goleko aldearekin joan ziren, 11-18. Bigarren zatian, gol bat gora gol bat behera, lortutako aldeari eustea lortu zuten debagoiendarrek, eta azkenean 25-31 geratu zen markagailua. Bergararrak, lortutako garaipenari esker, euren arerio zuzenak diren Portugaleterekin berdinduta daude orain sailkapenean.

ESKUBALOIA

Hamaulauna berdindu zuten Aloñako neskek Erreterian

T.M. | ARRASATE

Erreterriako Ereintza taldea izan zuten aurkari Aloñako neskek zapatuan jokatutako norgehiagokan. Gorabehera handiko norgehiagoka izan zen eta azkenean 14-14 bukatu zen lehia.

Hasi, oñatiarrek hasi ziren irabazten, baina bigarren zati hasieran erritmoa jaitsi eta Ereintzakoek berdindu eta aurrea hartzea lortu zuten. Partidu amaiera aldera Aloñakoek berriz ere erreakzionatu zuten, baina beranduegi izan zen: golak sartzea lortu arren, hutsegiteak ere egin zituzten eta horren ondorioz, berdinketarekin itzuli behar izan zuten Oñatira. Sailkapenari dagokionez, oñatiarrek seigarrenak izaten jarraitzen dute. Jauja Akilape izango dute hurrengo aurkaria.

Lider jarraitzeko balio duen garaipena

31-29 irabazi zuten zapatuan Ford Mugarriko mutilek Romoren kontra. Norgehiagokaren lehen minutuak parekatuak izan ziren arren, hortik aurrera arrasatearrek hartu zuten kontrola, eta hiru goleko aldearekin joan ziren atsedenaldira. Bigarren zatian nagusi jarraitu zuten etxekoek, baina azken bost minutuetan bizkaitarrek aldea murriztea lortu zuten. Edu Orgaz arrasatearren entrenatzailearen esanetan, min hartuta dagoen Josu Herrero falta arren, gainerako jokalariek nahiko lan ona egin zuten.

TENISA

Arrasateko taldea izan da garaile VNRC deritzon tenis txapelketan

4-3 irabazi dio Arrasatek Oñatiko Aloña Mendiri; zapatuan 1-3 galtzen joan arren, domekako hiru partiduak oso erraz irabazi zituen

AMAI TXINTXURRETA | ARRASATE

Teniseko zazpi partidu jokatu dituzte asteburuan Arrasateko Musakolako Kiroldegian. Arrasateko AKE eta Oñatiko Aloña Mendi nor baino nor ibili dira eta azkenean arrasatearrek lortu dute garaipena 4 eta 3ko emaitzarekin.

Zapatuan, Aloña irabazten

Zapatuan lau partidu jokatu zituzten eta horietatik hiru irabazi zituzten oñatiarrek; Eneko Ugalde oñatiarrak Eneko Fernandez arrasatearrari irabazi zion eta Jose Caballerok (Aloña) Aitor Baltategi garaitu zuen. Bikoteka, bestalde, Ugalde eta Caballero oñatiarrek irabazi egin zieten Aitor Baltategiri eta Julen Etxaberi. Arrasatearrek zapatuko lehenengo puntua lortu zuten, Fernandezek eta Iñaki Zabalak Jorge Santosi eta Jon Lopezi irabazi eta gero.

Arrasatearrek gogotsu

Domekan, bestalde, AKEkoek irabazi zituzten hiru partiduak; Joseba Azkargortak irabazi zion Alberto Munoz, Sebas Sierrak Jon Lopezi eta Kepa Aranbarrik Santosi.

Eneko Fernandez antolatzailearen arabera, zapatuko partiduak "nahiko berdinduta" joan



Eneko Fernandez Arrasateko jokalaria, Eneko Ugalderen aurkako partiduan. | JOSETXO ARANTZABAL

ziren "Arrasatekoen esperientzia falta igarri da eta ez ditugu aprobetxatu aukerak". Domekan, berriz, "oso erraz" irabazi zituzten partiduak. Gaineratu du Oñatiko Jesus Kortabarria eta Jose Luis Morenok ezin izan dutela txapelketan parte hartu eta horien falta igarri dutela Aloñaekoek

"esperientzia handia" dutelako bi jokalariek.

VNRC tenis txapelketa

VascoNavarroRiojanoCantabro (VNRC) deritzon txapelketa izan da asteburukoa. Azken urteetan Arrasate eta Aloña taldeek ez dute parte hartu izan txapelketa

horretan. Hala ere, aurtan Deba-goieneko bi talde horiek animatu egin dira txapelketan parte hartzera.

'Talde laranja'

Arrasateko AKE eta Oñatiko Aloña, Muskizeko Otxoak eta Peña Vitoriana taldeekin batera

ESANAK

"Balorzio positiboa egiten dugu aspaldiko ohitura berreskuratu dugulako"

ENEKO FERNANDEZ | ANTOLATZAILEA

"Partiduak gogorak izan diren arren, gure esperientzia eta lasaitasuna asko igarri da"

ENEKO UGALDE | ALOÑA KO JOKALARIA

dago *Talde laranja*-n eta hirugarren mailan lehiatzen ari dira taldeak. *Talde laranja*-n lehenengo gelditzen den taldeak, gainera, aukera izango du bigarren kategoriara promozionatzeko.

Santamasetako sari banaketa

VNRC tenis txapelketa aprobetxatuta, Santamasetako banakako tenis txapelketako sariak banatu zituzten zapatu goizean. Jorge Aranesek jaso zuen urrezko garaikurra eta oso pozik azaldu zen: "Eneko Ugalderen aurkako partidua oso gogorra eta luzea izan zen, hiru ordu ibili ginen jokoan eta azkenean neuk irabazteak poz handia eman zidan".

ARETO FUTBOLA

Partidua irabazten joan arren, gaizki defendatu eta 3-5 galdu zuten azkenean

3-1 irabazten zihoazela, golak sartzeko hiruzpalau aukera izan zituzten



Eskoriatzako mutilak baloia jabe izan ziren partiduko une batzuetan. | J.A.

A.T. | ESKORIATZA

Eskoriatzak Goierriren aurkako partidua jokatu zuen zapatuan, Euskal Ligan. Jon Barandiaran jokariaren arabera Goierrikoak "aurkari gogorrak" dira eta 0-1 galtzen hasi ziren eskoriatzarrak. Lehenengo zatia, baina, 2-1 eurek irabazten bukatu zuten. Eskoriatzakoen lehenengo gola Bitxor Carovallaresena izan zen, eta bigarrena, Jorge Morarena.

Bigarren zatian kontraeraso batean Julen Iabek hirugarren gola sartu zuen, eskoriatzarren alde. Gero, golak sartzeko beste hiruzpalau aukera ere izan zituzten eskoriatzarrek, baina ez zituzten aprobetxatu.

Bi minututan hiru gol

Aurkariak beste gol bat sartu eta 3-2 irabazten zihoazen Eskoriatzakoak. Goierritarrak jokari bat gutxiagorekin gelditu ziren eta bi minutu horietan eskoriatzarrak oharkabetu, gaizki defendatu eta Goierrikoek hiru gol sartu zizkieten.

Barandiaran jokariak dio: "Partidua irabazita geneukan, eta pena izan da galtzea". Hala ere, gaineratu du helburua dau den lekuan jarraitzea dela.

RUGBY

Hiru kaleratu eta bi lesionatuta bueltatu ziren

A.T. | ARRASATE

Arrasate Rugby taldeak ezin izan zuen garaitu Hernani, Euskal Ligan. Azkeneko minutuak arte partidua nahiko berdinduta izan zen, baina 12-19ko emaitzarekin galdu zuten. Behintzat defentsako bonusa eskuratu zuten.

Epaileak eragin handia izan zuen talde arrasatearren: hiru jokari kaleratu zituen. Hori gutxi balitz, Agirrezabal eta Serbide jokariak lesionatu egin ziren. Biek ala biek buruko kolpeak jaso zituzten eta bekokia zabaldua, pare bat puntu jaso behar izan zituzten.

Hala ere, Unai Aranburu kapitainak dio "partiduan aurpegia eman" zutela, "indartsu" ibili zirela eta "jokoaren ikuspuntutik, zapora onarekin" bueltatu zirela.

Hasi dute denboraldia Arrasate Dragoi eta Ariznoak

Zapatu arratsaldeko saioa atzeratu egin zen eguerdian Uarkapeko sistema elektrikoak su hartu zuelako

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Gipuzkoako Eskolarteko A mailako txapelketako gimnasiako lehenengo fasea izan zen zapatuan Uarkapen. Bertara, Gipuzkoako

gimnasta onenak etorri ziren lehiatzera; Arrasate Dragoi eta Bergarako Ariznoak denboraldiari hasiera eman zioten. Arratsaldeko saioa, baina, atzeratu

egin behar izan zuten Uarkapeko sabaiko sistema elektrikoak sua hartu zuelako eguerdi partean. "Pilotaleku barruan ke asko zegoen eta ezin izan genuen txapelketa-rekin jarraitu" esan du Edurne Elkoro Dragoi taldeko entrena-tzaileak.

Infantilak lehian

Dragoi taldeko 11 neskak hartu behar zuten parte hasiera batean, baina azkenean goizeko saioan infantil A mailakoak bakarrik lehiatu ziren; bosgarren postuan gelditu ziren bost uztailekin.

Bergarako 26 neska

Ariznoako 26 neska izan ziren. Alebinetan bigarren gelditu ziren, infantiletan hirugarren, banakako alebinetan Mariana Nunes bosgarren, infantiletako Sonia Gonzalez hirugarren, Jone Ola-berria laugarren, banakako kade-teetan Jenifer Pineda hirugarren eta Ane Miren Mugurutza lau-garren.



Txapelketan parte hartu zuen neskatila bat, bere ariketa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

Saralegi eta Etxeberria primeran aritu ziren harria jasotzen

A.T. | BERGARA
Migeltxo Saralegi eta Idoia Etxeberria harri-jasotzaileek erakustaldia egin zuten domekan Bergarako Murinondo auzoan.

Saralegi hasi zen harriak jasotzen eta, berotzen hasteko, 100 kiloko esferikoa jaso zuen hamabi aldiz lepoaren bueltan. Horrez gain, 200 kiloko laukizuzenarekin sei jasoaldi ere egin zituen, eta bere azkeneko jasoaldian 250 kiloko harria hartu zuen Leitzako harri-jasotzaileak.

Etxeberria, berriz, 63 kiloko esferikoa altxatzen hasi zen eta hamabi aldiz igo zuen gerritik gora. Ondoren, 80 kiloko kubi-

koarekin sei jasoaldi egin zituen, eta azkenik, hemezortzi urte besterik ez dituen emakumeak 100 kiloko laukiluzea sei aldiz jaso zuen.

Harri-jasotzaileek aurtan ez dute markarik hautsi. Hala ere, Juan Jose Gabilondo auzo-alkateak esan du orain hamabost bat urte 300 kilotako harria jaso zuela Saralegik Murinondo auzoan San Blas jaietan.

Giro ezin hobea

Auzotarrez gain, kanpoko jendea ere bertaratu zen erakustaldiarekin gozatzer. Auzotarrrek salda banatu zuten eta, trikitilariak eta eguraldia lagun, giro aparta egon zen.



Etxeberria 100 kiloko harria jasotzen. | J.A.

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Mondra-Real Union	1-2
Aloña Mendi-Anaitasuna	2-2
Hondarribia-Aurrera	0-0
Trintxerpe-Ordizia	4-0
Roteta-Hernani	4-2
Zumaia-Pasajes	2-3
Oiartzun-Idiazabal	3-0
Bergara-Aretxabaleta	0-0
Berio-Tolosa	1-2

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Pasajes	46	21
2 Hernani	45	21
3 Real Union	43	21
4 Anaitasuna	42	21
5 Oiartzun	35	21
6 Aretxabaleta	34	21
7 Bergara	33	21
8 Tolosa	32	21
9 Trintxerpe	28	21
10 Aurrera	28	21
11 Hondarribia	26	21
12 Mondra	25	21
13 Berio	24	21
14 Idiazabal	19	21
15 Aloña Mendi	20	21
16 Ordizia	17	21
17 Roteta	15	21
18 Zumaia	12	21

HURRENGO JARDUNALDIA

Mondra-Berio
Real Unioni-Aloña Mendi
Anaitasuna-Hondarribia
Aurrera-Trintxerpe
Ordizia-Roteta
Hernani-Zumaia
Pasajes-Oiartzun
Idiazabal-Bergara
Aretxabaleta-Tolosa

ERREGIONAL PREFERENTEA

Aretxabaleta B-Urola	0-2
Tolosa B-Antzuola	3-3
Lagun Onak-Mondra B	3-1

1. ERREGIONALA, IGOERA

Martutene B-BergaraB	1-4
----------------------	-----

1. ERREGIONALA, KOPA

Aretxabaleta C-Mutrikuarrak	3-1
-----------------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK - IGOERA

Aloña Mendi-Euskalduna	1-1
Mondra-Beasain	1-2

LEHEN MAILAKO GAZTEAK - IGOERA

Dunboa Eguzki-Arizmendi	2-6
-------------------------	-----

LEHEN MAILAKO GAZTEAK - KOPA

Arizmendi UDA B-Bergara B	2-0
Soraluze-Aretxabaleta B	1-2

OHOREZKO KADETEAK - KOPA

Beasain-Bergara	2-1
Aretxabaleta Arizmendi-Zumaia	3-1

EMAKUMEZKOAK

Mondra-Hondarribia	9-0
Hernani-Arizmendi	3-2

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ford Mugarri A-Romo Indupime	31-29
B. Hondarribia-Soraluce BKE	25-31

EMAKUMEZKOAK

Ereintza-Aloña Mendi	14-14
----------------------	-------

LEHENENGO TERRITORIALA

Arrasate-Ordizia	21-37
------------------	-------

BIGARREN TERRITORIALA

Talleres Ondo-Aloña Mendi	16-36
---------------------------	-------

ARETO FUTBOLA

GIPUZKOAKO BIGARREN M.

Billkoin Legorreta-Aretxabaleta	3-2
---------------------------------	-----

GIPUZKOAKO HIRUGARREN M.

Gamon Aker-Aloña Mendi	1-0
------------------------	-----

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

Hernani-Arrasate	19-12
------------------	-------

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA NAZIONALA

MU-Sustrai Aloña	86-87
------------------	-------

SENIOR GIZONEZKOAK

MU-Santo Tomas Lizeoa	72-64
-----------------------	-------

SENIOR GIZONEZ, 2. MAILA

Sustrai Aloña-Leihoak Zast ZKE	62-67
--------------------------------	-------

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Oiarso-Eskoriatza	28-51
-------------------	-------

GAZTE GIZONEZKOAK, PARTA.

Soraluce BKE-Inter Mons	57-55
Santo Tomas Lizeoa-MU B	67-44

GAZTE EMAKUMEZKOAK, PAR.

Oiartzun-Aloña Mendi	38-24
----------------------	-------

KADETE GIZONEZ, PARTA.

Erroibide Irun-Soraluce BKE	40-47
Santo Tomas-Aloña Mendi	59-50

KADETE EMAKUMEZ, PARTAID.

Arizmendi Eskoriatza-La Salle	18-41
-------------------------------	-------

GU RE KI RO LA

GOIENA TELEBIS-
TA HARMAILATIK
ASTELEHENERO,
20:45, 22:30



goiena

Iban Velasco | Euskatel-Euskadiko txirrindularia

"Aurrera egin gurako nuke eta, noski, etaparen bat irabazteko lehiatu"

- Euskal Herriko Itzulirako bere mailarik onenean izatea espero du txirrindulari arrasatearrak
- Aurten ere Frantziako Tourrean izango da eta Samuel Sanchezzi laguntzea izango du helburu

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Iban Velasco txirrindulari arrasatearrak denboraldi berria prestatzen dihardu. Dagoeneko egin du denboraldiko lehenengo proba, Australian. Eguaztenean, bere talde Euskatel-Euskadirekin Arantzazun izan zen, Ama Birjinari deboraldi berrirako laguntza eskatzen; eta ez hori bakarrik, lore eskaintza ere egin zioten. Hasierako plana Donostiatik Arantzazura bizikletan joatea zen, baina eguraldi txarra zela eta ezin izan zuten egin. Denboraldi berria ilusioarekin hasi duela adierazi du.

Euskatel-Euskadi taldekook Arantzazura etorri zarete laguntza eskatzera. Beharrezkoa da zuena bezalako lanbide baten?

Laguntza izatea beharrezkoa da, gure lanbidean zorte ona izatea ezinbestekoa da. Ziklismoan, lesioek errespetatu egin behar zaituzte denboraldi polita egiteko.

Taldearentzako leku esanguratsua da Arantzazu. Izan ere, orain dela 18 urte taldea aurkeztu zuten lekua da.

Ni gaztea naiz eta ez nekien taldea lehenengo aldiz hemen aurkeztu zena. Polita da taldearen jatorrira berriz ere etortzea.


Eguenean aurkeztu zenuten taldea, Donostian, baina dagoeneko denboraldia prestatzen hasi eta Australiako Cancer Council Helpline Classic lasterketan parte hartu duzue. Nola joan da?

Nahiko ondo; oraindik denboraldi-aurrea da eta ez dut sasoia guztiz hartu. Australian uda da eta 40 graduko tenperatura izan genuen lasterketan. Hotzarekin baino hobeto nabil ni beroarekin, baina oraindik sasoia lortzeko lanean jarraitu behar dut. Nire helburua da apirilean Euskal Herriko Itzulirako eta Tirreno-Adriatikorako sasoian egotea. **Txirrindulariek sasoia hartzeko eta txapelketa erritmoa hartzeko probak dira Australian jokaturakoa bezalakoak?**

Bai, horretarako balio dute. Orain garrantzitsuena kilometroak egitea da, txapelketa nagusiak etortzen direnerako sasoiko egoteko.

Orokorrean, zer moduz egon da taldea Australian?

Oso ondo. Adibidez, Gorka Izagirre oso ondo ibili da eta esprint berezien saria eskuratu du. Pena da denboraldiko lehenengo proba izatea; izan ere, gogortasun



Iban Velasco, Arantzazuko basilikan. | JULEN IRIONDO

txikia egon da eta esprinterrek erraz irabazi dute.

Australiako 40 graduetatik hementxo ia 0 graduera pasa zara. Zer moduz aldaketa?

Nik oso gaizki jasaten ditut aldaketak. Alde batetik, *jet lag*-a izan dut; eta, bestetik, nahiz eta aurten euri gutxi egin, eguraldi hotzak ez du laguntzen.

Aurten zein lasterketatan parte hartuko duzu?

Lehenengoa Australiakoa izan da, aste honetan Mallorcara goaz eta ondoren Frantziako lasterke-

"Iazko Euskal Herriko Itzulian emandako maila errepikatu nahi dut"

"Aurten ere taldeak denboraldi polita egingo duela uste dut"

ta baten parte hartuko dut. Horren ostean, egutegi gogorra dator: Tirreno-Adriatiko, Nazioarteko Kriteriuma, Lizarrako lasterketa, Euskal Herriko Itzulia, Amstel Gold Race, Fleche-Wallone eta Liege-Bastogne-Liege egingo ditut. Gero, eten bat egingo dut eta ondoren, Dauphine-Libere eta Frantziako Tourra egingo ditut.

Noiz izango dugu Iban Velasco onena ikusteko aukera?

Iaz Euskal Herriko Itzuli polita egin nuen eta aurten errepikatu

egin gurako nuke. Apirilerako %100ean egotea espero dut.

Frantziako Tourra ere berezia izango da.

Bai oso berezia. Liege-Bastogne-Liege lasterketaren ostean etena egingo dut. Ordurako hantetan kilometro asko izango ditut, eta atseden hartzeko momentu egokia dela uste dut. Gero, lasaitasunez, Frantziako Tourra prestatuko dut eta espero dut han ere %100ean egotea.

Zein da Tourrerako duzun helburua?

Samuel Sanchezzi laguntzea da helburua. Hura da taldeko liderra eta ahalik eta goren egoteko taldekideon laguntza ezinbestekoa da. Baina horrek ez du esan nahi beste taldekide guztiek ez dugunik aukerarik izango, zertarako gai garen erakusteko leku paregabea da Frantziako Tourra.

Zure lagun Markel Irizarrek ere Tourrean parte hartzeko aurretiko hautaketan sartu da. Gurako zenuke harekin lehiatu?

Biok batera Tourrean lehiatzeko aukera izatea oso pozgarria izango litzateke. Oraindik ez dakigu parte hartuko duen edo ez, baina bai, gurako nuke harekin batera Tourrean lehiatu.

Taldeak Italiako Giroa eta Espainiako Itzulia ere egingo ditu. Bietan Igor Anton izango da taldeburu. Nola ikusten duzu?

Italian Igor Antonekin batera Mikel Nieve izango da taldeko buru eta biek Giro polita egiteko aukerak dituzte. Espainiako Itzuliari dagokionez, berriz, oso menditsua da, Igor Antonentzat aproposa.

Urteak pasa ahala, mendiko etapetan batez ere, aurrean ibili zara, onenen artean. Aurten urrats bat aurrera egin eta etaparen bat irabazteko borrokatuko zara?

Hori da nire helburua. Aurrera egin gurako nuke, saltoa ematea, eta aurrekoekin bakarrik ez, etaparen bat irabaztea ere ondo egongo litzateke. Edozein etapa irabazi gurako nuke. Euskal Herriko Itzulia, etxean izanda, berezia izango litzateke.

Euskaltelen aldaketa asko izan dira. Nola ikusten duzu taldea?

Beñat Intxaustiren baja garrantzitsua da, talderako txirrindulari garrantzitsua zen, baina lehiakorra den jende asko etorri da eta denboraldi polita egingo dugula uste dut.

Pedagogia sistemikoa: eskolako egoerak hobeto ulertzeko erreminta

Arrasateko Herri Eskolako bi irakasle Bilboko jardunaldian izango dira

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Pedagogia sistemikoak gelako eguneroko egoerak, arazoak eta gatazkak bideratzeko laguntza ematen du. Pertsonen atzean dauden dinamikak ikusarazten ditu.

"Irakasleok, askotan, ikaslea testuinguru batetik aterako bagenu bezala ikusten dugu [...], eta ez da horrela. Haurrak familia testuinguru bat dakar eta, euren modura, familiako problematikak esko-

lan adieraziko dituzte". Bakeolak, Gatazketarako Bitartekaritza Zentroak, jardunaldia egingo du Bilbon hilaren 25ean. Arrasateko Herri Eskolako zuzendari Josune Etxabe eta irakasle Elena Zubizarreta han izango dira, eskolako esperientzien berri ematen. Biek ere masterra dute pedagogia sistemikoan.

Familia konstelazioak

Pertsonen atzean dauden dinamikak ikusarazteko, familia konstelazioen tresna erabiltzen dute pedagogia sistemikoan. Gatazka konpondu nahi dutenak biltzen dira eta gatazkaren partaide diren pertsonen papera jokatzeko dute, antzerki batean bezala. Egoera hobeto ulertzeko eta irtenbideak ikusteko balio du.



Ikasleak ikasgela batean. | NATHA 1308

Array teknika: jaio aurreko eta osteko diagnostikoa egiteko teknika berritzailea

90 syndrome baino gehiago diagnostikatzeko aukera ematen duen proba; prezioa, 1.100 euro



Haurdun dagoen emakume baten sabela. | MARIA PAZ VARGAS

L.Z. | ARRASATE

Array teknika berriaren inguruko jardunaldia egin dute asteon Gipuzkoako Poliklinikan. Teknika guztiz berritzailea dela diote ospitale horretako Genetika Zellularreko Unitatean. Array teknikak edozein azterketa genetiko egiteko aukera ematen du, baina KaryoNim izeneko proba espezifiko diseinatu dute jaio aurreko eta osteko diagnostikoa egin ahal izateko. Kariotipoaren 15.000 zati aztertzen ditu proba horrek, tartean adimen minusbaliotasunak zein sortzetiko malformazioak sortzen dituzten 98 sindromeren ezaugarriak. Orain arte aplikatutako teknikak genomaren 500 atal aztertzen zituen eta minusbaliotasunen %5-10 detektatzen zituen; Array teknikarekin 15.000 atal aztertzen dira eta detekzioa %30-35 da.



Ipuina kontatzen. | NOTICIASMIAS2002

Ipuinen bidez umeei irudimena, sentsibilitatea eta jakintza lantzen dituzte

Antton Irusta kontalaria: "Ipuin irakurriak ez du edukiko ahozkoaren erakarmen edo lilurarik"

L.Z. | ARRASATE

Antton Irustaren artikulu intergarria argitaratu du *Behinola* aldizkariak 22. zenbakian. Ahoz kontatutako ipuinen bertuteak nabarmentzen ditu Irustak idazlan horretan. Besteak beste, hizkuntza ekintza pribilegiatua dela azpimarratzen du: "Ipuinak garrantzi handia du hizkuntzaren garapen eta eskuratzeko horretan. Haurrari mundua izendatzeko baliabideak aberasten laguntzen dio. Lehen sei-zazpi urteetan hasten dira hizkuntza bereganatzen, eta batez ere gurasoen ahotsaren bidez egiten dute".

Bidaia exotikoa

Ipuina bidaia exotikoa eta abenturak osatutakoa dela dio Irustak. "Ipuinak haurra munduaren aurrean jartzen du irudimena bidez. Gutxienez, bi gauza eskaintzen dizkio: alde batetik, babesa. Babes psikologikoa gurasoen ahotsaren bidez, gurasoen ahotsak haurra babesturik sentiarazten du, eta ipuina kontatzen dabilen heinean, babes hori nolabait indartu egiten da; beste alde batetik, buruan jasotzen ari den ezagutzak eta ikuspegiak ordenatzen laguntzen dio haurrari".

Babes iturri ere badira

Ipuinek haurrei eskaintzen dieten babesaren gainean, Irustak dio nolabaiteko lasaitasuna eta

esperantza ematen dutela: "Hazi-ko zara, eta orain egundoko gauzak eta beldurgarriak iruditzen zaizkizun horiek gerozuk zerorrek dominatuko dituzu". Gaineratzen du ipuinak aukera ematen diola haurrari edozein lekutara eta edozein denboratarara joateko, eta horrek nolabait jakin-mina edo ikasteko grina ere ematen diola haurrari.

Afektua eta estimua

Ipuinek afektuaren dohaina ere eskaintzen dute. "Umetxo bati ipuin bat kontatzean zera dio: 'Begara, ipuintxo bat estimua handiz kontatzena noakizu. Kontatzen dizut estimatzen zaitudalako, maite zaitudalako, baloratzen zaitudalako'. Eta dohain hori estimuaren dohaina da.

"Horregatik guztirengatik, kontalaririk bikainenak gurasoak dira", dio Irustak; eta Pako Abril ipuin-kontalariaren hitzak jaso ditu: "Ipuinik hunkigarrienak eta osasungarrienak, zalan-tza barik, gurasoek seme-alabei kontaturikoak ditugu. Portaera afektibo horrekin hazten den haurra osasuntsuago haziko da eta, munduan aurkituko dituen oztopoak gainditzeko ahalmen gehiago izango du".

Azkenik, gogoan hartu behar da ipuin bat kontatzeko orduan funtsezkoena komunikatzeko desioa dela.

OHARRAK

AURRE-MATRIKULAZIOA

Datorren ikasturterako aurrematrikulazio epea zabalik dago. Asteon, hilaren 11 duzue aurrematrikulazioa egiteko azken eguna. Gogora ezazue aurten Eusko Jaurlaritzak aukera ematen duela lan hori Internet bidez egiteko. Dena den, lehenengo aukerako ikastetxean, agiriak eskuz bete behar dira.

ANDONI EGAÑA OÑATIN

Oñatiko Zuazola-Larraña institutuan izango da Andoni Egaña bertsolari eta euskararen iker-tzailea egunean, hilak 10. Euskararen eguneroko erabilera eta ahozkotitasuna izango ditu hizpide. Guraso guztiei zabaldutako hitzaldia da. 18:00etan emango diote hasiera, institutuko areto nagusian.

LUDETEKA IBILTARIA

Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria martxan da. Zapatuan zabaldu zituen ateak, Arrasateko Musakola auzoko San Antolin ikastetxe ondoko eraikin urdinean. Bertan egongo da otsaileko zapatuetan, 10:30etik 13:00etara. Jolas tradizionalak, kooperatiboak, euskaldunak... Aukera zabala izango dute neska-mutikoei.



KULTURA



Ain_1 taldeko kideak Arrasateko gaztetxean 'Musika kaxa' ikuskizuneko une batetan. | JOSETXO ARANTZABAL

Sensibilitate artistiko femeninoa belarri guztiendako gozagarri

Musika kaxa gorriak taula gainekoak eta ikusleak bat egitea lortu zuen

AITZIBER ARANBURUZABALA | ARRASATE
Ezohiko itxura zuen egubakoitz gauean Arrasateko Gaztetxeak: eszenatokiaren aurrean, mahaiak eta aulkiak, horien gainean paper gorriak; kandela gorri txikiak nonahi eta ikuslegoaren artean, ohi baino emakume gehiago, horietako asko helduak.

Taularen gainean ere, ezohiko irudia: bost emakume, eskuetan gitarrak, biolina, kaxa fla-

menkoa, xilofonoa eta musika kaxa gorri bat. *Musika kaxa* proiektuak ere, aurrekoak moduan (*Gure abestia iristen da leku guztietaraino*), musika, poesia eta dantza uztartzen ditu.

Estreinaldian berrikuntzak
Lehenengo aldia zen taldeko bost kideak elkarrekin eszenatokian zeudela; ez zen, baina, hori izan nobedade bakarra: orain arte ez

moduan, Amaia Pavon (biolina eta xilofonoa) eta Maialen Mada-riaga (flamenko kaxa) kantuan entzun genituen; Ainara Kortabarriak (ahotsa eta gitarra) sekulako abilezia erakutsi zuen flamenkoa dantzatzeko eta baita flamenko kaxa jotzeko ere.

Mandragora edabea ez da Ain_1 taldekoen saioetan osagarri berria; ikusleak ere dastatzera gonbidatu zituzten.

Musika-kaxan zer sartu?
Horixe Iraitz Agirrek (ahotsa eta gitarra) ikusleei egindako galdera. Itsaso Navaridasek (dantzaria) batu zituen musika-kaxan aurrez banatutako paper gorrietan erantzunak. Horiek irakurriaz boroildu zuten pozarren estreinu-saioa: errespetuzko komunikazioa; anaitasuna; ahotsak, malkoak, eta Ain_1 kontu, besteak beste, jasotako opariak.

IRAITZ AGIRRE
TALDEKIDEA

"Pozik gaude taldeak izan duen bilakaerarekin; sendoago eta seguruago gaude"

Gaztetxea bete egin zuten Ain_1ekoek; bete jendez, sentimenduz eta baita hitz zein estilo askotako doinuez ere. **Ikusleak Musika Kaxa gorrian sartzea lortu zenuten.**

Horrela dirudi, bai. Oso gustura egon ginen bai taularen gainean zein aurrean. Aspaldiko nahia zen bien arteko konplizitatea erakustea eta kaxa gorriak eman digu horretarako bidea.

Zeri eta noren hitzen bitartez kantatzen duzue?

Gaurkotasanari abesten diogu, modu metaforikoan bada ere. Gure hitzak ez dira oso zuzenak, poesiatik asko dute-eta. Hitz batzuk nireak dira, beste batzuk, Ainarak eta Maialenek egindakoak. Beste batzuk, ordea, lagunei lapurtutakoak: Eneko Barberenari, Jon Olanori...

Askotariko doinuekin janzten dituzue gero hitzok?

Bai, bueno, horretan saiatzen gara. Ditugun baliabide urriekin eta kontuan hartuta autodidaktak garela... Flamenko ukitua, bossa nova...

Noiz eta non zabalduko duzue kaxa berriz?

Datorren zapatuan, Araian (Arabian) izango gara eta laster Bergaran. Beste toki batzuetatik ere deitu digute. Asmoa da apiril inguruan diskoa grabatzea eta ordurako proiektuak kontzertuen bitartez gorputza hartzea.



LIDE ETA MIREN
BERGARA ETA ARRASATE

"Kide baten familiartekoak gara, hala ere sorpresa izan da. Askok gustatu zaigu, oso saio sakona da eta barruraino sartzen dena. Duda barik, hurrengo baten ere joango gara ikustera".



LEIRE
DURANGO

"Askok gustatu zait. Oso konpletoa, artistikoa eta sensibilitate handikoa. Hainbat instrumentu entzutea ere gustuko izan dut. Lehenengo aldia, baina errepikatuko dut".



MARIA
ARRASATE

"Oso saio originala iruditu zait. Musika kaxa entzuleekin konpartitzea ere asko gustatu zait. Aurrez ikusita nituen baina bilakaera polita igarri diet. Askok dute oraindik emateko. Elegante!"



MAIDER
SORALUZE

"Oso gustura egon naiz, lasai-lasai. Aurrez ikusita nituen baina taldekide guztiak elkarrekin ikusteko gogoia nuen eta izugari gustatu zait! Barru-barrura sartzen den saioa da".

Erlichebe eta material uztarketak, Javier Aiestaren margoen ezaugarriak

Egubakoitzetik ikusgai daude Bergarako Aroztegi aretoan beasaindarraren margolanak

TXOMIN MADINA | BERGARA

30 urte daramatza pintura munduan Juan Aiestak eta bere ibilbideko azken urteko lanak dira batez ere Bergarako Aroztegi aretoan ikusgai daudenak.

Bide batez da erakusketaren izenburua. "Gauza asko daude erakusketan, eta ni bidean nago beti: orain hemen, gero beste leku baten, alde batetik bestera" dio Aiestak izenburua azaltzeko orduan.

Hamalau urte eta gero

Hamalau urte zeramatzan Aiestak erakusketa bat antolatu barik; iazko udan baina, horrekin amaitzea erabaki zuen: 2010ko egin-dako lanen erdia uda ostean erakutsi zuen, eta beste erdia da Bergarako ikusi daitekeena.

Pinturaren esparruan burututako esperimentazio plastikoa da erakusketako lanen ezaugarri

nagusia. "Kalean gauzak aurkitzen ditut, zentzu estetikoak bilatzen diet eta gero nire margolanetara gehitzen ditut", dio beasaindarrak. Horren fruitu da lan askok erliebean egotea dutela ezaugarri. Otsailaren 20ra arte egongo da ikusgai erakusketa.



Juan Aiesta beasaindarra, bere lan batzuen aurrean, Aroztegin. | JOSETXO ARANTZABAL

JUAN Aiesta MARGOLARIA

"Egin behar ez diren gauzak egitea gustatzen zait"

1960an jaioa, autodidaktatzat du bere burua margolari beasaindarrak. Bekei esker Italian egona, Egindako ibilbidean zehar fase ezberdinak igaro ditu, eta baita hainbat sari irabazi ere.

Zer sentitzen duzu margo-tzean?

Apur bat masokista da: ezin duzu margotzeari utzi, baina askotan ez zaizu irteten, eta zapuztuta sentitu ahal zara zeure buruarekin. Zerbait

irteten zaizun momentuak oso txikiak dira.

Zure lanetan, zeien eragin antze-man daitezke?

Denak, Motibatzen nauen guztiak du eragina nire lanean, Batzuk

berehala antzematen dira, beste batzuk aldiz, gutxiago. Baina gero eta gehiago kostatzen zait gauzekin emozionatzea.

Material aldetik nola definituko zenuke zure lana?

Nire margolanetan sartzen ditudan elementuak, ikustean zerbait esan didatelako sartu ditut. formatutatik irtetea gustatzen zait, eta hemen-go argiztapenarekin, erliebea gehiago nabaritzen da. Egin behar ez diren gauzak egitea gustatzen zait.



Xabier Igoa eta Andere Arriolabengoa Aramaioako bertsolariak zapatuko bertso desafioan. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Giro gerlari besteko alaia Txanpinoien txapelketan

Guztiak irabazle, gerlari bilakatutako bertsolarien arteko lagun arteko zapatuko bertso-borrokan

AITZIBER ARANBURUZABALA | ARAMAIO Txanpinoien saioa delakoa jokatu zuten Gasteizko Armentia sagardotegian zapatuan.

Desafioan aurrez aurre, bi talde: batetik, aramaioarrak, hain zuzen ere, iazko Koadrila arteko txapelketako irabazleak: Manex Agirre, Xabier Igoa, Iker Agirre eta Andere Arriolabengoa; eta bestetik, Arabako Bertsolari Txapelketako hiru txapeldunak:

Oihane Perea, Asier Iriondo eta Zigor Enbeita. Laukotea osatzen, hasiera batetan Asier Otamendi izan behar bazen ere, azken orduan, Ander Solozabalek hartu zuen haren lekua.

Lierni Altuna gai-jartzaileak Arabako erreinuak Aramaio konkistatzera bidali zituen lau gerlariren azaletan jarri zituen Txanpinoien taldekoak; eta aramaioarrak, berri, euren herria

defendatzeko prest ziren gerlariak bilakatu zituen. Asier Lafuente Arabako Bertsozale Elkarteko prentsa arduradunaren esanetan, "guztiak irabazle, giro onean joan zen lagun arteko desafioan".

Aurtengo txapelketa abian

Zapatua egun lanpetua izan zuen Arabako Bertsozale Elkartek; izan ere, beste bi lan ere bazituen lan zerrendan: batetik, aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketaren aurkezpen ekitaldia (otsailaren 12an, Laudion da lehenengo kanporaketa; finalerdia Aramaion izango da martxoaren 19an, eta finala, Gasteizko Printzipal Antzokian, apirilaren 2an); eta bestetik, bazkideekin urteko batzar orokorra ere egin zuten.

Askotariko panpina eta natura osagaiei bizia eman zieten Patricia Franco artistaren eskuek

A.A. | BERGARA

Trebezia handia erakutsi zuen Patricia Franco artistak askotariko materialekin egindako txotxongiloak manipulatzeko, Zabalotegin, zapatuan, *Den-dena niretzat* delako emanaldian.

Horien artean zeuden, saioa amaituta neskatala talde batek kontatu zigan moduan, gustukoen izan zuten Kattalin; aretoan barre algarak sortarazi zituen haren lagun bihurria edo Makila Jauna, istorioko gaiztoa.

Zabalotegi aretoa lepo bete ez bazen ere, saioak harrera polita izan zuen, eta jarlekue-

tatin formal-formal eta begirik kendu gabe kontakizuna jarraitu zuten haur zein helduek.

Garapenaren mamua

Ingurumena guztion artean zaindu behar dugula kontatu zigan Francok naturako osagai zein hainbat pertsonaiaren ahotik. Kontrolrik gabeko garapenaren ondorioak erakutsi zituen bere antzezpenarekin.

Istorioren mamia ederto laburbildu zuen gero amaiera-kantuak: "...den-dena denontzat partitu guztion artean. Mundua denontzat da...".



Patricia Franco (beltzez) Makila Jauna diruzalearekin. | JOSETXO ARANTZABAL

Lagunen artean egindako irakurketa dramatizatu profesionala

Oier Guillanek idatzitako 'Herio heroï' lanaren antzezpena egin zuten Zarautz, Orereta eta Donostiatik etorritako aktoreek Oñatiko gaztetxean

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Ahotsa eta tonuarekin jolasteak oinarri ditu irakurketa dramatizatu batek; antzerkiaren gidoia eskuetan dutela antzeztu ohi dute aktoreek.

Baina egubakoitzean Oñatiko gaztetxeko areto txiki zein goxoan taularen gainean zeuden Oier Guillan (Orereta), Ainhoa Alberdi (Zarautz) eta Donostiako Amaia Corralek irakurketatik baino antzezenetik gertuago zeuden soinean zituzten mozorroez baliatuz eta oso noizean behin begiraturaz, eskuetan zuten gidoiari.

Hildakoekin elkarbizitzen
Ikusleok etorkizuneko Euskal Herrira eraman gintuzten; hildakoek usteltzeari utzi zioten garairaino, hau da, bizidun zein bizigabeak elkarrekin bizitzera behartuta zeuden garairaino.
Ezagutu ez zuten aitaren gorpuaren erantzule bilakatu zituen Gelnst eta Zprist anaiak Snifst funtzionarioak. Hiru horien arteko elkarriketa da, bada, istorioaren haria, Stingst-ek (Ander Fernandez) jotako gitarraren soinuek lagunduta.

Gustura jarraitu zuten kontakizuna gaztetxean batutako ikusleek. Hasieran lan abstraktu samarra zirudien arren, saioak aurrera egin ahala, argumentua

ulertuaz joan zirela aitortu ziguten. Ikuskizuna amaituta, mahaia- ren bueltan elkartu ziren, giro lasaian eta lagunartean elkarrekin afaltzeko.



Ainhoa Alberdi, Amaia Corral eta Oier Guillan aktoreak, hurrenez hurren, *Herio heroï* antzeztzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Café Bilbao saria
Oier Guillanek idatzi zuen gidoia, orain pare bat urte eta Mikel Martinezek antolatzen duen Bilboko Café Bilbao saria eskuratu zuen. Sariarekin lotuta, irakurketa dramatizatuak egiteko proposamena jasota, antzerkigintzan jarduten zuten lagunei eskaini zien parte hartzeko. Artista lagun- en partetik baiezkoa jasota, dagoeneko sei irakurketa egin dituzte eta datozen asteetan, testu-paperak teloiaren atzean utzi- ko dituzte, irakurketa, antzeppen osatua bilakaturik.

Ibarreko emakumeen bizimodua argazkitan

U.A. | ARRASATE
Arrasateko Ekin Emakumeak elkarteak 15 urte egin ditu 2010ean, eta zenbait ekintza egingo dituzte urteurrena ospatzeko. Horien artean dago *Debagoieneko emakumeak izan eta ekin. Atzoko eta gaurko emakumeen bizimodua argazkietan* izeneko erakusketa. Debagoieneko emakumeen lehengo eta oraingo bizimodua erakutsi nahi dute.

Joan den azaroan egin zuten argazki bilketa eta 189 argazki jaso zituzten 50 pertsonaren eskutik. Erakusketan, bildutako argazki horiez gain, Ekin Emakumeak elkarte-ko argazkiak ere ikusi ahal izango dira. Argazki zaharrena 1890. urtekoa da eta berriena, berriz, 2011koa.

Erakusketa otsailaren 11tik 25era bitartean egongo da Kulturateko klaustroan, martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era. Otsailaren 10ean irekiera ekitaldia egingo dute, 19:00etan, eta bertan egongo dira ibarreko emakumezko hiru alkateak: Ino Galparsoro, Lourdes Idoiaga eta Agur- ne Barruso.

Moby Dick getxoztarraren eztarri urratua eguenean Arrasateko gaztetxean

'And then she became God's friend' izeneko diskoa aurkeztuko du

USOA AGIRRE | ARRASATE
Willis Drummond taldearekin hasi zen joan den astean Kooltur Oste- gunetako otsaileko egitaraua. Ipa- rraldeko taldeak ekarri zituen soinu indartsuen ostean, bakarla- ri baten txanda izango da datorren eguenean Arrasateko gaztetxean: Moby Dick getxoztarrak eskainiko du kontzertua.

Bakarlari horrek arrakasta izan zuen Bilbo Hiria musika lehiaketan eta harrezkero sona handia hartu du.

Ahots bikaina dauka, urratua, eta sentimendu handiz abestu eta gitarra jotzen du. Musika adituek diotenez, grungearen sementa da eta Mark Lanegan, Eddie Vedder eta halako musikari ospetsuen ahots garratzak gogorarazten ditu.

Internetez jaisteko aukera
And then she became God's friend izeneko diskoa aurkeztuko du Moby Dickek Arrasaten. Disko horretako kantuak dira, besteak beste, *Find the blue key, meet the Wizard, Laid-back man, Venus in furs* eta *Flesh'n bones*. Diskoa Internetez jaisteko aukera daukazue eta Creative Commons lizentzia du. Helbide honetan duzue informazio gehiago: myspace.com/mobydicklove.



Moby Dick. | GOIENA

Kontzertua eguenean, otsailak 10, izango da, 22:00etan, Arrasateko gaztetxean. Otsaileko hurrengo eguenetarako ere badituzte kontzertuak hitz emanda: otsai- laren 17an Quinteto de la Muer-

te talde gasteiztarra izango da, funk, jazz eta soul doinuekin; otsailaren 24an, berriz, Niños Velcro madrildarrek funk fusion generoko kantuak eskainiko dituzte.

Kanturako gogoia erakutsi zuten Erramun Martikorenaren eta Mikel Markezen zaleek

A.A. | BERGARA
Zabalotegiko leihatila zabaldu eta 10 minutura bukatu ziren aretoan dauden 120 eserlekue- tarako sarrerak. Txarteldegian dagoenaren esanetan, beste horrenbeste ikusle geratu ziren aretoko sarreran. Askotariko entzuleak bildu ziren eskar- mentu handiko Erramun Mar- tikorena eta Mikel Markez kantariak entzutera: adinari zein jatorriari dagokionez.

Musikariak txandaka
Erramun Martikorenak zabal- du zuen saioa Xalbadorren hiru

bertsorekin. Jarraian Mikel Markez igo zen oholtzara; beti moduan, gitarra lagun zuela, eta hiru kantu abestu zuten elkarrekin; horien artean ikus- leak kantuan jarri zituen *Sala- mancara* kantu herrikoia.

Ondoren Martikorenak txan- da eman zion Markezi, hark bakarlari moduan beste hiru abesti kantatzeko. Laburbilduz, bada, txandakako kontzertua izan zen: bi abeslari taularen gainean eta ikusleak ere txan- daketa horretan parte hartzeko prest. Betiko kantuak, bada, ez omen dira modaz pasatzen!



Markez eta Martikorena, Zabalotegin. | J.A.



Goiena telebista ikusten ez baduzu, berriro sintonizatu

Hainbat aldaketa egin ditugu Muruko antenan; hori dela eta, baliteke Goiena telebista ikusten zenuten hainbat etxetan orain ez ikustea.

Ondorengo herrietan bakarrik dute eragina:

Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio eta Oñatin.

Kasu honetan, zure telebista berriro sintonizatu beharko duzu. Hau da, zure telebistak berriro bilatu beharko du automatikoki (edo bestela zu zeuk eskuz) Goiena telebista.

Berriz sintonizatu, baldin-eta:

- Aipatutako herriren batean bizi bazara.
- Telebista LTD bitartez ikusten baduzu.
- Orain arte Goiena telebista ikusi baduzu, baina orain ikusten ez baduzu.

GURE MUSIKA TALDEAK

EKO D BUL



Eko D Bul talde oñatiarra Zubillagako lokalean entseatzen. | MAIDER ARREGI

"Diskoa kalean dago, baina orain, zuzenekoak egitea da taldearen nahia"

- Metal Nortek taldearen bi abesti aukeratu ditu bilduma baten jasotzeko
- Dagoeneko hasi dira beste lan baterako abestiak egiten

MAIDER ARREGI | OÑATI

Eko D Bul taldea 2009an sortu zen Argi Ibili talde mitikoaren sustraieratik. *Green* lanarekin datoz oñatiarrak. Ritxarrek (bateria), Felipek (gitarra eta ahotsa), *Heavy-k* (baxua eta ahotsa) eta Josemak (gitarra eta ahotsa) osatzen dute taldea.

Punk rock doinuetaatik metal doinu bortitzagoetara bidaiatu duzue.

Argi Ibilatik jaio da Eko D Bul taldea. Josu abeslariak beste proiektu batzuk zituen eta bage-nekien noizbat bukatuko zela. Hala, lau kideok Eko D Bul proiektu

tua abiatu dugu orain.

Ez nuke esango estilo edo izaera bakarra duzuenik.

Argi Ibilik Josuren izaera zuen, hura zen abeslaria eta taldeko *frontman*-a. Orain, ordea, gauzak aldatu egin dira eta taldeak ez dauka izaera bakar hori. Gainera, ez zaizkigu etiketak gustatzen. Askotariko musika estiloetatik edaten dugu: Pearl Jam, Metallica, Faith No More, Pantera, Joaquin Sabina... guztia koktelera baten sartu eta barru-barrutik irteten zaiguna egiten dugu. Hori xe da Eko D Bul! [Barre].

Nolako abestiak batu dituzue?

Egilearen arabera *metaleroagoak* edo *rockeroagoak* dira abestiak. *Me sobra la noche*, adibidez, Josemak egin du eta rock *canalla* ukitua dauka. *Ojos de lobo*, berriz, zuzenerako abesti *kañeroa* da. Felipek egiten duen *Vuelves a vivir* abestiak Barricadaren garaira garamatza.

Abesti berriak eta zaharrak daude *Green* diskoan. Zergatik?

Ella abestia, esaterako, Argi Ibiliren garaian grabatutakoa da. Orain, berriro landu dugu eta ukitu ezberdina eman diogu.

Beste abesti bat bilakatu dugu. Soinu eta ahots desberdinak ditu; abesti *heavyena* eta bortitzena da, zalanza barik. Asko gustatu zitzaigun eta horregatik sartzea erabaki geunen. *Vuelves a vivir* ere orduan egindakoa da. Baina abesti hori inoiz ez dugu argitaratu. Delirium Tremens gogorazten digu! Zuzenean ere berri-tutako abesti gehiago jotzen ditugu, jendeak eskatuta.

Eta orain, zuzenekoetara!

Vomitorekin aurkezpen bira egin nahi dugu. Atzeko kaleko jaietan harremanak estutu genituen; ea, ba, zer edo zer irteten den hemen. Bestetik, Inkernun ere zer edo zer antolatu nahi dugu.

Metal Nortek kaleratuko duen bilduman parte hartuko duzue.

Gureak diren bi abesti aukeratu dituzte eta maiatz inguruan kaleratuko duten bilduman izango gara. Ondoren, kontzertu bira egingo dugu. Euskal Herriko eta Espainiako taldeak daude bertan, eta haiekin joko dugu.

Laster lan berria?

Bai, abesti batzuk egin ditugu eta beste batzuk prestatzen ari gara. Jendeak lan hau gustura hartu du, baina orain, zuzenekoan zain daude. Diskoetxe batekin hitz egiten gabiltza lan berria aurrera ateratzeko. Dena lotzeko dago oraindik, ikusi egin behar...

Diskoa non eskura daiteke?

Hainbat herritako tabernetan. Oñatin, adibidez, Bogan eta Akerren. Eta nahi duenak lasai eska dezake myspace.com/ekodbul helbidean.

ZERTZELADA



GREEN

Estiloa: rock urbanoa.

Egilea: Eko D Bul

Argitaletxea: autoekoizpena

Iraupena: 19,2 minutu.

Iraganetako bizipenei kantuan

Nik uste nuen kirola eta musika biak serio egitea bateraezina zela ia, baina gure ibarrean badira hainbat kasu: Nealta Fola, Fiachra eta honako hau, besteak beste.

Oñatiko Eko D Bul taldeak urte eta piku darama entsegu lokalean gordeta, eta dagoeneko bost kantuz osatutako lana atera dute jendaurrera. Gaztekeraz abesten dute eta rock urbanoa deritzona da aukeratu duten estiloa, kaleko bizipenak, malenkonía eta iraganarekiko nostalgia zama handia duena. Tarteka gitarra eta erritmoak heavy-rockera hurbiltzen dira, eta bada kantu *rockeroago* eta maltzurragorik ere, baina orokorrean Barricadak eta Extremodurok jorratutako bideetan barrera aurki ditzakegu.

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua. 620 59 86 55 / 658 72 52 70

Aretxabaleta. Duplex atikoa. 125 metro koadrokoa. 60 metroko terraza eta 30 metroko garajea. Egongela handia, hiru logela eta atikora arteko igogailua. zoru erradiatzaile bidezko berokuntza. Ate irristagarriak sukalde, egongela eta terrazarako leihoan. Oso argitsua. Beste etxebizitza bat onar dezakegu ordainketarako. 670 37 64 01

Bergara. Martzial Agirre kalean 105 metro koadroko etxebizitza salgai. Laugarren solairuan. Sukaldea, egongela, lau logela eta bi bainugela. 30 metroko garajea eta 11 metroko ganbararekin. 608 15 45 25

Durango. Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara), gresa, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 215.000 euro. 607 71 53 53

Durango. Pisu ederra salgai martxoaren 8ko kalean. 3 urte ere ez ditu eta oso polita dago jarrita. 80 m2 ditu, bi logela, bi komun, oso polita den sukalde berria eta saloi ederra. Pisu osoa inguratzen 90m2-ko terraza itzela. Pisu osoak kanpora ematen du, komun batizan ezik, eta orientazioa paregabea da. Bera-ekin batera 30m2-ko garajea saltzen da. 637 41 64 38

Elorrio. 65 m2-ko etxe berri bat salgai buzkantz kalean. 2 logela, komun 1, sukalde-egongela eta ganbara ederra. Igogailuarekin eta prest bizitzera sartzeko. Kokapen oneko etxe polit eta eguzkitsua. Prezio ona. Telefonoa: 94 682 12 34

Etxarri-Aranatz. Etxe handi eta argitsua eskuragarri. Bereztasun interesgarriak dituen etxebizitza. Erabat jantzia, bizitzera sartzeko moduan. Berogailua, biltegia eta trastelekua ere baditu. Herrigunean egonda ere, lasaitasuna eta intimitatea baditu. Zatoz ikustera! 678 38 49 52

Oñati. 60 metroko etxebizitza salgai San Lorentzon. Bi logela, komun bat eta sukalde-egongela. Jantzia eta berritua. 192.000 euro, negoziagarri. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean, mesedez. 699 78 47 49

Oñati. Kalebarran 71 metroko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna guztiz hornituak. Patio erabilgarria, ganbara eta garaje itxia. Prezio ona. 665 71 77 98

Oñati. 84 metroko etxe ederra salgai. 3 gela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Gainera, 32 metroko lorategia dauka, garaje itxia eta ganbara. Leku aproposan dago, denda eta ikastetxea ondoan baitaizka. Ingurune lasaia eta erdiguenea 5 minutura dago. Deitu 678 71 36 97 telefonora.

Oñati. 85 m2ko etxebizitza salgai obispo otaduy kaleko 13. Ean, 2. Solairuan. Sukaldea, hiru logela, komuna eta egongela. Denajantzia eta oso eguzkitsua. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. 169.000 euro. Deitu 659 05 11 57 / 630 52 17 89 telefono zenbakietara.

Oñati. Etxebizitza salgai Kelebarrian. 80 metro koadro. 9 urte. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handia. Igogailua. Altzariz hornitua. Garajea aukeran. 622 42 83 18

Jaka. Jaka erdigunean, altzariz guztiz hornituriko apartamentua salgai. Garaje eta trasteroarekin. 667 49 25 57

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Apartamentua ematen da errentan erdialdean. Berokuntza zentralarekin. 350 euro. 628 22 45 09

Debagoiena. Etxebizitza bi ematen dira errentan. Bata aramaion eta bestea arrasaten. 647 22 09 38

Elorrio. 50 m2-ko atiko berria alokagai elorrion. Logela, komuna eta sukalde-egongela. Igogailua ere badu eta prest dago bizitzera sartzeko... Oso polita. 606 04 38 35

Oñati. San Lorentzon etxebizitza bat ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. 650 56 62 06.

104. ERRENTAN HARTU

Altsasu. Ikasle batek etxe, apartamentu edo logela bat alokatu nahi du Altsasun, bi hilabeterako (maiata eta ekaina). 948 46 72 15 eta 620 32 10 83.

Arrasate. Arrasatear neska langile eta arduratsuak etxebizitza hartuko luke errentan arrasate erdialdean. 500 euro arte ordainduko nuke. Mila esker. Iraia. 606 74 42 37

Arrasate. Etxebizitza errentan hartu nahi dut arrasaten, gehienez 550 euro ordainduta. Interesa duzenok deitu telefono honetara. (Nabit) 667 84 47 94

Azpeitia. Azpeitian edo inguruan etxe bat alokatu nahi nuke. Kontakua: anampiriz@gmail.com edo 635 75 29 56.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelarekin nahikoa genuke. Hilean 500 550 euro ordaintzeko prest. 647 22 35 87

Bergara. Etxebizitza baten bila nabil alokairuan hartzeko. Hiru logelazitea beharko nuke. Gilberto da nire izena. 654 24 13 27.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 2 edo 3 logelarekin. 677 77 22 31

Bilbo. Neska langilea naiz ta Bilbon edo inguruan pixu bila nabil, apartamentua, atikoa, estudioa.... Oso oso ondo zainduko dut! eraitz@gmail.com 626 86 67 36

Elorrio. Altzariz jantzitako pisu bila nabil Elorrion, alokatzeko. 94 658 21 91

lurreta. Lagun bi alokatzeko pisu bila dabilta lurretan edo Durangon. Etxea jantzita. 675 70 88 27

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Arrasaten edo Aretxabaletan logela bila nabil. Ikasle naiz. 689 18 04 12

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 648 86 05 49 telefonora.

Arrasate. Pertsona bat behar dugu Erquin aldean etxebizitza osatzeko. Ignacio. Deitu 670 59 73 62 telefonora.

Arrasate. Logela ematen da errentan, sukaldea eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. 666 68 00 04

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. 630 71 35 83

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 20,50 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 21 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

Arrasate. Logela hartuko nuke errentan, kontratuarekin. Ordaintzeko arduratsua naiz. 666 21 88 95 / 943 79 74 13

Arrasate. Logela bat ematen da errentan erdigunean. 648 86 05 49

Bergara. Gela bat alokatuko nuke. 652 74 67 15

Bergara. Bi logela ematen dira errentan Bolun, prezio onean. 645 67 79 75

Bergara. Ozaetan, etxea osatu nahi nuke. 606 63 19 91.

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 650 62 12 94/943 08 22 60

Bergara. Etxebizitza osatzeko pertsona behar da, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Bolun. 670 85 86 68

Donostia. Gela bat alokatzen da neska batentzat. 943 65 16 92

Iruñea. Iruñean neska bat behar dugu etxe bat osatzeko. Prezioa: 200 euro, gastu guztiak barne daude. Interesa duenak dei dezala 628 04 38 53 telefono zenbakira.

Muxika. Gela handi bat errentan ematen dut armarioduna, txalet adosatubatean. Lorategi eta aparkaleku propioak ditu. Interneteko eta kableko telebistarako konexio. Gasoleo kalefakzioa etxe osoan. Sukaldea (guztiz hornitua) eta egongela -jangela (telebistaduna) erabiltzeko eskubidearekin. Zona alde lasaia eta ondo komunikatua. Gernikatik hiru km-ra eta Gernikarako eta Mungiarako autobus geltokitik 50 m-ra. 280 € gastuak barne. Interesa duenak dei dezala 685 73 27 90 telefono zenbakira

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat edo bi behar dira. Deitu 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia ematen da errentan Uarkapen, erosteko aukerarekin. 615 73 98 30 edo 943 24 53 57

Bergara. Garaje itxi bat ematen da errentan ibargarai kalean. 679 74 00 61

Durango. Plateruen plazan garajea alokatzen da. Durangon. 65 euro hileko. 635 73 57 59. Josu

Etxarri-Aranatz. Garaje partzela alokatzen da Etxarri Aranatzko plaza aldean. Telefonoa: 652 26 28 18.

204. ERRENTAN HARTU

Elorrio. Furgoneta bat sartzen den garaje baten bila nabil Eelorrion, alokatzeko. Deitu 679 66 63 31 telefono zenbakira.

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Lokala ematen da errentan San Andres auzoan. Musika taldeek entseatzeko egokia. 690 95 45 47

lurreta. Pabiloia alokagai ariandukio industrialdean. 150 m2 beheko solairua. 120 m2 goiko solairua. 657 79 45 52.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Debagoiena. Emakume eskaldun bat behar da emakume heldu bat zaindu eta etxekolana egiteko. Deitu 696 46 03 85 telefono zenbakira.

Bergara. Emakume eskaldun bat behar da ume bat zaintzeko. 669 70 89 36

ARETXABALETA

Tabernarako pertsona bat behar da. Euskara baloratuko da. 943 03 66 61 650 22 74 51

Elorrio. Haur hezkuntza ukatu duen 20 urteko neska euskaldun bat, aste barruan etxeko lanak egiteko edota umeak zaintzeko prest. 666 19 75 68.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume eskalduna gertu orduka plantxa zein garbiketa lanak egiteko edo ume eta nagusiak zaintzeko. Deitu 699 54 17 27 zenbakira.

Arrasate. Bergara edo Arrasate. Mutila gertu sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbiketan edo nagusiak zaintzen jarduteko. Esperientziaduna eta legezko paperekin. 634 84 41 94

Arrasate. Asteburu eta jaiegutetan lan egingo nuke nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa zein plantxa lanetan. Baita astean zehar 18:00etatik 20:00etara bitartean ere. Presazkoa da. Fanny Salvatierra. 682 31 97 37

Arrasate. Hemengo neska prest etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko eta beste edozein lanetarako; orduka ere bai. 659 55 27 16

Arrasate. Nagusi eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Gauz ez egunez. 618 14 71 34

Arrasate. Neska euskalduna, haur hezkuntza ikasketak burututakoa, umeak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Deitu 61576 19 82 zenbakira.

Arrasate. Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran lan egingo nuke arratsaldeetan, pertsona nagusiak zaintzen edo bestelako lanak egiten. Erizain laguntzaile ikasketak egiten nabil. 689 18 04 12

Aretxabaleta. Eskarmentudun emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Egunez zein gauz. 943 53 33 92

Azpeitia. Biemakume, helduak zaintzeko prest. Geriatriako titulua daukagu. 695 74 88 35 eta 647 72 23 36 edo idatzi mezu bat posta elektronikoa: loreaig83@hotmail.com

Azpeitia. Neska arduratsua, haur hezkuntzako teknikari eta begirale tituluduna, arratsaldetan haurak zaintzeko eskaintzen da azpeiti inguruan. 646 56 49 22

Azpeitia. Laguntza behar duten ikasle edo gurasoek dei dezatela 615 79 37 70 telefonora.

Bergara. Esperientziadun neska umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu 665 75 41 32 telefonora.

Bergara. Orduka lan egingo nuke. Geriatria titulua daukat. Esperientziaduna. 650 62 12 94/943 08 22 60

Bergara. Bergaran, mutil gazte bat edozein lan egiteko gertu. Autoa dut. 654 24 13 27

Bergara. Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Haurtzaintza titulua eta esperientzia daukat. 688 65 30 62 (Arantzazu).

Bergara. Esperientziadun neska etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko gertu. 665 75 41 32

Bergara. Bertako neska gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

Bergara. Garbiketa lanetarako eta pertsona edadetu zaintza lanak egiteko gertu nago. 691 03 25 02

Bergara edo Arrasate. Gertu garbiketa lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiekin paseatzeko, 15:30etik 21:30era. 677 81 10 00

Debagoiena. Emakume batek garbiketa lanak egin edo nagusiak zainduko lituzke asteburuetan. 699 09 46 26

Debagoiena. Geriatria laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Baita gaixoak ospitalean zaintzeko ere, gauak arne. 08:00etatik 15:00etara edo 20:00etatik 08:00etara egingo nuke lan. Mirian. 646 05 58 88 edo 943 79 79 49

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest nago. 638 89 98 60

Debagoiena. Neska boliviarra gertu, nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak eta esperientzia daukat. 618 14 71 34.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen zein sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. 600 81 99 34

Debagoiena. Haur eta gazte txoei ingelesko eskola partikularrak emateko gertu. Orduetegi malgua. Esperientzia handiko neska. Taldeka nahiz banaka. 15 euro/ordua (banaka). Arrasate edo inguruak. Alemana eta eskola laguntzaile ere eskaintzen da. Deitu konpromisorik gabe! 635 12 87 82

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen zein sukalde laguntzaile lanetarako. 661 00 46 55

Debagoiena. Emakumea gertu ile-apaindegian lan egiteko edo garbiketa zein nagusien zainketarako. 619 23 37 30

Debagoiena. Gizona gertu edozein lan egiteko. 646 2770 46

Debagoiena. Gizona gertu eraikuntzan jarduteko (eraikuntza ofiziala naiz) edota garbiketa lanetarako. 639 41 68 38

Debagoiena. Neska gaztea gertu lan hauetarako: zerbitzari (hiru urte eta erdiko esperientzia), garbiketa lanak (etxeak, atariak eta abar) eta ume zaintzaile. 664 37 49 85

Debagoiena. Neska gaztea, lanerako gogo handiz, gertu etxeko lanak egin, ume edo nagusiak zaindu edota bestelako lanetan jarduteko. Ana Maria. Deitu 943 79 90 21 edo 620 83 59 50 zenbakietara.

Debagoiena. Emakumea gertu lan egiteko, garbiketa lanetan, sukalde laguntzaile moduan edo pertsona nagusiak zaintzeko. 645 67 82 24 / 943 08 11 07

Debagoiena. Garbiketa lanak zein pertsona nagusien zainketa lanak egiteko gertu nago. Posible baliatzen bergaran, balina auto propioa daukat bailara osoan mugitzea. Gilberto da nire izena. 654 24 13 27

Debagoiena. Gazte arduratsuak, paperekin eta gidatzeko baimenarekin lan egingo luke. 677 77 22 31

Debagoiena. Soldatzaile, margolari, mekanikari edo mendietan lan egiteko gertu. 645 67 82 24 / 943 08 11 07

Debagoiena. 27 urteko mutil gaztea naiz eta lana bila nabil, edozein motatakoa, sukaldean



Deba Garaia Inmobiliaria

Telefono Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Arizuri, 97 m2, garajearekin.
- Aranerrek, 80 m2, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m2, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m2, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m2, oso eguzkitsua.
- Burdinate, 104 m2, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m2, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m2, oso ondo.
- Herri lagunak, 60 m2.
- Martoko, 87 m2, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m2, ondo.
- Ibargarai, 80 m2 oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m2 oso ondo.
- Zabalotegi 80 m2, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m2, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m2, berritua, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m2, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m2, oso ondo.
- Zubieta, 125 m2, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m2, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m2.
- San Antonio, 65 m2, eguzkitsua.
- Masterrek, 46 m2, eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubieta, Martokon eta San Lorentzon.
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte, 69 m2. Oso ondo.
- Toki Eder plaza, 54 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Arizuri, 90 m2. Terrazarekin. Oso ondo.

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m2, berria.
- Sagarrerrek, 58 m2, aukera ona.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokoroiti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Masterrek 92 m2. 237.399 .
- Masterrek. 88 m2. Igogailuarekin.
- Artekale 40 m2. Berritua.
- Irizar pasealekua 70 m2. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60m2. Oso ondo
- Mekolalde 110 m2. 90.000 .
- Osintxu. 84 m2. Igogailuarekin. 153.258 .
- Ibargarai 54 m2. Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m2. Eraikitzeke.
- Burdinate 53 m2. Prezio ona.
- Matxiategi 65 m2. Igogailuarekin.
- Ibarra 47 m2. 146.888 .
- Bolu 96 m2. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m2. Prezio ona

eta obretan zein margotzen esperientzia handia daukat, baita ortuetan ere. Pare bat ordu badira ere bai, beharrean bainago. Deitu 689 68 56 81/ 606 74 42 37 zenbakietara.

Debagoiena. Mutil gaztea gertu auto- edo kamioi-gidari, eta mekanikari lanak egiteko. Beste edozein lan egiteko ere gertu. (Juan)671 15 97 13

Debagoiena. Neska edozein lan egiteko prest. Deitu 600 81 99 34 telefonora.

Debagoiena. Gizona gertu edozein lan egiteko. Deitu 647 06 09 97 telefonora.

Debagoiena. Etxeak, lokalak eta lantokiak margotzen dituen 3 urteko esperientziadun mutila naiz. Lan ona, azkarra eta merkea egiten dut, deitu galdeztzeko lasai asko. Paretak garbitu, masa heman eta margotzen ditut. Deitu 648 68 24 30

Debagoiena. Bergara edo arrasate. Mutila gertu sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbiketari edo nagusiak zaintzen jarduteko. Esperientziaduna eta legezko paperekin. Deitu 634 84 41 94 telefonora.

Debagoiena. Esperientziadun dendari euskalduna, arropa denda zein bestelakoetan lan egiteko prest.650 13 74 93

Debagoiena. Neska gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetan jarduteko. Etxean bertan bizitzen edo asteburu zein gauak egiteko gertu nago. Erreferentzia onak. 606 72 28 76

Debagoiena. 22 urteko neska gertu etxeak garbitzeko zein pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka lan egiteko edo etxean bizitzeko prest. 648 45 21 93

Debagoiena. 38 urteko emakumea etxeak garbitzeko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu, orduka zein etxean bizitzen. 633 59 23 19

Debagoiena. Esperientziadun neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Rakel. 665 70 37 83

Debagoiena. Emakume arduratsua garbiketa lanak eta nagusi edo ume zaintzarako eskaintzen da. Gloria. 630 26 13 28 / 943 79 13 88

Debagoiena. Geriatria laguntzaile titulua duen esperientziadun emakumea gertu, nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Lourdes. 652 76 65 06

Debagoiena. Pertsona arduratsua, nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest. 688 80 32 03 / 943 53 37 00

Debagoiena. Neska euskalduna prest pertsona nagusiak zaintzeko. Gainera, klinikalaguntzaile titulua daukat. 646 38 46 81 (Itxaso)

Debagoiena. Emakume gazte esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 679 59 33 65

Debagoiena. Bergara edo Arrasaten. Garbiketa lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiekin paseatzeko gertu, 15:30etik 21:30era. Deitu 677 81 10 00 telefonora.

Debagoiena. Emakumea umeak zaindu zein nagusiak zaintzeko gertu, orduka ere bai. 663 65 78 43

Debagoiena. Pertsona arduratsua nagusien zaintzarako edota etxeak garbitzeko. 688 80 32 03 edo 943 53 37 00

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu ume eta nagusiak zaindu edo orduka garbiketarako egiteko. Deitu 943 71 53 74 (arratsaldez edo gauaz) edo 695 73 87 95 zenbakietara.

Debagoiena. Personahelduen zaintza lanak eta bestelako garbiketa lanak egiteko gertu nago, baita tabernari edo zerbitzari moduan lan egiteko ere. Autoa daukat. 654 24 13 27

Donostia. Klase partikularrak lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. 628 04 15 26.

Durango. Asteburuetarako lan bila nabil Durangon edo Bilbon. Erreferentziak. 699 77 57 21.

Durango. Ileapaintzailea Durango eta inguruetan lan egiteko prest. 600 666 417

Durango. Asteburuetarako lan bila nabil, tabernan lan egiteko edo beste edozein lanerako. Kotxea daukat. 656 750 534

Durango. Lanaldi osoan edo orduka aritzeko lan bila nabil, pertsona nagusien zaintzan edo garbiketari. Erreferentzia onak. 650 61 01 94.

Durango. Garbiketari, ume edo nagusiak zaintzen aritzeko lan bila nabil. Goizetan 09:30 14:00 eta 18:00 21:00. Erreferentzia onak. 681 21 82 30

Durango. Neska bat behar dugu 8 urteko alaba goizean eskolara eramateko astearteetan eta ostegunetan. 625 70 98 46

Durango. Neska gazte bat, garbiketa lanak egiteko eskaintzen da arratsaldetan. Interesatuak deitu, 615 71 62 32

Eibar. 40 urteko neska bat prest dago umeak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta tabernetan zerbitzari moduan lan egiteko, goizez. Bai Eibarren, Elgoibarren... 615 79 32 86. Eskerrik asko!

Emakume gaztea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Oñatin edota Bergaran egingo lukelan. 679 59 33 65

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Gitarra eskolak jasoko nituzke . 657 71 74 82

Bergara. Goi mailako sarrera proba bat egiteko, matematika eskola partikularrak emateko prest dagoen pertsona euskaldun bat behar dut. 685 75 91 72

Oñati. Oñati. 3. Dbhko eskola partikularrak jasoko nituzke. 617 35 63 53

502. EMAN

Arrasate. Neska euskalduna, ekonomian lizentziaduna, eskola partikularrak emateko gertu. 679 97 76 46

Arrasate. Neska gazte euskalduna lehen hezkuntzako ikasleei ikasketetan laguntza emateko prest. 616 32 73 08

Arrasate. Eskola partikularrak ematen dira. Goimailako ingeniari-industrialak. Matematika, fisika, kimika, teknologia, marrazketa... Maila guztiak, unibertsitatea barne. 630 71 35 83

Azpeitia. EGAko azterketarako zein beste hizkuntza eskakizunetako azterketetarako jendea prestatzen dut. Euskararen irakaskuntzan esperientzia dut. Euskaltegiak irakaslea naiz. Gipuzkoan barrena mugitzeko prest nago. 4. H. E. daukat. 645 71 85 78

Bergara. Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. 618 91 32 89

Bergara. Bergaran frantseseko eskola partikularrak ematen ditut. 679 74 00 61

Bergara. DBH eta Batxilerr mailetan eskola partikularrak emateko neska eskaintzen da. 630 83 67 19

Bergara. Goizez etxera joanda ingeleseko eskolak ematen ditut. Gurasoei zuzendutako eskolak, ohiko maila lortzeko. Pazientzia handia daukat. 679 74 00 61

Debagoiena. Eskola partikularrak. Lehen hezkuntzako irakaslea eskola partikularrak emateko prest. Rakel. 665 70 37 83

Gitarra eskola partikularrak Durangon. Gitarra eskola partikularrak durangon. Elektrikoa, akustikoa, rocka, bluesa, jazz, funka eta abar. Eskalak, akordeak, erritmoa, teknikak, inprobisazioa, irakurketa. 650 17 22 85

Ingeles eskolak. Haur edo gaztetxoei ingeleseko eskola partikularrak emateko gertu. Ordu-tegi malgua. Esperientzia handiko neska. Taldeak nahiz banaka. 15 euro/ordua (banaka). Arrasate edo inguruak. Alemaniera eta eskola laguntza ere eskeintzen da. Deitu konprometuzurik gabe. 635 12 87 82

6. MOTORRA

601. SALDU

Audia salgai. Audia salgai. 285.000 km. 1.950 €. Egoera onean dago. 686 79 80 30

Opel Zafira salgai. Aire giro-gailua, 2.0 dti, 100 zaldi potentzia, 4 airbag, ilantak, 4 kristal-jasogailu elektriko, itxiera bateratua, lagundutako direkzioa, atzerako ispilu elektrikoak,

irradi-cd-a, barruko ordenagailua, abs, tcs, lainoaren aurkako argiak, kristal tindatuak, 7 toki, matrikulatuta: 5/02/2005. 100.000 km. 6500 euro Deitu 663 93 60 26 telefonora edo idatzi mezu bat alanda@mon-dragon.edu e-postara:

Peugeot 206 xs hdi 2.0. Gehigarri guztiak ditu, ekipamenduguztia, gris metalizatua, aluminiozko hangunak ditu... Lehen eskuko da, kolpe gabekoa eta oso ondo zaindua. 650 27 48 80.

Opel vivaro salgai. Opel Vivaro 1.9. Cdti. Egoera onean dagoen furgoneta salgai. Ohea, mahaia, armairuak eta kortinak. 2005. Urtekoa, 115 zaldi, 5 toki eta 120.000 km. Deitu 665 737 605 telefonora.

Yamaha jog scooter bat salgai. Yamaha jog motorra salgai. 2.000 km. lata pasatuta. Ezer aldatu barik, dena originala. Beti egon da garajea. Idatzi mezu bat stratokaster@gmail.com e-postara edo deitu 650 17 22 85 telefono zenbakira.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Artzai txakurra salgai. Zortzi hilabeteko artzai txakur arra salgai. Uletsu eta polita da. 655 71 39 27

Bi indoiolar ekologiko salgai. Bi indoiolar ekologiko salgai. 18-20 kilokoak. 200 euro. 669 41 69 46

Zaldi arabiarra eta moxal emea salgai. Dokumentazioarekin. 675 70 85 74

703. EMAN

4 txakurkuma oparitzen dira. Laurak dira emeak eta hile bete dute. Bat, beltz-beltza da, bigarrena beltza zuri apur batekin, hirugarrena kanela kolorea eta laugarrena hiru koloreak nahastuta. Jabea behar dute lehen bailehen. Ikusi nahi izanez gero, ez dago arazorik. Lekeition daude. 94 684 09 82 /609 42 53 27 (Elbi gatik galdetu) amaiyi@hotmail.com (Amala)

8. DENETARIK

801. SALDU

4 erradiadore elektriko salgai, junkers markakoak. 4 erradiadore elektriko salgai

(igorle termoelektrikoak) junkers markakoak. Hauetako bat komuneko toalla-euskarria da. Denak programatu daitezke. 3 erradiadorek 2 urte dituzte, eta besteak urtebete. Egora onean daude. Eskaintza paregabea. 659 42 58 90. Ainara

Altzariak salgai. Dekorazio aldatetagatik salgai: bi lekuko sofa-oheta, ikeako mahaia eta philips telebista, 19 hazbetekoa, dvd eta guzti. Gazte lokaletarako paregabeak. Oso merke eta egoera onean. Deitu 17:30etik aurrera 619 81 70 72

Bizikleta salgai. Conor bizikleta saltzen dut. Egoera onean, bizikleta oso ona omen da ta garetzia baina saltzea beharrezkoa dut. 606 74 42 37.

Bizikletarako kaskoa. Giro encinal sport modeloa. Estreintatzeke. Gorria eta beltza. Eguzkitako biserarekin. Erosoa, arina, doigarria. Dendan 71 euro balio du, eta nik 55 euroan saltzen dut. 639 29 40 11

Egongela osoa salgai. 2 sofa, altzaria, 3 mahai, 4 aulki, 3 lanpara eta alfombra, dena berria bezala, sofak ezik. Prezioa 450 euro. 685 73 25 30

Egongelako altzariak. Estilo klasiko-baserrikoa. Armairua, ontzitegia eta erdiko mahaitxoak. Egoera oso onean. Debagoienan. Interesa duzenok, deitu zenbaki honetara, eta galdetu anegatik. 653 70 45 47.

Egongelako altzariak eta osagarriak. Egongelako altzariak eta osagarriak saltzen dira. Prezio negoziagarria. Deitu 948 46 06 37ra.

Erretroproiektorea. 42 hazbeteko erretroproiektorea saltzen dut, 250 euroan. Egoera oso onean. 658-72 09 87

Gitarra akustikoa eta midi teklatura salgai. Takamine (G-series 530 etc... Urdina) salgai, berri-berria eta gutxi erabilia. Berri, 530 euro balio ditu eta nik 350 euroan eskaintzen dut. Teklatua oxigen 49 hirugarren generaziokoak saltzen dut, hau ere berri-berria. Erosi berri 125 euro balio ditu eta nik 75 euroan eskaintzen dut. Olen-tzeroren hankazartzeak beste batentzat onuragarri izan daitezten... 677 78 31 56

Marrazketarako mahaia. Plano edota marrazkiak egiteko mahaia. Aparejadore edo arkitektoarentzako modukoa. Plegatu egiten da eta zutik jartzen da. 686-11 67 02

Manikiak Azkoitian. Gizonezko manikiak salgai. Berri-berriak daude, ez erabiltzeagatik saltzen ditugu. 50 eurotan bakoitza. Hiru maniki ditugu saltzeko. Harremanetarako: 690-67 43 15

Mp3a. Samsung yp-q2 jab. Erabili gabea. Beltza. Samsung-en bermea indarrean. 50 euro. 639-29 40 11

Nespresso kafe makina.. Essenza delonghi automaticaE modeloa. Beltza eta zilar kolorekoa. Berria. Abendura arteko bermearekin. Dendan 149 euro balio du, eta nik 90 euroan saltzen dut. 639 29 40 11

Ohe berria salgai. 1,35eko forjako ohea, 2 gau-mahai, 2 lanpara, nordikoa, izarak, koltxoia, somiera... Dena estreintatzeke, oso-oso polita da. Etorri ikustera konpromisorik gabe. Furgonetarik ez badaukazu, galde egidazu! 606 21 37 18

Ordenagailu pantaila salgai. Samsung 75 euro 17 hazbete, egoera onean. 680-61 96 99.

Ordenagailua eta home cinema. Packard bell ordenagailua eta home cinema, philips etxekoa, salgai. Harremanetarako: 943-79 60 89.

Reflex digitala, Nikon D80 + Nikkor 18-200 vr. Hiru urte eta erdiko argazki kamera digitala (Nikon D80 10mpix) eta objektiboa (Nikkor 18-200vr) salgai, egoera onean. 375+400 euro. Arrazola: formatu aldateta. 679-90 79 97

Snow taula burton custom. 1,56 + burton fijazioak (m). Egoera onean. 190 euro. 630 -65 04 03

Snow taula salgai. Atomic tika modeloa, neskendakoa, 1,44 neurrikoa. Behin bakarrik erabilia. Egoera oso onean. Harremanetarako: 679-09 33 34.

803. EMAN

Armairua. Hiru ateko armairua ematen dut opari. Arrunta da, baina berri dago. (Gaizka) 653 -70 84 09.

804. HARTU

Besaulki txukun bat . Kentzeko moduan bazaude, mesedez abisatu eta gustura hartuko nuke. 618-80 09 32.

Sofak hartuko genituzke doan. Arrasateko gazte txoko-koek botatzeko dituzuen sofak hartuko genituzke zuen etxeetan. Harremanetarako deitu 688-68 49 44 telefono zenbakira.

805. TRUKATU

Bizikleta. Neurri handiko 2002ko MTB bat (1,90 metro inguruko pertsona) aldatu nahi dut errepideko bizikleta batetik (neurri handia). Conor WRC 2 , aurreko suspentsioa, pedal automatikoak, nahiko erabilia baina kubiartak, bielak eta korak berriak dauzka. Erabiltzeko moduan. Dagoeneko maila ertaineko errepideko bizikleta baten bila nabil. Deitu 648 70 02 07 telefonora.

806. GALDU

Argazki kamara. Galdu da Aretxabaletan. Beltza, Fujifilm etxekoa, funda eta guzti. Aurkitu baduzu, deitu zenbaki honetara mesedez. Eskerrik asko. 639 99 33 34.

Nikon argazki kamara Etxarri. Nikon argazki makina beltza galdu zen urtarilaren 15ean etxarri arantzen, xapatero tabernaren inguruan. Opatu duenakhots egin dezala 678-30 11 36 telefonora.

Irakurtzeko betaurrekoak galdu. Abenduaren 9an, egue-na, galdu nituen bergarako industrialdetik kiroldegirako bidean. Aurkitu badituzu, deitu zenbaki honetara, mesedez. 943-76 28 35.

Lepokoa galdu Etxarri Aranatzen. Lepokoa galdu zen etxarri arantzen aurreko astean. Euskal herriko mapa dauka eta atzean luciene eta daniel jartzen du. Opatu duenak dei dezala 687-63 44 22ra.

Ume baten baserri arantzia galdu da. Joan den ostegunean, hilak 13, urtebeteko neskatilaren baserri arantzia galdu genuen iturriotz ketetik sebero altube bitartean. Norbait aurkitu badu, deitu mesedez hurrengo zenbakira: 605-77 57 38. Eskerrik asko

807. AURKITU

Giltzak Etxarri Aranatzen. 2 giltza topatu dituzte etxarri-aranatzen. C. D. Lagun artea lakuntza giltzarria dauka. Galdu dituenak beleixe irratian jaso ditzala.

9. HARREMANAK

901. HARREMANAK

Lagun bila nabil Zarautzen. Lagun bila nabil Zarautz Zumaia ingurukoak kirola, arantzan, mendira joan etb disfrutatzeko.... 699-14 03 85.

904. BESTELAKOAK

Donostia Alde Zaharreko Joaldunak. Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaiotetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. alde zaharreko joaldunak@gmail.com

Gasteizera egunero debagoienetik. Egunero gasteizera autoan joaten naiz. 09:00etan gasteizen egoten naiz, eta 13:00etan bueltatzen naiz. Joateko bakarrik, edo bueltatzeko aukera. 690-19 82 79.

Sarriguren - Komarka II. Autorik gabeko mutil bat naiz. Sarriguren - Komarka II industrialdea ibilbidea egin beharko nuke lan-egunetan, autoz. 08:30 aldera atera / 17:30ean bueltatu. Gastuak partekatze. 670-96 96 56 - Alfonso

Zarautza lanegunetan. Tolosaldeetik edota Goierrietik Zarautza autoz joateko jende bila. Irten, 7etatik Betarako tartean; handik, bueltan, 15etatik 16etara. 688-60 67 15.

Gitarriista baten bila. La Madriguera (Rock-urbano) taldea gara, eta gitarriista serio baten bila gabilta. Behar dugun gitarriista denboran izan behar du entseiu eta kontzertuak emateko. Harremanetarako begiratu Myspace orria: www.myspace.com/losmadriguera edo deitu zenbaki hauetara: 680 48 94 38 (Andoni) edo 646 61 63 29 (Juan txu).

Sagardotegira irteera. Martxoaren 12an sagardotegira joateko autobusa betetzeko jende bila gabilta Debagoienan. Dagoeneko 15 pertsona gaude. Asmoa bazkaltzeko joatea eta arratsaldean Hernanin egon ondoren gau aldean etxera bueltatzeko da. Deitu 686 28 76 80 edo 943 76 59 21

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALOKAIRUAN

GROS 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 750€

GROS Iparragirre. 2 logela, sukaldea, egongela handia, bainugela. 970€

ELGOIBAR Baserri-billa. 3 solairu. 10.000m2tako terrenoa. 1.000€

AMARA, ANTIGUO Ekaina bitarteko pisuak, 3 edo logela batekoa. 750€

SALMENTAN

AMARA Ferrerrias. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Sartzeko. 45.500.000 pta

AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Altua. Bakoia. 44.000.000 pta

AMARA Altua. Terraza. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bistak. 47.990.000 pta

AMARA Altua. Bistak ibairu. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 49.700.000 pta

AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 48.250.000 pta

AMARA OSINAGA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. 62.200.000 pta

GROS Apartamentu oso polita. Logela-egongela-sukaldea, bainugela. 28.000.000 pta

ERDIALDEAN Urbieta. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bakoia. 46.500.000 pta

ANTIGUO Matia. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Bakoia. Igogailua. 48.250.000 pta

INTXAURRÓNDO. 2 logela, sukaldea, bainugela. Bista politak. Berritua. 37.500.000 pta

EGIA Virgen Carmen. Igogailua. 2 logela, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000 pta

HERRERA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Berritua. 36.200.000 pta

HERRERA Altua. Bistak. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. 37.500.000 pta

BIDEBIETA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 29.990.000 pta

ALTZA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Igogailua. 24.500.000 pta

ALTZA 108m2. 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. 30m2tako terraza. 46.500.000 pta

ASTIGARRAGA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 28.000.000 pta

LEZO Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Sartzeko. Bakoia. 25.990.000 pta

PASAI SAN JUAN Altua. Bakoia. Bistak. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 29.200.000 pta

ERRETERIA Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 27.990.000 pta

USURBIL 100m2. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Tximeneta. Jardina. Parkina. 43.500.000 pta

www.etxebila.net

Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

www.inmosalbide.com</


Hedabideak eraldatzeko anbizioarekin aurkeztu dute 'The Daily' digitala

iPad-erako eskusiboki sorturiko egunkaria da, prentsako testu eta irudiak gaindituta, nabigazio esperientzia multimedia dakarrena

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Robert Murdoch handikiaren News Corporationena da egunkaria; albisteak kontsumitzeko era berria dakarrena, harentzat; baina iraganeko ideietan oinarritzen den etekin asmo hutseko proiektua da kritikoentzat. Momentuz, harrera txepela izan du The Daily hedabide espezializatuetan, *The Wire* kasu.

Albisteen negozioa berrasmatu gura du Murdoch-ek *The Daily*-rekin Apple-n ohiko aitzindari-tza eskutik hartuta. Finean baina, Murdoch-ek interneten *albigintzatik* etekina ateratzeko egin duen enegarren ahalegina da *The Daily* – defibinitiboa ote den ikuskizun da – eta iPad-a moduko gailu itxi zein ordainpekoen bidez egin gura du. News Corporation taldeak argitaratzen du, munduko hirugarren hedabiderik garrantzitsuen, barne hartzen dituelarik Fox telebista katea, National Geographic taldea edota *The Wall Street Journal*, besteak beste.



The Daily-k iPadean duen itxura. | GOIENA

"Kostu txikiak"

Zerbitzu eskusibo horrek a eguneko 14 zentabo (10 bat euro zentimo) balioko du eta soilik eros daiteke iTunes-en dendatik New Yorkeko Guggenheim museoa egin zuten ekitaldia eguaztenean "bai prentsan zein telebista, orain arte pentsaezina zen eran albisteak ikusteko modu berria" eka-

rriko duen proiektua aurkezteko, ze, Murdoch-ek gura du jendeak "pentsa, irribarre egin dezala eta konprometi dadila eguneko berrie-kin". Hori bakarrik ez, mozkin ekonomikoetan ere fede osoa du medien handikiak "egingo diren milioika harpidetzek bermatuko"

baitute arrakasta, "anbizioa izugarria" baitute "eta kostu oso txikiak". Momentuz, 30 milioi dolarreko inbertsioa egin dute proiektuan.e.

Iraganeko moldeen mendeko

Murdoch-ek entusiasmoak, hala ere, ez ditu lehen kexa eta kritikak sosegatu; egunkaria nahi baino gehiagotan blokatzen baita eta irudiek ez dute, antza, gura adinako erresoluzioa eskaintzen eta nabigazioa nahasgarria dela diote erabiltzaile askok. Horrez gain, prentsako moldeetan oinarritzen da *The Daily*, eta askorentzat sortzeko akatsa da hori. Halere, eguneko edizio batekin argitaratzea interneten beti izango da "atzoko egunkaria irakurtzea". Internet zerbait bada, hori etengabeko informazio fluxua da eta *The Daily* eduki estankoa da, finkoa. Noski, edukiak egunean bertan egunera ditzake hedabide digital berriak baina inondik ere ez du berehalakotasunaren potentzial guztia erabiltzen.

Tabletetarako sistema berria aurkeztu du Google-ek iPad-ekoari aurre egiteko

Alor grafikoan hobekuntzak, interfaze erabilgarriagoa eta bideo-konferentzia dakar

J.B. | ARRASATE

Aurreko bertsioak izandako harre-ara apala eta gero, tabletetarako bereziki diseinaturiko sistema eragilea aurkeztu du Googlek, hau da, Android-en azken bertsioa, hirugarrena: Honeycomb. Asmoa da Applen eskuko gailuetarako sistema eragileari hartzak erakustea.

Hasiera pantailan bertan guztiz nabigarriak diren *widget*-ak aurkeztu ditu sistema berriak eta guztiz pertsonalizagarria da eta zatikako interfazea daukate aplikazioek, iPadekoek bezala. Googlek berezkoak dituen zerbitzuetan ematen ditu emaitza ikusgarriak sistema berriak, Gmaila kasu, edota Google Maps.



Honeycomb-eko hasiera-paintaila. | GOIENA

Mapa nabigatzailean 3D-an erakusten ditu eraikinak eta bai mapetan zein Google Body aplikazioan ikusten da alor grafikoan lorturiko hobekuntza. Bideocha-

ta ere dakar sistema berriak eta zentzu honetan aurreratu egin zaio Apple-i ze, hain zuzen, iPad-ak ez dakar-bideokonferentzia egiteko aukerarik.

Fitxategi 'maltzurak' eta lukroa p2p sareetan nagusi

Ikerketa batek frogatu du 'pirateriaren' aurkako enpresek kutsatzen dituztela sareak nahita

J.B. | ARRASATE

P2p sareak dira erabiltzaileek euren artean fitxategiak – filmak eta musika, orohar – elkarrekin trukatzeko erabiltzen dituzten

sareak. Truke librearen eredutzat hartun izan dira sareok baina ikerketa batek erakutsi du oso interes zehatzei erantzuten dietela edukiak kargatzen dituzten

erabiltzaileek. Eduki gehienak faltsuak omen dira, nahita igotakoak sareak kaltetzeko, eta benetako film eta musika direnak, gutxi batzuek igotakoak dira eta erabiltzaile horiek diru polita egiten dutela ikusi da. Madrilgo Carlos III Unibertsitatearen ikerketa batek argitu du egoera hori 55.000 fitxategiren jarraipena eginda. Erabiltzaileak bi taldetan banatzen dituzte: lehen taldea *pirateriaren* aurka diharduten erakunde eta enpresek eta eduki

kaltagarriak zein faltsuak igotzen dituzten erabiltzaile "maltzurrek" osatzen dute. Beste taldea erabiltzaile askoz ere gutxiagok osatzen dute, "argitaratzaileak" dira horiek, eta benetako edukiak kargatzen dituzte masiboki eta jarduera horretatik dirua ateratzen dute publikitatearen bitartez. Kalkuluak egiten hasita, iker-tzaileek diote 300 bat dolar atera dezaketela egunean baina 4.000 dolarreko irabaziak izatera irits daitezke egunik onenetan.

Bakearen Nobel sarirako hautagai da Wikileaks

2011ko Bakearen Nobel Saria jasotzeko hautagaietako bat da Wikileaks filtrazioen ataria Norvegiako NTB albiste agenziei jakinarazi duenez. "Mende honetan adierazpen askatasunari eta gardentasunari ekarpenik garrantzitsuen" egin diotenen artean dago ataria Snorre Valen parlamentari norvegiarraren arabera eta horregatik porposatu zion Nobel Sarien Batzordeari. Valen sozialistarentzat Wikileaks-ek "azalera ekarri ditu ustelkeriak eta gobernu zein enpresek gauzatzen dituzten eskubideen urraketak, eta, batez ere, erne ibili da zelataritza ilegala salatzen, gerra krimenekin eta herrialde askotako tortura kasuekin". Izendapenak jasota, Nobelaren Batzordeak urrian jakinaraziko du erabakia.

Pribatutasuna eta telefonia aztergai bi gida berrian

Batetik, Datuak Babesteko Euskal Agentziak sare sozialetan pribatutasuna babesteko ikus-entzunezko gida kale-ratu du, bereziki gazteei zuzendutakoa, eta Tuenti, Facebook eta Twitterren informazio pertsonala zaintzeko jarraitu beharreko pausuak azaltzen dira bertan. Sarean eskegi dute materiala Agentzia arduratuta dago-eta gazteak erraz ematen dutelako informazio pertsonala interneten. Bestetik, Kontsumo Sailak ere DVD bat argitaratu du telefonia eta interneteko zerbitzuei buruzko argibideak emateko. Hain zuzen, sail hau da Kontsumitzaileen bulegoetan erreklamazio gehien jasotzen dituen. Formaziorako erabiliko da DVDa.

Gura barik ezabatu ditu Flickr-ek erabiltzaileen 4.000 argazki

Yahoo!-ren *on-line* argazki biltegiak gura barik ezabatu dizkio 4.000 argazki erabiltzaile bati. Marco Wilhelm izan da kaltetua eta 5 urte zeramatzan sareko zerbitzu horretan argazkiak kargatzen, 4.000 guztira. Yahoo! konpainiak "giza akats" bati egotzi diote errua eta konpentsazio moduan doan eman diote 'Pro' kontu baten zerbitzua lau urtez, 100 euroko kostua duena. Azaldu dutenez, ostutako irudiak erabiltzen zebilen erabiltzaile baten kontua ezabatzea zen asmoa, baina nahastu, eta Wilhelmena ezabatu zuten. Hala eta guztiz ere, Yahoo!-k galera izan duen erabiltzaileari agindu dio bere argazkiak errekuuperatzeko ahalegin guztiak egiten dabil-tzala teknikariak.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON
'twitter.com/amaiapavon'



Hilketen atzean

agunartean eztabaidatzen jardun genuen zergatik ditugun hain gustuko heriotzaren inguruko istorioak telebista-fikzioetan. Narratiban adituek esan ohi dute historian kontatu diren istorio gehienek dutela atzean sexuaren edo heriotzaren elementua, era inplizituan bada ere. Horrek dakarren erakargarritasuna ezin alde batera utzi telebistako ordu erdiko ekoizpenean, eta, egitate horiek nolabait justifikatzeko, askotariko telesailak eraiki izan dira.

Ikusi dugun azkenengo lana izan da Telecincok estreinatu duen *Angel o Demonio* telesaila. Heriotzari espiritualtasunaren osagaia gehitu diote, zentzu bako hilketa, bortxaketa eta suizidioak zurrizteko.

Errealitatea gainditzeko duten indarkeria ulergaitzak ikusi ditugu, beraz, *Angel o Demonio* telesailaren lehen kapituluak; haatik, tipiko eta topikoetatik atera ezinik dauden pertsonaiek egiten dute telesaila are jasanezinagoa: gizonezko aingerua eta emakumezko deabrua, gizon bortxatzailea eta emazte bortxatua, Skin Heads oldartuak eta neska nerabe beldurti eta otzana. Hara! Ikuslearen antsietatea elikatzen jarraitzeko bonba hemen.

ASTELEHENA, 7				
				
GOENA TELEBISTA				
ASTELEHENA, 7	MARTITZENA, 8	EGUAZTENA, 9	EGUENA, 10	EGUBAKOITZA, 11
				
Euskalteleko txirrindulariez	Sukaldaritza kontuak	Politikaz jardungo dugu	Antzerkia eta museoa	Aby-Kem eta Kerobia
20:45	14:15	20:45	22:15	22:15
<i>Harmailatik</i> saioan kirol kontuak izango dutugu hizpide; tartean, Euskalteleko txirrindulariez jardungo dugu.	Urkiola jatetxekoek arraina eta okela brasan nola prestatu behar den azalduko digute <i>Onein</i> sukaldaritza saioan.	Politika kontuak izango ditugu eguaztenean berbagai Julien Iriondo aurkezleak gidatutako <i>Tertulia</i> programan.	<i>Baginaren bakarrizketak</i> antzerkiaren eta <i>Cementos Rezola</i> museoaren gainekoak <i>Gipuzkoa Kultura</i> -n jasoko ditugu.	Danbakako bigarren edizioko Aby-Kem irabazlearen eta talde gonbidatuaren kontzertuak eskainiko ditugu telebistan.
13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari	13:45 Kantari	13:35 Kantari	13:45 Kantari	13:45 Kantari
14:15 Berbetan	14:15 Onein	14:00 Harmailatik	14:15 Onein	14:15 Onein
14:45 Berriak	14:45 Berriak	14:45 Berriak	14:45 Berriak	14:45 Berriak
15:15 Handik eta hemendik	15:15 Harmailatik	15:15 Onein	15:10 Nire Herria	15:15 Ur eta lur
15:45 Ikusmira	16:00 Kulturzulo	15:40 Bi tartean	15:35 Bi tartean	15:45 Kulturzulo
16:15 Gipuzkoa kultura	16:15 28. Klip	16:30 Leku txiki bat	16:20 Ikusmira	16:00 Leku txiki bat
16:45 Berriak	16:45 Berriak	16:45 Berriak	16:45 Berriak	16:10 Danbaka
17:10 Marrazki bizidunak	17:15 Marrazki bizidunak	17:10 Marrazki bizidunak	17:15 Marrazki bizidunak	16:45 Berriak
17:45 Klik	17:45 Harmailatik	17:30 28. Klip	17:45 Ipupomamua	17:15 Marrazki bizidunak
18:15 Marrazki bizidunak	18:25 Marrazki bizidunak	18:30 Marrazki bizidunak	18:15 Marrazki bizidunak	17:45 Gipuzkoa kultura
18:45 Berriak	18:45 Berriak	18:45 Berriak	18:45 Berriak	18:15 Ipupomamua
19:15 Kantari	19:15 Kantari	19:15 Kantari	19:15 Kantari	18:45 Berriak
19:45 Goiena Magazinea	19:45 Goiena Magazinea	19:45 Goiena Magazinea	19:45 Goiena Magazinea	19:15 Kantari
20:45 Harmailatik	20:45 Danbaka	20:45 Tertulia	20:45 Iragana gogoratuz	19:45 Goiena Magazinea
21:30 Goiena Magazinea	21:30 Goiena Magazinea	21:45 Goiena Magazinea	21:15 Goiena Magazinea	20:45 Gipuzkoa kultura
22:30 Harmailatik	22:30 Iragana gogoratuz	22:45 Tertulia	22:15 Gipuzkoa kultura	21:15 Goiena Magazinea
23:15 Gipuzkoa kultura	23:30 Iragana gogoratuz	23:45 Handik eta hemendik	22:45 Danbaka	22:15 Danbaka
23:45 Goiena Magazinea	23:00 Goiena Magazinea		23:45 Goiena Magazinea	23:45 Goiena Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Moby Dick taldearen kontzerturako sarrerak zozketatuko ditugu

Getxoko Moby Dick taldeak egunean gaztetxean zuzeneko eskainiko du Kooltur Ostegunen barruan. Bada, kontzertu horretara joateko sarrerak ditugu Arrasate Irratian. Zozketan parte har dezakezue 943 25 05 05 telefonora deituta edo irratia@goiena.com helbidera idatzita.

Kirolarentzako tarte bereziak gaur eta egubakoitzean

Igo autobusera irratsaioko albistegian tarte berezia eskainiko diogu kirolari gaur, astelehena. Arrasateko taldeek asteburuan lortutako kirol emaitzen gainean egingo dugu berba, besteak beste. Egubakoitzean, berriaz, asteburuari begira jarri eta zein partidua egongo diren esango dugu.

Ekin Emakumeak elkarteak jarriko duen erakusketaren berri

Ekin Emakumeak elkarteak argazki erakusketa jarriko du Kulturaten. Erakusketa hori egubakoitzean zabalduko dute, hilak 11, eta zabalik egongo da 25era bitartean. Bada, horri buruko solasaldia izango dugu, beraz, 107.7an, eta bertako xehetasun guztiak kontatuko dizkigute protagonistek.

Goiena telebistako edukiak ikusgai daude 'Goiena.net' atarian

Goiena telebista zuzenean Interneten ikusteko aukera ere badago 'livestream' bitartez

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Goiena telebistak badu bere lekua Interneten ere. Zehazki esateko, *Goiena.net* atarian telebistak bere atala dauka.

Bertan ikus daitezke egunean zehar telebistan emititutako bideo nabarmenenak eta interesgarrienak, albistegietako titularrak, *Magazinea* saioko tartearak, bideo-irritziak eta askoz gehiago.

Zuzenean
Livestream bitartez, Goiena telebista momentuan emititzen ari dena Internet bidez ikusteko

aukera dago. Hori egin daiteke zuzenean *Goiena.net* atariko telebista atalean.

Horrela, gure bailaratik kanpo daudenei ere aukera ematen zaie Goiena telebistako programazioaz gozatzeko eta, dauden tokian egonda ere, gure telebista ikusteko eta bertako albisteen berri jakiteko.

Bideoak
Askotariko ikus-entzunezkoak daude *Goiena.net* atariko telebista atalean. Bideo bat nabarmenduta ageri da; bertan egon dai-

TELE-ALBISTEAK

goiena

DEBAGOIENEN ALBISTEAK
Debagoieneko albisteak

Goiena

Bilatu

Serbi

Ekonomia

Hazkuntza

Kirolak

Kultura

Ogasuna

Teknologia berriak

Antzutas

Armaria

Antzabaitza

Arrasate

Bergara

Egitea

Ekuraketa

Leintz Galtze

Oñati

Debagoiena

TELEBISTA



programazioa

13:15 Marrazki bizidunak

16:10 Danbaka

19:45 Goiena Magazinea

13:45 Kantari

16:45 Berriak

20:45 Gipuzkoa kultura

14:15 Onein

17:15 Marrazki bizidunak

21:15 Goiena Magazinea

14:45 Berriak

17:45 Gipuzkoa kultura

22:15 Danbaka

15:15 Ur eta lur

18:15 Ipupomamua

23:45 Goiena Magazinea

15:45 Kulturzulo

18:45 Berriak

16:00 Leku txiki bat

19:15 Kantari

magazinea

Erretiratuendako osasun parkea Eskoriatzan



bidali zure bideoa

Albiste edota ikusgaria ala intereskoa den bideo bat eduki eta konpartitu nahi baduzu, jarriazu ordu bideoa igotzeko formularioa. Sakatu lekua izango du zure bideoak. Batu gure taldera eta



Urti berri on txinatarrei

Eguenean, otsailak 3, 00:00etan, 4708 urteari agur esan eta 4709ari ongi-estorria eman zieten txinatarrek. Arrasaten bizi den Jian Chen 17 urteko gazteak eskoletan eta Gasteizen duden senitatekoekin ospatu zuen urte berri hori. Urtearen urtea da aurtenkoa, zeinu horretakoak izango dira urtean zehar jartzen direnak eta, horretarakoaren arabera, talentu handiko jendea, lasaia eta lotatua izango da. Ordu modutako dira aurrizaketa, bakuraren eta txinatarren zentzuetatik, aldi, ez dira bategarriak izango oinarrien urtearen jatorrietatik. Jian Chenek eman dizkigu xehetasunak.



Eguraldi iragarpena (2011/02/03)

Eguraldi iragarpena

Goiena.net atariko telebista atala. | GOIENA

Telebistako programazioa 'Goiena.net'-en kontsulta daiteke

Egunak utzitako albisteen titularrak ikusteko aukera ere badago

teke *Magazinea* saioko solasaldi bat, bideo-irritziaren bat, albiste bereziren bat...

Horrez gain, eguneko albisteak titularretan ere ikus daitezke. Eta astean zehar izandako bestelako elkarrizketek eta albisteen ikus-entzunezkoek ere goza daitezke.

Programazioa
Egunez egun Goiena telebistak eskaintzen dituen eduki eta orduen gaineko informazioa ere badago *Goiena.net*-en.

Programazioa ikusgai dago, beraz, eta saioei buruzko informazioa eta bideoak ere kontsulta daitezke, programazioko taulan azaltzen diren saioen gainean klikatuta.

'Tokiko.tv'
Goiena telebistako bideoek badute tokia baita ere Tokiko euskarazko toki telebisten elkarteko atarian: *Tokiko.tv* atarian, hain zuzen. Bertan, batez ere, egunean 22:15ean emititzen dugun *Gipuzkoa Kultura* saioetako bideoak ikus daitezke.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Aimar Etxebeste Bolinaga
Otsailaren 13an, 7 urte. Baserri bariko baserritarrari zorionak eta patxo ugari etxekuon partetik!



BERGARA
Lauri Askargorta Irizar
Otsailaren 12an, 39 urte Zorionak, aitatxo! Munduko aita xorik onena zarelako, patxo bat zure mutikuen partetik. Zorionak zuri, zorionak beti.....Jokin eta Beñat.



OÑATI
Iradi Belategi
Otsailaren 12an, 4 urte. Zorionak, pizpirri. Ondo pasatu zeure egunien. Amatxo, aitatxo Haitz eta familia guztiaren partetik patxo handi bat, marrubizkoa!



ARETXABALETA
Manex Arriaran Oianguren
Otsailaren 12an, urtetxo bat! Zorionak, potxolo, aitatxo, amatxo eta etxeko danen partetik. Patxo asko!



ARRASATE
Marcos Cordovilla
Otsailaren 10ean, 13 urte. Zorionak eta patxo handia familiakoen partetik!



OÑATI
Arantzazu Aranburu
Otsailaren 10ean, 19 urte. Zorionak, Antxazu! Aste honetan tragua eta pintxua zure kontu, ala? Ondo-ondo pasatu eta 19 patxo handi etxekuen partetik.



BERGARA
June Alberdi
Otsailaren 9an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko printzestari.



ARRASATE
Intza Ezpeleta Sanpedro
Otsailaren 9an, 3 urte. Gure poxpolina handitzen doa eta hainbat eta handiagoa orduan eta maitagarriagoa. Ondo pasatu zure urtebete-tzean, sorgintxo. Aitatxo, amatxo eta Lide.



OÑATI
Julen Aranburu Gomendio
Otsailaren 8an. Zorionak, Julen! Dago-eneko 7 urte gure etxeko gizontxoak, nork esango? Urtebetetze egun alai eta zoriontsua izan dezazula eta ehundaka patxo Lander, aita-txo eta amatxo.



ARRASATE
Nahia Ijurra Goñi
Otsailaren 8an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu eguna! Familia eta lagun guztien partetik.



BERGARA
Malen Arando Salaberria
Otsailaren 8an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Patxo potolo-potolo bat etxeko eta bereziki Juneren partetik



OÑATI
Maider eta Maialen
Zorionak, bikote! Maiderrek otsailaren 8an, 6 urte eta Maialenek 9an, 3 urte. Ondo pasatu eta muxuak familikoen partetik.



ARRASATE
Marisol Guirao
Otsailaren 7an, 50 urte. Zorionak, tia Marisol! Ea goxokiak eta paketetxoren bat noiz ekartzen duzun. Patxo handi bat. Mikel eta Nora.




OÑATI
Naroa Legazpia Larrea
Otsailaren 7an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Patxo handi bat Jon, aitatxo eta amatxoren partetik.



BERGARA
Andoni Gallastegi Agirre
Otsailaren 7an, 15 urte. Zorionak eta urte askotarako. Zure gurasoak.



ELGETA
Gaizka Agirreurreta Litago
Otsailaren 6an, 3 urte. Zorionak eta patxo asko gure printzearentzat etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Ainhoa Unamuno Ayastui
Otsailaren 5ean, 34 urte. Zorionak eta ondo pasatu, zure lehen-gusinaren partetik.



OÑATI
Maitane Aranburu
Otsailaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak, guapetona! Igual ikasten, baina animo! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat etxekuen partetik.



BERGARA
Julen Crespo Zubia
Otsailaren 5ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Familia eta lagunuen partetik patxo handi bat.



partetik!
BERGARA
Urko Agirrezabal Gabilondo
Otsailaren 5ean, 4 urte. Zorionak, sportakus! Etxeko partetik!



ARRASATE
Marijose Otaduy Bengoa
Otsailaren 5ean, 37 urte. Aupa, guapisima! Zorionak zure urtebetetze egunean. Ea noiz ospatzen dugun! Merendola galanta egin beharko duzu, mila gominolekin eh! Kaiet, Manex, Mikel eta Anaren



ANTZUOLA
Ibai Jauregi Rodriguez
Otsailaren 4an 10 urte beteko ditu gure mutiko ederrak. Horregatik, patxo potoloak bialtzen dizkiote amamak eta etxeko guztiek. Zorionak eta ondo igaro eguna!



ANTZUOLA
Lierni eta Unax Errasti Urteaga
Liernik otsailaren 4an, 9 urte eta Unaxek otsailaren 15ean, 6 urte. Zorionak, bikote! Etxeko partetik. Muxu handi bana.



BERGARA
Nagore Tena
Otsailaren 3an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Musutxo batekin, etxeko partetik. Aitxitxa Diegok, besarkada handi bat bidaltzen dotzu.



ESKORIATZA
Maria Madinabeitia
Otsailaren 2an, 90 urte. Zorionak familia guztiaren partetik. Igandean ospatuko dugu.



ARETXABALETA
Mikel Roldan Guirao
Otsailaren 2an, 6 urte. Aupa, mutikote! Zelan pasatuko dugu aurten zure eguna? Futbolien? Zorionak eta oso ondo pasatu. Aitatxo, amatxo eta Nora.



ARETXABALETA
Markel, Kaiet eta Mikel
Markelek urtarriaren 21ean, Kaietek 23an eta Mikelek otsailaren 2an. Zorionak, hirukote! 4 urte bete dituzue, ezta? Hau gure burua! Sei urte! Bai ondo ibili ginena merendolan. Ea antolatzen dugun bazkariren bat, e! Koadrilaren partetik, musu kilo hirurentzat, lralabarrikuak!



BERGARA
Jokin eta Alex Piñero Flores
Otsailaren 1an, 8 eta 12 urte. Zorionak, txapeldunak! Nola ikusten den errealekoak zaretela, e? Ederto pasatu eguna, bikote, eta gurasoei opari bikoitza eskatu, Arrasateko laguntxo partetik muxu potolo potoloak.



OÑATI
Auritz eta Julen Aranburu
Kaixo Auritz (otsailak 1) eta Julen (otsailak 8), astebeteko aldearekin jaiotako lehengusu pareak! Zorionak bioi eta muxu bana etxeko partetik.

Zorionak!

Internet

Sar zaitetz goiena.net atariko Zorion agurren tartean. Aukeratu herria eta bete datuak.

Posta

Mezu bat bidali zorionagurrak@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitetz GOIENAKo ordezkariatza batera.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05. EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.

Eskelaren prezioa: 126 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

OROIGARRIA

Endika
Gonzalez Marcos

Arrasaten hil zen 2011ko otsailaren 2an.

Ezkutaketan: bat, bi, hiru, lau, bast...
Korrika estu amasa
Ez dakigu non baina ederki
Gorde zara zure kasa
Pasa parkea, pasa zuhaitzak

Ikastola ere pasa
Umezaintzako gela, etxea...
Ta Arrasateko plaza
noizbait aurkitzen zaitugun arte
segi dezagun jolasa!

Umezaintzako lagunak.
Arrasaten, 2011ko otsailaren 7an.

JAIOTAKOAK

Unax Egaña
Oñati. 4,000 Kilo. Urtarrilaren 30a.
Gurasoak: Ainhoa eta Urko. Argazkian, Unax amarekin.

Zuhaitz Carmona Ubeda
Arrasate. 3,460Kilo. Urtarrilaren 29a.
Gurasoak: Asun eta Pako. Argazkian, Mutikoa amama Carmenekin.

Aritz Busto Muruamendiaraz
Arrasate. 2,950Kilo. Urtarrilaren 28a.
Gurasoak: Amaia eta Heri. Argazkian, Aritz gurasoekin.

Unax Zubia Gerrikabeitia
Oñati. 2,500Kilo. Urtarrilaren 29a.
Gurasoak: Eneritz eta Asier. Argazkian, Unax gurasoekin.

Noah Garitagoitia Arias
Eibar. 3,200Kilo. Urtarrilaren 29a. Gura-
soak: Natalia eta Iñaki. Argazkian, Noah gurasoekin.

Maria Lopez de Munain
Eskoriatza. 2,800Kilo. Otsailaren 1a.
Gurasoak: Itxaso eta Jose Ignacio. Argazkian, Maria amarekin.

Ainhize Mendibe Garai
Oñati. 3,300Kilo. Otsailaren 3a. Gura-
soak: Naiara eta Xabat. Argazkian, Ainhize amarekin.

BABESLEA

IKUSI
MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Delibera- menduak	Handi	Jantzi mota
	Asaba	* Brasilgo hinburua	Lekalimea, moja
	Mesedez, otoi!		
	Emakume izena		
Euritako	Tolosaldeko herria		
Gizon izena	Emakume izena		
			Zorua
Goxoki, poliki			Musika nota
Amerikako estatu bateko			Bizkaieraz, dut
Modu atzizkia		Zain	Oxigenoa
Millikatua		Azkenekoa	Uranioa

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	U	T	A	K	Z	A	M
O		O	I	A		I	K
R	A	D	L	I	S	A	R
E	R		I	E	K	M	E
O	I	S	V	N	A	T	A
A	R	A	B	I	B	A	
N	E	N	A	V	A		
O	S	A	B	A			
G	L		E				

BILA-BILA 7

AI, ENE!

Irudimen apur batekin, dena konponduta

Umearekin bakarrik gaudela eta beste zeregin batzuk ditugula? Argazkiko haurraren gurasoek topatu dute konponbidea. **'thereifixedit.com'**



AHOBERO

"Piramideak ez dira inoiz hain hutsik ikusi; ea errebolta azkar amaitzen den!"

DAVID BISBAL | ABESLARIA

Almeriako abeslariaren hitzok hautsak harrotu dituzte asteon Twitterren: gogoeta hau azalekoa iruditu zaio askori eta ez dira gutxi izan haren golkora egindako txantxak. Esan behar da, baina, hainbat informatibotan ere antzerako esaldiak entzun direla. **'twitter.com'**

EGURALDIA



Max. **14°**
Min. **-1°**

Egunsentian lainoa eta izotza gero zerua urdin eta hego-osa-gaiko haize leuna. **euskalmet.net**

ASTELEHENKOA

goiena

2011-02-07

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Toti Martinez de Lezea Gasteizen jaio eta Europan barrena ibili ostean, Larrabetzun bizi da euskal idazle irakurrienetakoa. Igerilari eta aktore ohia, umore fina du bidelagun. | TXOMIN MADINA

"Nobela historikoen irakurleak zorrotzak dira oso"

1. Erdi Aroan jaio izan bazina, zer izango zinen?

Hamabi ume izango nituzke, arropa garbitzen egongo nintzateke errekan eta gazte hilko nintzateke. Zorte apur batekin, irakurtzen erakutsiko lidake aitak... Denboraren makina batekin garai hartara joango nintzateke, baina gero bueltatzeko!

2. Otxalorea Araotzen kokatu zenuen... Bazenuen bertakoen zoro-haizearen berri?

Oñatin izango dute, ze nik ez nuen-eta horren berri. Oñatiko haran urrunena eta isolatuena izanda, baliteke orduan hain irekiak ez izatea. Nik, badaezpada, asmatu egin nuen baserria!

3. Nur, zure gaztetxoendako liburuetakoa protagonista, zure ilobarengan oinarrituta dago. Zer iruditzen zaio hari?


Normala iruditzen zaio, amona idazlea da-eta! Ez dakit ohartzen den, baina bere historia ari naiz idazten, nagusia denean oroitzeko. Liburuen arrakastak harritu egin nau, itzela izan da!

4. Helduak edo gaztetxoak, zeintzuk dira zorrotzagoak?

Helduak; eta nobela historikoen irakurleak zorrotzak dira oso, historia ezagutzen dute-eta.

5. Ikusten duzu zeure burua etorkizunean kokatutako zientzia fikziozko eleberri bat idazten?

Ez; gehiago gustatzen zait iragana etorkizuna baino.



LEXURI DOYAGE

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Pribilegioak kenduko nituzke"

"Oso zaila da hori, politika gorroto dut-eta. Baina gizarte osoak nire etxe aurrean lehendakari izatea eskatuko balit... [Barre] Politikarien estatus pribilegiatua bukatuko nuke maila sozial, ekonomiko eta juridikoan. Lotsagarria da gure administratzaile izateko aukeratu ditugunek legeak euren gustua egitea".

6. Zein da euskal kondairen artean gehien gustatzen zaizuna?

Aukeratzekotan, artzainaz maitemintzen den laminarena. Baina asko daude; hain herrialde txikia izanda, kondaira eta pertsonaia kopuru aldetik munduko aberatsenetakoak gara.

7. Zer du Larrabetzuk, Londresek edo Parisek ez dutena?

Lasaitasuna eta bakea: nire herrian dago, nire etxean, nire lurrean. Herri euskalduna da, gainera, tamainaz egokia, eta oso parte-hartzailea: ekimen eta talde mordoa dago.

8. Kukubiltxo taldearen sortzaileetako bat izan zinen... Faltan igartzen duzu kale-antzerkia?

Ez, mesedez! Oso nekagarria zen: guztia jarri, guztia kendu. Bere momentuan ondo egon zen, baina ez dut faltan igartzen.

9. Igerilaria ere izan zara.

Ama Espainiako txapeldun izan zen 45ean, eta ni ere bai, haur mailan, 100 metroko bular-igeriketan. Orain, Deriora joaten gara biok, eta aquagyma egiten dugu: igeri ez, baina han ibiltzen gara gora eta behera.

10. Zer egingo duzu elkarriketara hau bukatzean?

Neurearekin jarraitu: erosketak; bazkaria prestatu; amarekin bermuta hartu; bazkaldu; siesta; eta 16:00etatik gauerdia idatzi. Nafarroaren konkistaren jatorriari buruzkoa izango da hurrengoa.

BIHARAMUNA

ELENA LAKA



Beti bi

Debagoiena ez da Gal-dakao, hemen ez dabil-tza bi erakunde zerb-tzu bera emateagaitik lehian, gogoratu bestela zertan den bailararen hezur-dura izan behar zuen tranbia hura. Debagoiena, baina, bada Euskadi, eta Madrideko tabakoari buruzko araua indarrean dagoen arren, Jaurilaritzak erabaki du bere legea ere aplikatuko dela. Bakarra gutxiegitxo izango ote zen. Itxura denez, baina, ez da lege-enpatxu kontua, ezta arau-destajua, ez, Sailburuak adierazi duenez, legea jendea konbentzitzeko egiten da, ez inposatzeko. Alegia, tabakoaren euskal legea aplikatzen bukatzen denean, erretzaileak erromes joango direla Lakua-ra, beren osasunak onera egin izanagaitik eskerrak emateko. Adi negozio-lerro berrien usaintzaileok, tabakoagaitiko damutuei eskapularioak saltzen hasteko. Lakuak Lourdesen irudia hartuko du. Konbentzitu ez inposatu, zergaitik tabakoarekin bakarrik? Zergaitik ez lelo bera, adibidez, manifestazioak arautzeko? Ah, beste errota bateko ura. Euskal legeak, dena den, gure tradizio txit ikutezinei mesede egiteko sortuko da: sozietate gastronomikoetan erretzea baimentzen da, erretzaileak eta tartekoak bertan itxi daitezen parrandarako, huelga eguna izango balitz bezalaxe.



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51